

An abstract, high-contrast background featuring a central point from which numerous sharp, radiating lines of yellow and black extend outwards, creating a starburst or explosion effect. In the upper left corner, there is a small, stylized yellow figure that resembles a person or a character on a thin, curved structure.

**KARDABERAZ**

# **Aitonaren Ipuiak**

RAMON MURUAK

## KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º **KARDABERAZ AITARI OMENALDIA**  
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akesolo, Onaindia eta abar).
  - 2.º **NEURRIZTIA**  
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
  - 3.º **SUGE GORRI**  
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.
  - 4.º **ESPALAK**  
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
  - 5.º **AITONAREN IPUIAK**  
(Ramon Murua).
  - 6.º **ERREKA-ZULOAN eta...**  
(Anastasio Albisu Ayerdi).
  - 7.º 1) **KOMEDIAK-SHAKESPEARE**  
(Larrakoetxea, Bedita).
  - 8.º **LANDARE-JAKINTZA**  
(Larrañaga, Gillermo).
  - 9.º **GARTZI-XIMENO eta...**  
(A. Albisu Ayerdi).
  - 10.º **EUSKALERRIA ETA ERIOTZA**  
(Anastasio Arrinda Albisu).
  - 11.º 2 - KOMEDIAK
  - 12.º 3 - DRAMAK
  - 13.º 4 - DRAMAK
  - 14.º 5 - TRAJEDIAK
  - 15.º 6 - TRAJEDIAK
- } SHAKESPEARE



## KARDABERAZ BILDUMA - 5

### AITONAREN IPUIAK

## KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º **KARDABERAZ**
- 2.º **UME TXIKIENTZAKO SOINKETA**
- 3.º **EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK**  
(A. Arrinda).
- 4.º **KARDABERAZ - 2.**

KARDABERAZ BILDUMA - 5



UMEENTRAKO

# AITONAREN IPUIAK

RAMON MURUAK  
MOLDATUAK

0 57402

I  
**JENTILLENAK**

Edita: Editorial ESET - Seminario Vitoria  
Autor: Ramón Murua  
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria  
Depósito Legal VI 1135 - 1973  
I. S. B. N. 84-7166-346-5

## GARIA GIPUZKOAN



—Ba al daki, nundik ta nola garia ekarri zuten Gipuzkoa-ra?

—Bai, Malen, entzun izan nien nere aurrekoai, nola ekarri zuan Martin txikiak Naparrotik garia.

—Naparrotik ekarri al zuten ba, aitona?

—Naparrotik kuantu Malen; Kiputz ta Bizkain oso berandu ekin zioten nekazaritzan; Naparro ta Araban askoz lenago.

—Zertaz bizi zan ba jendea?

—Eizetik geyenbat, Malen, ta berez lur ta zuaitzak ematen zituzten igaliaz.

—Eize utzetik? Gezurra dirudi, aitona!

—Ezta ba gezurra, Malen; urtetan eize utzetik bizi izandu ziran. Aurreago artzantzan ekin zuten: bei, zaldi ta aizkenean ardiak zaintzen. Ondoren lurrak lantzen...

—Nola bizi izandu ziran ainbeste urtetan nekazaritzari eldu gabe?

—Errexa iruditzen al zaizu, Malen, izango zitayela berri artan, zuaitzaz josita egongo zan lurralde onetan, basoak bota ta lurrak soro biurtzea?

—Zergatik etzuten ba ori egingo ta jatena ugaldu gizon ta abereentzat?

—Ai, Malen, urteak igaro ziran tresna egokiak sortu baño len gure aurrekuak. Etzan giro arriz egindako aizkora ta atxurraz basoak bota ta soro biurtzea.

—Zer esaten ari da, Aitona? Arrizkuak al zituzten lan tresnak?

—Ez al dizute, Malen, eskolan ori erakutsi? Arrizkuak omen zituzten aurreneko tresnak ta jarri zizkien izenak orixe erakusten digute; aizkora —aitz-gogorra, aiztoa, azkona, atxurra— aitz-urra ta abar...

Ez digu ba guri maestrak orrelako gauzarik erakutsi.

—Ba neri, emen mendiko jentilleen etxeak miatzen ibilli zan apaiz jakintzu batek, On Jose Migelek erakutsi zidan. Donostira joan nitzan

batean berarekin topo egin nuan, ta museora eraman niñun, bildu zituzten arrizko tresnak ikustera.

—Ba al daki, aitona, noiz asi ziran emen garia ereiten?

—Noiz ori iñok ere ez daki; bakar bakarrik dakigu aurrekuak esanda, nola ekarri zuten.

—Ain arrigarria al zan ba garia ekartzea? Diruz erosita ekarriko zuten noski? aitona.

—Bai, noski, gaur bezin errex egon balitz joan da dirukin ekartzea. Bañan ordun etzegon emen urrerik, ezta gari lurrekin artuemanik.

—Nola ekarri zuten ba, Aitona?

—Abitu omen zan ba Maitin txikia lagun batekin Napar aldera ta bidean zijoaztela basautz bat egokitu ta azkonaz ilda agatik zintzilika zemakietela, eldu omen ziran aurreneko errira. Etzijoazten esku utzik ta pozik artu omen zituzten ostatu eskatu zuten etxean, baita ogizuri ederra atera basautz erreakin jateko. Iñozu papera egiñaz, ez omen zan galdezka isiltzen Martin Txikia! ¡Aren jakin bearral Zeekin egiten orrelako jaki gozua; noiz ta nola ereiten zuten, noiz bildu, nola jo ta eyotu, nola ogi biurtu. Poz pozik ari ziran etxeukuak kiputz arren jakin naya asetzen; baita gazte bat mandiora joakin, gari mordotxo bat ekarri Martiñek ikusi zezan.

—Ze egin zun Martiñek garia aurreneko aldiz ikustean, Aitona?

—Zoratu balitz bezela, garia eskutan artu ta muiñ eman zion, Malen. Urrena aora ale batzuk eraman ortz tartean txikitu ta ala omen zion: serioki nork pensa ale txiki oekin orrelako ogi ederra egingo zanik!

—Zer zioten naparrak kiputzaren ateraldiak entzunda, aitona?

—Poz pozik zeuden naparrak arrituta ikustean kiputzak, ta kontu kontari berandutu zitzaizelako, urrengo goizarako utzi zuten gari pilla ikustea.

—Lorik egiten zun, aitona, Martinek?

—Bai, noski, bañan jarriko zitun gari soroekin amesetan. Goi-zean ernai asko jeiki omen zan Martin txikia, ta anaitasun ederrean basautzaren beste puska bat erreta jan ondoren, gari pilla ikustera eraman zituzten bi kiputzak.

—Zer zion Martinek, aitona, gari pilla ikustean?

—An omen zegon arrituta gari pilla begira ta esan omen zun: Au da edertasuna. Ez genuke ezkurren bearrik izango kiputzak, garia

ereingo ba genu. Aizak lagun: etxerakoan garia eman bearko dugu, ereiteko lain.

—Nai dezuten guzic —erantzun omen zion etxe-negusiak— urre truke.

—Urrerik ez dugu ba ekarri; bai, ordea, zangoetan indarra, gari pilla au aidean igarotzeko. Algara egin omen zuten danak, Martiñen ateraldia entzunda, izan ere korputzez kaskarra omen zan. Ala erantzun omen zion etxenagusiak: Zorro au bete gari emango dizut, airean igarotzen ba duzu.

—Badakit irriz diozula; bañan zeon begiz ikusiko nazute gari pillaren gañetik aidean igarotzen.

—Igaro al zuan, aitona, saltoan gari pilla?

—Abitu zan Martin mandio baztarrera ta etxeko danak bi aldetan jarri omen ziran bere saltoa ikusteko. Abitu omen zan Martin abiada ederrean ta salto aundia egin arren, pillaren erdian gerriraño sartu omen zan garitan. Ango irri ta algarrak! A gizajua; Etziok kiputzik pilla au aidean pasako duanik”.

—Buru makur itzuli bearko zun Martiñek, aitona, etxera gari gabe.

—A gajua! Ori baño buru argigua zun Martiñek ta oñetan zeuzkan abarkak, josita zeuzkaten mantarrak, gaurko katiuskan antzera, ta gorraño bete zitzaizkion gariz.

—Ortaz ordaindu gabe ekarri al zun garia, aitona?

—Orixel Etziran jabetu etxeukuak soro polit bat ereiteko lain gari zeramanik Martiñek abarka ta mantarran artean. Erritik landara irten orduko, kendu zitun Martinek oñetakuak ta zaku txikit bat bete zun. Pozik asko itzuli zan etxera. Orrela ekarri omen zuan Naparrotik garia Martin txikiak.

## JENTILLA TA ARTZAYA

—Ipui polit asko daki beorrek, aitona, azalduko al dit oyetako bat?

—Ipuyak entzuteko irrikatzen al zaude, Malen?

—Azaldu beit aitona, artzai ta jentillena.

—Entzun ba, Malen, ta goguan artu aditzera eman nai duana. Jentil asko bizi omen ziran garai artan Aralar mendian, ta gorriak ikusi azten omen zizkien kristau artzayai, euren artaldeekin mendira igotzen ziranean.

—Lo al zeuden kristau artzayak, aitona?

—Ez, Malen, etzeuden lo kristau artzayak, bildur ziyela baizik jentillai ta sesio biderik ez ematen sayatzen zirala arretaz.

—Zergatik, aitona, bildur ori jentillai? Indar aundikuak al ziran bearbada?

—Indar aundikuak ez ezik, ajolagabeak izaki ta berriketa gutxi eurakin. Begira, Malen, ze egiten zion jentil oyetako batek artzai bati. Joaten zitzaion egunero txabolara, ta noiz joango? Ardiak jetzi, esnea berotu ta gatzagia eman ta gatzak egitera zijoanean juan ere.

Ze egiten zuan jentillak begira egon?

—Bai zera; etzitzayon begira egoteko asmotan joaten. Ez dezu igaritzen zertara joaten zan Malen?

—Ez pa dit esaten ez det jakingo, aitona.

—Ara ba, Malen, joaten zitzaion txabolara, jartzen zan su ondoko arri aundi batean, ta gatzak egiteko gertu zegonean gatzagia, kentzen zion eskutik kaikua artzayari, ta mauka mauka jaten zion mami eder bihurturik zegoen esne dana.

—Ederki uzten zun artzai gizajua. Zer zion artzaiak, aitona?

—Ze esango zuan artzaiak? Ixillik egon bear bada-ezpada ere; etzeukan txantxetan asterik ura bezelako gizon puskarekin; kapaz baizan artzai bere txabola ta guzi txikitzeke...

—Lagun ederra egotiku zitzaion inguruan, aitona!

—Bai, Malen, etzun oso lagun atsegiña artzaiak jentil ori ta asper egiñik zegoen berarekin, gaznarik gabe auzten bai zun egunero. Orrel etzuan bururik jasoko; burubideren bat artu bearrean zegola jabetzen zan artzai. Ze egin ordea? An zegoen artzai su aurrean ausnarrean suari, kaiku utzari begira, zeozter sumatu nayeon txabolatik usatxeke jentilla. Atea itxi egur trankaz? Ez alperrik; ostiko batekin atea jo ta barrura ta gazna bage gelditu. Zer egingo diat ba? bere buruari galdezka... Auxe buruaste ederra...! Antxe garrari begira artzai gizajua... Bat batean, ordea, argitasun bat sortu zan bere buruan... jentilla azaldu baño lentxego, sutan berotuko ba nuke bere jasartzen dan arri ori... zer?... irriparre gozo bat azaldu zan bere arpegian... Aizak aizak —zion atzenik— ederki sumatua zegok ori... ez dik berotu txarra artuko bere atzealdiak ta mamia jateko betarik gabe alde egingo dik ta pakean utziko au.

—Etzan orratik iñozua artzai ori, aitona; egin al zun artzayak gogoratua aitona?

—Orixe bai egin zuala, Malen, sumatu bezela. Gaznak egiten etzuan goiz artan lanik ta aizkora artuta, egurra egitera joan zan. Arratzaldean berriz, goizean ebakitako egurrak txabol ondora. Urren-go goizean jeiki orduko su eder bat piztu ta su ondoan jarri jentillaren eserlekua ta ondoren ardiak jesterera joan kortara. Poz pozik ari izan zan goiz ardiak jaixten txistua joaz alajañetan... bazirudian ardiak ere alaitu zirala artzaiaren pozaz ta bestetan baño esne geyago ari zan jexten.

Jarri zuan urrena esnea surtan berotzen ta jentillaren eserilekua bere tokian jarri zun egur sendo bategaz ta jazarri zan bere lekuan. Eman zion gatzagia esnari ta kantari itxegon esnea mamitu arte. Ura zan artzaiaren pozal —

—Etorri al zitzaion, aitona, jentilla artzayari?

—An azaldu zan txabolako atean ta egun onak eman gabe barrura sartu ta betiko eseilekuan plas jazarri jentilla. Poz pozik artzaya kantari.

—Ja jai! Berotu ederra artuko zuan jentillaren atzealdeak, aitona.

—Ori esan zazu Malen! Berotu ez ezik erre ere egin zitzaion jentillari atzealdea ta marruka mamia jatea aztuta alde egin zun txabolatik.

—Aztu zitzaizkion, Malen, jentil indartzuari mami kontuak ta pake ederrean egiten zitula geroztik egunero bere gaznak artzayak.

Artu goguan berso oek Malen:

ASKO BALIO DU INDARRAK

GEYAGO BURU AZKARRAK

## JENTILLEN INDARRAK

—Sorgin ipui ederrak esan dizkigu, aitona; ta orain Maleni esan zenikion jentil oyetzaz, jakin nai genuke, nolako gizonak ziran, idar aundikuak eta abar...

—Ori da Antoni, gaur ekarri dezuten jakin naya! Pozik sayatuko naiz zuen jakinai ori asetzen.

—Arritu egiten al da, aitona, gure jakin naia ikusita?

—Ez naiz ba arrituko! Guk baño eskola geyago ikasiak zerate gaurko gazteak ta bazirudin etzuketela aintzat artuko, nik bezelako agure zar batek, esan zezakena; bañan or ikusten zaituztiet nere inguruan, nik nere aurrekoi entzundako ipui ta esakerak entzuteko larri. Au poza nerea! Ni or nenguan kontu oyek azaltzeko lotzaz bezela, ta zuek ematen didazute lasatu ederra. Esango dizuet bai pozik, Josepa nere aurrekoi entzundako ipuyak.

—Indar aundikoak zirala al zioten?

—Entzun izan ba zenioten nere aitonari, jentillen kontuak esaten azten zanian, Maria... Arretzek zekin gauzak bizi bizi azaltzen; ba zirudian an gure begien aurrean zebiltzetela, berak zion jentillak, eta esku bakarraz josotzen zutela ogei, berrogei ta nik ez dakit zenbat arrobako arriak ta asten zirala eurakin jolasean.

—Ain bizi azaldu oi al zuan beorren aitonak?

—Bai Malen, nik aren onduan, izketan ez dakin mukizu bat bezela naiz.

—Etzan orratik makala izango, beorrek ain ederki azaltzen da kinean!

—Aralar, Ernio ta beste menditan bizi oi ziran jentil oyek.

—Mendietan? Zergatik etziran bizi beko zelayetan?

—Alaxe zion nere aitonak eta ala entzun izan niyen bestiai ere. Nik bein egin nien galdera ori ta dakizute ze erantzun zidaten?

—Ori beorrek jakingo du; guk bost dakigu...



—Ara ba Antoni, basoz josita zeudela beko zelayak ta mendiko zelayetan bazkatzen zituztela eureen abereak.

—Arritzekua da orratik, iñor ez bizitzea beko zelayetan!

—Ala zioten bai gure etzeko ta bai beste etxetako zarrak, Josepa. Nik berriz gure baserriari begiratuta, zuzen zebiltzatela uste det; bada mendi gain ta egaletan ikusten dira basarri geyenak ta oso gutxi beko sakonetan.

—Itxura ba du, beorrek dion bezela izango zala. Nun bizi izaten ziran?

—Berri artan koba zulotan geyenbat; aurrerago txaboletan. Ba dira Euskalerriko mendi askotan Jentil-izenaz ezagutzen ditugun arri pillak.

—Etxiak amildu ta jarraitzen duten arri pillak izango dira noski.

—A eztakit ori, Malen, ala dan. Bein gaztea nintzala aritu nintzan beste lagun batzuekin jentil etxe oyetako bat miatzen. Askotan entzun izan genien zarrak, iri larru bat bete urre gorde zutela etxe oyetako batean ta guk urre ori argitaratu nai genun.

—Urrerik arkitu al zuten?

—Guk ez genun, Josepa, uste genun urrerik arkitu. Egin genun lana gogotik arria kentzen ta aizkenean zutik jarrita zeuden lau arri-losa aundiak azaldu ziran. Ura gure poza! Ziur jotzen genun arri arren barruan egongo zala, billa genbiltzan urrea. Geren buruak bear-tzeko zorian indarka iritxi genun lauetan txikiena baztartuz, barrura sartzeko lain toki egitea. Sartu giñan barrura, bañan jentillen ezurak arkitu genitun.

—Jentillen ezurak?

—Bai, Malen, jentillen ezurak bakarrik. Ta aurrerago jakin nun, ortan asko ikasi ta ikusia zan apaiz jakintzu bati, jentillen illobiak ziralda, guk jentil-etxe izenaz ezagutzen genitun arri pillak.

—Aundiak al ziran illobi artako arriak?

—Ayetek ba aundiak, Maria. Sasoi onenian geunden zortzi mutil giñan, ta ayetako txikiña ez genun nai bezin aguro baztatu, ta ori burni palanka aundiak erabilli genitula lan artan. Ortik pensa zenbako-indarra bear zuten izan jentillak, arri urak ekarri ta an zutik jartzeko!

—Indar aundirik gabe erabiltzen dituzte gaur, aitona, arri galantak.

—Bai, noski, Antoni, ortarako sortu dituzten tresna egokiaz. Bañan garai ayetako jentillak, ze tresnak izango zituzten euren besotako indar ta egur batzuk izan ezik?

—Laister erabaki du beorrek; bañan nik esango nuke, indar aundia ez euki arren, askoren artean aixa egin zezaketela lan ori.

—Etziñan gu bezela, Josepa, arri arren begira egon ta guk bezela alde guzietatik arri urak astertu, Iñun zulorik edo koskarik ote zeukaten sokak katiatzeko. Palankaz, berriz, ezin askok arri arren eldu; lagun askok leku aundia bear batera eragiteko.

—Indar kontua azaltzen dun ipui bat esan bear digu, aitona.

—Azalduko dizuet ba, Malen, orrelako ipui bat. Ta ez arritu ipui orretako jentillak azaltzen duan indar aundia entzunaz. Ba dira orain Aralar mendian arri pelota galantak ta oyekin ibiltzen omen ziran jentillak solasian, alkarri aldean botaz ta berrogei arrobatik gorakuk dituzte arri arren...

—Etzuten orretarako indar txikiak bear...

—Bai, Maria, Naparrotik iri larrua bete gari, bizkarrean ekarri zunak bezela euki bear. Ba omen zetorren jentil ori bizkarrean zama eder ori zekarkilla ta eldu omen zan Gaztelu mendi ingurura. An arkitu zun bere alaba, udakin iturritik zetorrena.

—Utzi zazu pixkatean, aita, zama ori, tan edan zazu ur gozo ontatik-ori esanaz, ur ontzia eskeñi omen zion aitari.

—Ez alaba-erantzun omen zion aitak-ez den itxurakua atzedan artzea bidean. Ala izan balitz zazpi iri larru bete gari artuko nizkiñan abitzerakuan.

—Ta atzedan artu gabe jarraitu omen zun bere iri larrua bizkarrean zemakilla Gaztelu mendira.

—Etziran makalak jentil oyek.

—Ez, Antoni etzeguam oyekin apostuan asterik. Ze egingo luteke gaurko arrijasotzalleak orrelako bat plazara azalduko balitz? Aspaldiko kontuak dira bai ta bear bada zeukaten baño indar aundi-goaz jantzita azaltzen dizkigute ipuyak.

## TARTALO

—Ez dit inoiz basajaunen ipuirik azaldu; ez al daki orrelakoren bat?

—Bat al diozu, Malen? asko dakizkit nere aitonari entzunak.

—Lengoko jentillaren antzekuak al ziran basajaunak, aitona?

—Bai ta ez, Malen; jentillak baño indartzuguak omen ziran basajaunak ta begi bakarra omen zuten zuten bekoki erdian, lengo zarrak ziotenez.

—Ai ene! Bildurtzen naiz entzun utzaz. Noiz bizi izandu ziran basajaun oyek?

—Orain dala millaka urte asko, Kristo mundura azaldu baño lenago. Oyetako bat bizi omen zan Euskalerrin, Sadar mendian.

—Sadar mendian? Nun dago mendi ori?, aitona.

—Zegama inguruko mendi bat dezu, Malen, mendi ori, ta, bertan omen zeukan bere etxea basajaun orrek; Tartalo izenaz ezagutzen omen zuten.

—Nekazaritzatik edo zertatik bizi zan Tartalo dalako basajaun ori?

—Eizetik bizi omen zan, Malen; ta errex menderatzen omen zitun pizti gogorrenak ere bere indar aundiaz; bañan ez pensa pizti utzak jaten zitula, berdin berdin jaten omen zitun gizonak egokitu eskero.

—Ixillik egon bedi, aitona, orrelakorik esan gabe.

—Ez dezu sinistu nai, Malen; esan dizut, ordea, gizon gogorrak zirala dalako basajaun oyek, ta gogorrenetakua zan dalako Tartalo ori.

—Biotz gabea izan bear du persona batek gizonak jatekol

—Bai ala da ori, Malen; bañan piztien aragia baño gozoguoa jaten omen zun Tartalok gizonena.

—Ori jakinda, etziran ausardituko gizonak mendi orretara joaten ta gutxiago, berriz, etxe ingurura.

—Etziran ba danak ikaritzen ta ba ziran bere etxe ingururaño

urbitzen ziranak. Orrela inguratu ziran bere etxe ingururaño bi mutil gazte. Uraxe bikote ederra! Ikusi zitun bere koba zuiotik Tartalok, ta alde egiteko betarik eman gabe bidera irten zitzen Tartalo ta eldu zien bici ta bizkarrera jasoaz bere koba zulora eramane zituan.

—Ez al zuten, aitona, alde egiteko alegiñik egin bi gazte aiek?

—Ez alperrik! Tartalok eldu ezker; nor ikusi aren atzaparretatik? Sartu zitun barrura; itxi zun sarrera arri aundi bategaz ta lasai auzi zan su eder bat piztutzen Urrena artu zun burrunzti bat ta gazte ayetako bati sartu zion golpe baten bizkarretik bera, jaso aidean ta surtan jarri zun erretzen.

—Errukarriak Tartaloren atzaparretan erori ziran gazte ayek!

—Ondotxo errukarriak, Malen, gazte ayek! Surtan erretzen burrunzian sartuta ikusi bear lendabizi bere anaya ta Urrena Tartaloren aoran izkututzen.

—Orrek igaroko zitun estuasun ta larrialdi ederrak! Ez al zun ezertxo egin alde egiteko, aitona?

—Alde egiteko diozu, Malen? Ezin kendu zezakean sarrerako arria alde egiteko ta alde eginda ere ezin izkutatu, beatzan Tartalok jarri zion erastunak tarteta "emen nago" diadar egiten bai zun; Ikusi ba nolako estuasunak igaroko zitun aren mendean bere burua ikusita.

—Jan al zun gazte au ere Tartalok; aitona?

—Urrengo egun baterako gorde zun Tartalok gaztea ta anaya janaz ase zan ordun ta ardi larruaz estalita, etzan zan Tartalo su onduan ta laizter zan lo gozoaren menpean, baita berebiziko lo zurrunkaka ere asi. Ori ikusita, altxa zan gaztea artu zun anaya erretzeko Tartalok erabillitako burrunzti ta bere indar guziakin sartu zion begi bakar artatio.

—A ze lasatua eman didazun, aitona. Ilko zan, noski, Tartalo, begitik burrunzti sartu zionean gazteak?

—Ez ba, Malen; etzan il Tartalo; sortu zion bai begi bakarratik burrunzti, baita begia galdu ere; bañan gazte orren indarrak baño aundiguak bear ziran, Tartaloren bekokiko ezurra puskatu ta munitaraño sartzeko. Altxa zan su ta gar Tartalo begitik burrunzti kendu ondoren ta gaztearen billa ekin zion. Ardian artean izkutatu zan, ordea, gaztea.

—Etzuan ezer ikusten Tartalok, bañan entzuten zun gaztearen

beatzan jarritako erastunak ziona ta doñuari jarraituaz gaztearen billa zehillen. Jabetu zan ardi artean gorderik zegola, ta mutillari eltzeko. ardiak kanpora banan banan bialtzea erabaki zun, ta ortarako sarre-rako arria kendu ta sarrean bera jarrita anka artetik ardiak banan kanpora biatzenasi zan Tartalo.

—Tartaloren atzaparretan galduko zuan bizia gazte errukarri orrek.

—Ez ba Malen; antzeman zion gazteak Tartaloren jokuari ta lau oñean jarrita, bizkarrean artu zun ardirik onena ta beste ardien artean abitu zan irterera

—Alde egin al zion, aitona?

—Ardien orruak alde batetik ta arretaz erastuna zeukan eskua, ardiak ille aundiña zeukan tokian sartzen zualako, igaro zan gaztea Tartaloren anka artetik, erastunaren erantzuna entzun gabe arrek. Koba zulotik kanpora irten zanean, pixkatean ardia bizkarrean zula jarraitu zun zutik. Urrena korrika ekin zion ardia lurrean utzita. Ordun asi zan Tartalo erastunaren erantzuna entzuten ta dana bertan utzita gaztearen atzetik ekin zion zuzen zuzen doñua zuzendari zula ta berebiziko saltuak egiten zitun itxututa egon arren. Larritu zan gaztea ta berebiziko abiadan abitu zan aurrean ikusten putzu batera, ta putzuaren beste aldean erdi erdian gelditu zan.

—Arrapatu al zun ordun Tartalok, aitona?

—Ez Malen, ez. Saltoka zetorren zuzen zuzenean doñua zuzendari zuala ta putzuaren erdira erori ta an ito-zan. Lasatu zan ordun gaztea.

## JENTIL BARATZA

—Emen al zerate berriro, gazteak? Laister aspertu zerate plaza aldean.

—Zeozer galdetu nai omen dio Antonik, eta orregatik etorri gera, Aitona.

—Zer da, Antoni, jakin nai dezun gauz ori?

—Umetan entzun nion nere amona zanari jentil baratz ipuia; kañan erabat aztu zait, auxe gogoratzen det baratz ortatik sartzen zala, koba arrigarri batera. Beorrek jakingo du, noski ta azaldu bear digu.

—Bai, oso polita da ipui ori, Antoni; bildur naiz, ordea, ez dida-zutela bear dan bezela azaltzen, ain baita arrigarria!

—Zergatik ba ez diogu utziko?

—Aienel Laister asiko zerate zirika: "ori ezin leikela" esanaz ta zertan ari naizen ere, aztu aziko didazute, Josepa.

—Ez ba, aitona, ixillik entzuten sayatuko gera.

—Baliteke, Malen, zuek ixillik entzutea...

—Entzun ba maiteak... aspaldi artan, emen jentillak bizi ziran garayan, ba omen zan Una-ko osin inguruan, zelai txiki zoragarri bat arkaitz tartean izkutatua. Oso ederra omen zan ta bertatik sartzen omen zan koba ikusgarri batean. Zeñek arkitu, ordea, zelaitxo ori? Egunsentiko argitan billatu bear omen zan ta asko ta asko ibilli izan arren baztarrak miazten, ez omen zuten iñoiz zelaitxo ori arkitu ta orregatik esan bat besterik etzala izango uste omen zuten geyenak.

—Orrelaxe esaten zuan bai nere amonak; segi beza aurrera. Ez al zuan iñork arkitu?

—Bai, Antoni, alkar maite zuten bi gazteak, arkitu omen zuten goiz batean arretaz sayatu ondoren. Sarritan entzun ziyen bai etxe ta bai auzoko zarrak, alkartasun aundia bear zala zorion ori iristeko, ta maitasunak lortzen duan egizko alkartasunaz, jokatu zuten neska ta mutil oyeke.

Joan omen zan bikote ori "Una" ingurura illargiaren argitan ta an omen zeuden biak ernai, noiz argituko egunsentiko argiak inguru artako arkaitzak, zelaitxo ori arkitzeko. Ontan inguratu omen zitzayen agure bat eta esan omen zion: "Begiratu bai gazteak arretaz goiko arkaitz oyetara ta baliteke zuen begi argiak, zelaitxo ortako lore ederrak ikustea. Lorak ikusten dituzutenean, ez egon zalantzan, igo biak batera ta arkituko dituzuten loratatik artu iruna, txuri, gorri ta urdiña ta segi aurrera... zuena izango baita koba ta bertako ondasunak... Ez gero inoiz zelaitxo ortik artutako loreaz aztu ta gorde zeekin mai-teki, bestela zoritzarra jabetuko litzake zuetzaz".

—Ez diogu, aitona, sekulan orrelako gauz ederrik entzun!

—Ederragua da ba, Antoni, ondoren datorrena... Agure aren esanera jokatu omen zan bikote gaztea ta an jarraitu omen zuten gora begira aspertu gabe. Ontan asi omen zan goisentiko argia arkaitzak josten ta Goiz izen zuan mutillak ikusi omen zun, agureak zion, lora aytako bat arkaiz artean. —"Aizu Argi-esan omen zion neskatxari— ez aldezu an goyan bi arkaitz ayen artean lora txuri bat ikusten?"... "Bai-erantzun omen zion pozik neskatxak, mutillak zion lekura so egin ondoren— goazen bereala bertara".

Eskutik eldu omen zion Goiz mutillak Argi neskatxari ta arkaitz tartean igarotzen lagunduaz abitu ziran biak goraka.

—Benetan maite zuten alkar Goiz ta Argik.

—Alkartasun ori gabe, Maria, etzuten inoiz zelaitxo ura arkituko. Eidu omen ziran noizbait bi gazteak zelaitxora estu ta larri; oin ta belaunak urratuta, banan pozaren pozaz ezta jabetu ere bideko larri ta arantzaz.

—Ze arkitu zuten, aitona, jentil baratz orretan?

—Agureak esan zion iru lore mota oyetaz josita omen zegoen zelaitxua. Zoraturik omen zegoen bikotea ordurarte ikusi etzuten lora mota ayei begira ta agurearen esanaz oroiturik, artu omen zitzuzten iruna lore, mota bakoitzetik bana ta aurrera jorraitu omen zuten lore eder ayen erditik ta bukaeran arkaitz aundi bat arkitu omen zuten untzaz estalia, banan kobarik etzan ageri...

—Ze egin zuten orduan? Beste aldeak miatu?

—Ez ba, Josepa, agureak esan bezela, eskutan zeukaten loraz arkaitza estaltzen zun untza jo zuten.

—Untza jo? Zertarako ordea?

—Loraz jo zutenean, ordea, zabaldu egin omen zitzayen untza bi aldetara ta aurrean zabal zabalik kobaren sarrera ta bildurrik gabe sartu ziran barrura.

—Ze ikusi zuten barruan?

—Asmatuko ote det, Malen, ayek ikusi zutena azaltzen? Sarreran bertan bi eseileku esker eskubi omen zeuden zein baño zein ikusgarri-guak, urrez egiñak ta arri pitxi zoragarriaz apainduta. Aurreaxeago gela aundi bat, sukaldia, noski, erdian berik gabe ederki berotzen zun sua zeukala, ta ingurun apal eder ta garbitan janari goxuak agiri zirala.

Jarraitu omen zuten baztarrak miatzen ta eskerreko gelan era guzitako soñekoetatik ba omen zegoen aukera ederra; ez eurak soñean zemakitenen antzeko latzak, baizik eun goxo ta leunaz egiñak ta urre-ariaz ta arripitxiaz apainduak. Bereala kendu zituzten soñean zemazkiten jantzi latz ta itxusiak ta egokiña zetorkienak jantzi. Oñetako gayetan, berriz, ze etzegen an? Antxe oñetako ederrak, eurak inoiz ikusi ez bezelako narru leun ta zoragarriaz egiñak. Belarritako, erastun, eskumuturreko, lepo ta gerritako apaingarritik? Zoramena!

Nork ezagutu gazte ayek gela artatik irten ziranean? Zoratuta begiratzen zioten alkarri Goiz ta Argik. Urrango gelan, berriz, maya gertu ta antxe jaki ederretatik aukera. Sekulan egin etzuten bezelako gosaria egin omen zuten goiz artan!

—Zerk argitzen zuan koba ura? Kandelak edo zer zeukaten?

—Zapayan itsasita bezela zeuden arri berexi batzuek, argi ederra zabaltzen omen zuten, eguzki argia bezin ederra, Josepa.

Gosaldu ondoren beste baztarrak ikusten jarraitu zuten, izan ere ba zegoen an ze ikusi. Ura aberastasuna an zegoen! Gela bat urrez bete; beste baten era guzitako arri-pitxiak: zuri, gorri, urdin, nik ez dakit zenbat eratakuak. beste batean inoiz ikusi etzitzuzten tresna eder ta egokiak.

Aurreago berriz, praka gorrien lantokia arkitu omen zuten ta an ari omen ziran bakoitza bere lanean praka-gorriak. Arrituta egon zitzayen begira ayen eskutako lan ikusgarri ayei! Ura berriz lantoki artako garbitasun ta txukuntasuna! Argitan diz diz egiten omen zuten zebilkiten txarrantz, ardatz, eta gañetiko tresnak! Ezin aspertu aytexei begira Goiz ta Argi gazteak...

—Orrelako kobarik arkitu al liteke inun, aitona?

—Ixillik egongo omen ziñaten!, Josepa; arrituta nenguan nola

etziñaten zirika asten lenago. Ez aztu, ordea, ipuia azaltzen ari naziela, ta ipuia ipui dala...

—Zertan bukatu zuten Goiz eta Argik?

—Zorion bete betean bizi ziran, Malen, koba artan Goiz ta Argi; bertan eskondu bai ziran ta eureen esanera zeuden praka gorriak ta beti beti zorion izango zirala esan zitekean, bañan etzan ala izan.

—Ze gertatu zitzayan ba? Aspertu ote?

—Aztu egin zirala agure arren esanetzaz ta maiteki gorde bearrean kanpoko zelaitxotik artutako lorak, an baztar batean utzi ta ura ematea ere oroitu ez ta azkenerako erabat aztu ta lorak igartu. Gero gerokoak...

—Ze gertatu zitzayen ba?

—Ara ba, Maria, egun batean ordurarte ikusi etzuten gela bat arkitu zuten eta ikusi egin nai, bañan egiñalak egin arren, ezin atea iriki. Ekarri zuan gisasemeak nunbaitetik burni palanka bat ta berekin eldu zion ateari ta emakumeak laguntzen ziola indarka iriki zuten orratik ate ori. Atea iriki ta eureen ezbearrak astea bat izan omen zan.

—Zer zegon ba ate arren atzetik?

—Atea iriki ordukoxe, Antoni, irten omen zan zezen gorri bat aro ta sudurretatik sua zeriola eraso omen zien bi gazteai ta trapu zar batzuk bezela ibilli ondoren, azkenean kobatik kanpora jauiti omen zitun.

Entzutekoak omen ziran Goiz ta Argiren negar ta aienak, billutzik euren buruak ikustean kanpoan; gaitzerdi, estaltzeko inguruan arkitu omen zituzten, sartu ziramean, zemaizkiten ardi larruz eginda-ko, jantzi latz ayek.

—A ze bukaera errukarria gazte ayer.a!

—Bai ala da Maria? Ipui onek auxe erakusten digu; jentillak ere bazekitela, lendabiziko gizon ta emakumeak euren erruz, galdu zutela Jainkoak emandako zoriona.

## JENTILLEN BUKAERA

—Noiz arte iraun zuten Euskalerrian jentillak?

—Nik daukadan baño eskola geyago bear galdera orri erantzuteko. Ori bai ipui asko ikasi nitun, baño eskola gutxi; ordum ez baizan gaur aña eskola ikasten. Geroztik, berriz, beti baserrian lanean, ezer gutxi ikasi...

—Ala ere jakingo du beorrek zeozar ta beorren iitizia jakin nai genuke.

—Ipuyetan, Maria, gauetik goizera bukatu ziran jentillak; bañan etzait orrela gertatuko zanik iruditzen.

—Ez du ba uste orrela amaituko ziranik?

Orra ba, Antoni, artu eman aundiak zeuzkatela, ikusten da ipuyetan, jentillak ta kristauak alkarrekin. Ortik antzematen diot pixkanaka kristau bihurtzen joango zirala, ta ez bat batean amaitu, ipui batzuet dioten bezela.

—Ortaz beorrek ez du uste egia diyotenik ipuyak?

—Ez, Malen, ezin liteke egia izan gauetik goizera amaitu zirala diyoten ipuyak; bada beste ipui batzuk diyotena ez luke itxurarik izanen, ala gertatu izan balitz. Askotan egon izan naiz katrapillo ori askatu nayan, baita gauz oyetan asko zekitenai galdetu, batez ere ataundar apaiz jakintzu bati.

—Zer zion berak? Kontuak besterik etzala ipui oyek ziyotena?

—Ez ba, Josepa, etzion ori On Jose Migel Jaunak; baizik erriak bere erara azaltzen dula antziña artan gertatua, eta nola aoz aro eldu diran guregana berri oyek ipuyen erara, urteen enporioan oso aldatu iritxi zaizkigula orduko berriak ta ondo astertu bear ditugula ipuyak, eman nai diguten egia sumatzeko.

—Ikusten degu ipuirik gabe utziko gaitula —zioten danak damuz.

—Ez bildur ori izan; esango dizuet Jentillen bukaera azaltzen digun ipui bat. Bañan aurretik beste apaiz bati entzun niona esango dizuet.

—Erromatarren garayan —zion berak— zabaldu zala kristautasuna Euskalerrian. Ez omen zituzten burruka aundirik izan alkarrekin, baizik oso ondo alkar artu omen zuten, ta ala zion euskaldun asko joan omen zirala gudari erromatarrakin. Ala zion, bere ustez erromatarrakin gudari ibillitako euskaldun askok ekarriko zutela Euskalerrira kristau sinismena. Geyago zion oraindik Oyartzungo meatzetan urte asko egin zituztela lanean erromatarrak ta Pranzi barrengo kristau asko ta asko ekarriko zituztela derriorrean lanera zigor bezela, ta kristau oyen bidez zabalduko zala emen kristau sinismena.

Orra ba apaiz orrek zionez gudari ta martirien bidez zabaldu zan emen kristau sinismena.

—Orrax gauz bat inoiz entzun ez genuna! Nolabait beintzat eldu zan sinismena guregana.

—Ala da, Josepa, apostoloen bidez lendabizi ta gañetiko kristauen bidez urrena zabaldu azi zuan Jesukristo Gure Jaunak munduan, berak ekarritako Berri Ona ta guregana ziurki gudari ta martirien bidez eldu aziko zuan.

—Ikusten al da orrelakorik ipuyetan?

—Entzun zeok, Antoni, ipuiak zer dion. Bildu omen ziran, oi bezela, jentillak udarako il betean mendiko zelai batean. Egur pilla aundi bat prestatu omen zuten bertan illundu aurretik, ta su eman zioten illundu zunean, baita esku erakutziak suari eskeintzen asi bere aurrean makurturik...

—Jaungoikotzat al zeukaten euskaldun oyek sua?

—Bai ba, Malen, Jainkotzat zeukaten sua ta ala gurtzen zuten. Ordun ere ala ari omen ziran, bera gurtzeko, bere inguran dantzan ta suari eskatzen omen zioten zar ta gazteak sasoi ta indarra. Ortan ari zirala, azaldu omen zituzten izar bat, illargi amandreak berak baño argi geyago egiten zuan, izar eder bat, ta danak izar arri so ta so geldik, izarra berriz gero ta argigua.

—Ze izar zuten? Aztiak sortaldean ikusia?

—Ez omen zekiten zer izar zan, Josepa, ez eta ze aditera eman nai zuan. Ordun baten batek esan omen zun, inork jakitekotan, an inguruko koba zulo batean bizi zan, agure zar batek jakingo zula, ze aditera eman nai zuan, ta beregana jo omen zuten guziak, sua bere artan utzita. Atera omen zuten kobatik kanpora gerri ta besoetatik elduta, ibiltzeko gauza ez omen zan, laurreun urtetik gora omen zitulako.

Bañan naita ere ezin ikusi gizajuak, urteekin betazalak gogortu ta begiak iriki ezin zitulako. Arren ta arren eskatzen omen zioten begiak zabaltzeko ezin ordea, betazalak jaso ta ezin ikusi izar arrigarri ori. Ordun sumatu omen zun baten batek nola begiak zabaldu azi ta egurrezko pala txiki batzuz jaso omen zizkieten betazalak ta orrela ikusi omen zun zorioneko izar ori...

—Zer zizkion agureak izar ori ikustean?

—Auxe omen zion agureak larrituta: "Gureak egin dik; Kismi etorria duk; bota nazazute mallotik bera.

—Zein da "Krismi" ori?

—Dirudinez Kristori deitzen omen zioten orrela ta ori entzutean agureari, danak ikaraz bete ziran.

—Poztu bearrean ikaratu? Arritzekua zan oril

—Ala dio ipuyak, Antoni.

—Itxura gabea dirudi ipui orrek diona, aitona, ta beorrek zion bezela gertatuko zan bai, pixkanaka kristau biurtzen joango ziran.

—Nik ala uste det Josepa, ta ez ipuyak dion bezela. Bear bada aizkenean sendi banaka batzuk jarraituko zuten lengo erlijioari eutziaz, gañetiko euskaldunak, kristau egin ondoren. Zarrak il ondoren obiratuko zituzten jentil-etxe izenaz ezagutzen ditugun illobitan eta orrela bukatzen joango zirala jentillak.

Pensatzen nago ortik sortuko zala ipui au; bada elizan obiratzen zituzten kristauen gorpuak ta jentil jarraitzen zituztenenak, berriz, jentileen obitan.

Orra ba, gazteak ez da gezurra erabat ipuyak diona. Aldatuta iritxi zaigula aspaldi artako gertaera ta azaldu nai digu gertaera ori guk sumatzen alegindu bear degula.

## BURUMENDIKO MARI

—Jakingo du, noski, Burumendiko Mariren ipuya, aitona?

—Ori, Maria, nolabaiteko ipuya den ta ez din ez buru ta ez ankarik.

—Ez ote duzu zorrotzegi erabakitzen, Josepa? Ez diozu beraz eze-  
rren itxurarik arkitzen?

—Ezta nik ere, aitona, —esan zun beste aldetik Antonik.

—Etzerate gazteak nik uste bezin azkarrak...

—Toki onian uzten gaitu, aitona!

—Bai, Malen, ipui orren azala besterik ez duzute dastatu; etzerate  
barruraño sartu. Barruraño sartu izan baziñate, gauz arrigarriak ar-  
kituko zenituzten.

—Ez dakit ba... argia beariko du izan, ipui orren baitan gauz  
arrigarriak arkitzeko.

—Etzenuten lentxego, Josepa, jentillak nola bukatu ziran jakin  
nai?

—Bai, noski; ta beorrek esan digunez, pixkanaka kristau egiten  
joan omen ziran gure aurreko euskaldunak.

—Bai, alaxe esan dizuet eta ori bera azaltzen digu opui onek,  
Maria.

—Ori aditzera ematen duala ipui onek? Orratik gauz arrigarriak  
jakin bearren izango gera gaur!

—Ez arritu, Josepa; gutxi izango ziran gaztetan ni baño ipui zale  
aundiguak; gizon egiñik, berriz, sarritan ausnartu ditut ipui oiek ta  
ipui onen mami barruraño eldu naizela uste det.

—Azaldu beigu, aitona, arkitu dion barruko xuku ori ta ase beza  
gure gosea.

—Ara, Malen, esan dizuet len, pixkanaka zabaltzen joan zala  
kristautasuna gure artean. Gaur mixio errietan gertatzen dan bezela  
gertatuko zan emen ere. Ez dituzte beingoan sinisten mixiolarien es-  
nak lurralde oyetako bizilagunak, ez eta danak eureen esanetara jo-

katzen azten. Banaka batzuek artzen dituzte aintzat eureen esanak  
eta urteak bear izaten dira lurralde oyetako bizilagunak kristaututa  
ikusteko.

Orixe bera gertatuko zan Euskalerrian; geran bezin piakaitzak  
izanda euskaldunak, urtetan jarraituko zuten sendi askotakuak, au-  
rrekoen erligionari gogor eutziaz. Oyetxek dira "jentil" izenaz gure  
ipuietan azaltzen diranak ta oyetakoa, noski, Burumendiko Mari edo  
Dama izenaz gure ipuyak azaltzen digutena.

—Jentilla zala emakume ori, aitona? Nola zegon ba kristau ba-  
tekin eskondua?

—Orretxek arritzen al zaitu, Josepa? Ez dizuet ea len esan ar-  
tu-eman aundiak izaten zituztela alkarrekin kristau ta jentillak? Emak-  
kume eder ta egokitzat joko zun Usurbe aldeko baserritar orrek ta  
emaztetzat artzea erabakiko zuan...

—Jentilla izan arren?

—Jentilla izan arren: ta ez arritu Maria. Ori bera gertatzen zan  
Erroma ta beste leku askotan; makiña bat kristau eskontzen ziran  
kristau etziratenaikin. Irakurriko zenuten ori bein baño geyagotan kon-  
dairan. San Pablok ere aolku ederrak ematen dizkiye senar edo emaz-  
te jentilla zeukaten kristauai. Ez dezute iñoiz entzun San Agustinen  
ama kristaua zala ta aita jentilla?

—Bai ala da ori, aitona, ta nola eskontzen ziran kristau etzira-  
nakin?

—Ikusiko zuten biotz oneko gizon edo emakumeak zirala ta eu-  
reen ondoan kristau biurtuko ziralako itxaropena, artuko zituzten  
senar edo emaztetzat, Antoni.

—Etzuan, ordea, kristau biurtuta ikusi bere emaztea Usurbeko ba-  
serritar orrek, Aitona!

—Ez, etzuan poz ori izan baserritar orrek, Josepa. Ikusten danez  
setatzua zan artu zun emaztea. Zenbat jardun egingo zun gizajoak,  
emazteari bere sinismena itxatzi nayeon! Alperrik, ordea, senarraren  
jardun guziak ta bere jokabide osoa; berean jarraitzen zun emaztiak  
ta etzion aurrak batayutzen utzi...

—Eztuten pake aundirik izango etxean...

—Ori esan zazu, Maria ta ipuyak aditzera eman nai digunez, as-  
peltu egin zan senarra ta onian ezin ta derriorean batayatzea era-  
baki zun aurrak.

—Ez, ordea, emaztearen bayezkoakin...

—Etzitun berealakuan batayatuta aurrak ikusiko, Josepa, emaztearen bayezkoaren zai egon balitz... Orrela ba Pentekoste bezperako arratzaldean, lotu zitun gurdi berrian uztarriko beyak, ta igo azi zitun aurrak jantzi onenaz gurdira ta aizkenean artu emaztea ta derriorrean eramán gurdira ta kusterkillan lotu zuan ondo.

—Etzuan, ordea, elizaraño emaztea eramán...

—Eramán nai zun, Josepa, elizaraño emaztea, gau artako elizkizunak ikusi ondoren, kristau egiteko gogua biotzean sortuko zitzayolako ustean. Elizara urreratzean, sutan biurtu omen zitzayon emaztea, ta sokak erreta alde egin omen zion oyuka: "Kristorentzat nere aurrak"... "Ni Marurentzat"... Geroztik Burumendiko leizan bizi dala dio ipuyak ta udaran susko itai baten itxuran joaten dala beste mendiko leizetara.

—Azken gogorra emazte orrenal

—Bai, Maria, Kristoren esana bete zala beregan, aditzera eman nai digu ipui onek. Etzuan aintzakotzat artu senarraren bidez zetorkion argia ta betiko zigorra jaso bearrean arkitu zan eriotz orduan. Badakizute nola esan zigun Jesukristok zeruetara igo aurretik: "Zorionekuaak zuei sinisten dizutenak; zoritxearrekoak, simistu nai ez dizutenak". Aitari jorraituz zorion bidean jarri ziran aurrak; emaztea, berriz, bere setan jarraitu nai izan zualako, betiko galdu zan... Orra or, gazteak, ipuyaren sustraya.

—Egia ote da, aitona, orain tarteka tximista bezela joaten ikusten dutela?

—Ze izango da ori egia, Josepa? Ez al dakigu inpernuan dauden animak, ezin dirala andik irten, Jaungoikoaren baimen berezi bat gabe? Eta Jaungoikoak ez diye baimen ori burubide aundi bat gabe ematen.

—Bein edo bein mendi batetik bestera igarotzen dan tximista ori, mendi kontrako sakonetako bero zakarrak, erauntzi aurretik, sortu azten dun tximista besterik ez da.

—Ezin lezake ba iñork dama ori ikusi orain.

## II

## ABERENAK



## ABEREEN ZEIN GEYAGOKETA

—Ba al zekiten ba jentillak eureen erruz galdu zutela gizonak zoriona?

—Orixe zekitela ori, Antoni, jentillak, ez noski, guk bezin garbi, bai beintzat eureen erruz izan zala.

—Nundik atera du, aitona?

—Nundik? Ara ba Josepa: orixe erakusten digute gure gana eldu diran ipui askok; bai Jentil Baratzako ipuyak ta bai beste ipui askok.

—Ba al dira, aitona, gai ori erabiltzen duten beste ipuirik?

—Ez al zenion, Antoni, amonari iñoiz entzun abereak izketan ageri diran ipuirik?

—Pozik asko entzuten nituan abereen alkar izketak

—Itzegin al dute ba, aitona, iñoiz abereak?

—Ez noski, Josepa; bañan ipui oyen bidez, azaldu nai ziguten zeñen zoriontu bizi ziran len gizonak, abereak men egiten ziela.

—Esan bear digu ipui oietako bat.

—Abereen arteko zeingeyagoketa bat azaltzen duna esango dizuet, Josepa.

Alkartu omen ziran bein mendian artza, otzua, ta axaria, ta beriala ekin omen zuten bakoitzak bere burua goratzen: bakoitzak bere indar eta bikaintasunak goratu ta bestenak gutxietzi. Ortan iñor baño arrogua azaltzen omen zan artza...

—A gixajoak! Ze ari zerate esaten aul oyek? Zer zerate ba zuek nere ondoan? —esaten omen zien besteai.

—Zertan zera ba zu gu baño geyago? —erantzun omen zion otzuak Indarrarian? Ori ikusi egin bear, adiskide.

—Nai dezunean, otzoko, neurtuko gera indarrean.

Ekin omen zuten burrukan otso ta artzak. Eldu omen zion artzari otsoak zeuzkan indar guziaz; bañan laister bota omen zuan otsoa ankaz gora artzak.

Ikaratu omen zan axaria artzaren indarrak ikustean ta ala aitortu

omen zien beste biak, bera baño geyago zirala indarrean bai artza ta bai otsoa; bañan etziela men eginen antxintxika sayo bat egin gabe.

—Zuek biok baño geyago nauk —erantzun omen zien arro artzak— bai korrika ta bai beste edozein gauzetan.

—Korrika egin bear diagu orain sayoa —esan zien axariak—  
Ara: ausko aitz arren atzetik biratu ta anutza etorri; abituko gaituk irurok batera ta or ikusiko diagu zein dan nagusi.

—Laister geldituko aiz atzean, artza arroa.

—Ler egingo dek, otsoko, ni atzean utzi baño len.

—Gertu al zaudete abitzeko— —zion axariak— Bai—... Guazent!  
Irurak batera abitu ziran antxintxika... Ura zemakiten zalapartat!

Ura anka joku bizkorra... aurrenetik irurak berdin samar zijozten, baña zuaitzera inguratu ala atzera gelditzen ari zan artza ta aurretik otso ta axaria. Egiten zitun bai alegiñak artzak, bañan ezin arrapatu beste biak, ariñaguak bai ziran bera baño. Otsoa zan lendabizi, bigarren oso tarte txikiagatik axaria, ta askoz gerogo irugarren artza. Irurak etzan omen ziran luze luze arnasa lasatu arte. Altxa omen zan axaria ta asi omen zan arrastro bat egiten lurrean danen aurrean.

—Orain saltoka sayoa egin bear diagu: ara or gertu salto egiteko arra.

—Ondo zegok axari, laizter ikusiko diagu zein dan emen nagusi-  
zioten beste biak alkarri zearka begiratur.

—Zeñek egingo dik lendabizi salto? —galdegin zien bestiak axariak.

—Neronek egingo diat, axari —erantzun artzak— ta ez dezute nere arrarik ausiko.

—Ez ez —erantzun zion irriz otsoak— ori gero ikusiko diagu.

Amorru bizian joan omen zan artza otzoaren irri orrekin abisera artzera; beste biak begira artzari; etorri omen zan abisera ederrean artza ta bere indar guziaz atzeko ankak aurrekoen kontra bildu ta zubi ederra egiñaz bizkarraz, altza zitun aurrekoak lendabizi ta atzekoak urrena ta or zijoan aidean luze luze, salto eder bat egiñaz.

Beriala arra bat egin zun axariak lurrean artzaren atzeko urrazaren ondotik; arro begiratzan zien beste lagunak artzak, bere saltorik urratuko etzuten ustean.

Ixil ixillik joan omen otsoa abisera artzea ta artzaren arra austeko alegin guziaz salto egin omen zun otsoak ta baita iritxi artzarena

pasatzea. Buru makur gelditu omen zan artza ori ikusita; otsoa berriz arro.

Joan omen zan azkenik axaria bere sayo egitera; bañan aurretik ori bai ondo begiratu zien lagunak arrai, baita nun jarri zituzten ankak. Abiseran itxumustuan etorri gabe, pausoak neurtuz, arraren ondo ondotik egin zun salto bizkorra ta otzoaren salto baño aundigua egin.

Ura omen zan beste bien bekozkoa ta axariaren poza! Or omen zebillen besteen aurrean arat onat bere burua erakutzi eziñik ta beste irri egiten ta alako batean irri geyago egin nayeian edo... putz bat bota omen zien.

—Urde aundi ori...! Belarritik sartu aziko diat putz ori —sumin-  
dura otzoak.

—Ez nauk (ja jail) arrapatuko, adiskide.

Arin asko aldegin omen zuan axariak ta eldu baño len, sartu omen gaiztain zar baten barruan. Zuloan sartzen ari zala, eldu omen zion isatsatik otsoak ta tiraka kampa atera azi nai omen zuan axaria.

—Ez nian uzte, ain eroa intzanik! —irriz axariak— Ez al duk ikusten gaiztain zañari tiraka ari aizela? Tirayok bai otsoko, ire indar guziaz, bañan ez diok berealakuan kenduko zain ori gaztañari...

Axariaren irriak entzunda, utzi zion pakean isatsari ta erabat gorde zun bere burua axariak, babesetik par ederrak egiten zitula besteen bizkarretik.

—Zeñen argia azaltzen dan, aitona, ipui orretan axaria.

—Bai alaxe da, Antoni.

Asko balio dute indarrak  
Geyago, ordea buru azkarrak.

## OTSOA TA ARI KOSKORRAK

—Oso polita zan, aitona, abereen zeingeyagoketa, ta beste ipui bat azal du bear digu.

—Ez al dezute plazara joateko asmorik?

—Ezba aitona, ta etxera joateko goizetxo dugu oraindik eta beorri entzuten igaro nai dugu arratzaldea.

—Gusto ori emango dizuet ba, gazteak, eta atsegin izango zaiuzela uste det ipui au ere.

Aralar mendian larrean omen zebiltzaten artaldeak udarako arratzalde eder batean, eta artaldeekin batera ibilli oi dira ariak ere. Oso gazteak ziran itxura danez artalde bateko ariak eta aspertu egin ziran nunbait beti toki batean larrean ibiltzen ta leku ta larre berriak ezagutzeko irrikatzen zeuden.

Orrela ba utzi omen zuten bi ari ayek eureen artaldea ta pozik jo omen zuten leku berrien billa. Ifi ta afa saltoan igarotzen an emen traban arkitzen zituzten arkaitzak, eta aurrera ta aurrera omen zi joazten bi arikoteak, iñun gelditzeko asmorik gabe, naiz leku ta artalde guriak arkitu. Aintzat artzen zuten nunbait arratzalde artan belararren esana "aurrea ta goxo" ta "gelditu emen gurekin" deitzen zien ardiak irri egiñaz, eurak aurrera ta aurrera, beti.

—Nora zoazte ero oyek —deitzen zier ardiak— gelditu gurekin, oso larre goxo ta ugaria arkitu duzute emen.

—Segi zeok or, pozik ba zaudete; guk ez; guk mendi guzia igaro bear dugu.

Alperrik izan ziran ardien deyak; aurrera ta aurrera jarraitzen zuten bi arikoteak. Oyen poza leku ta artalde ezagunak utzi ta leku ta artalde berriak arkitzen asi ziranean! Nork eutzi oyen berrizaleta-sunari? Zoraturik zi joazten bi arikoteak larre berriak dastatuz, eta ezta bururatu ere iñun okerrik gertatu zitzaieketenik; izan ere gazte guzien gaitza baita etorkizuna ez ikustea...

—Jakiña zegon, gazteen aurka, beorri!

—Ikusten al duzute ba gazteak iñun okerrik? Dana eder ta zoragarri ikusi oi dute zuen begiak eta ez duzute iñun etsayarekin arkitu zintezkenik oroitzen. Malen.

—Beok, berriz, nun nai ta noiz nai berarekin arkituko gerala uste dute.

—Orixe gertatu zitzaizen bi arikote ero ayei. Zorion oso osoa arkitu uste oyan ostean ta otsoa topatu aurrean bat batean! Orra gazteen ibillerak!

—Basoan sartu al ziran arikote oyek?

—Ikusi omen zuten beraxego oyan eder bat eta itzal ederra egongo zala bertan ta atsedean egitera bertara jo zuten. Urrena geldik geldik beste aldera irten ziran eta zelaitxo eder bat arkitu zuten aurrean, errekatxo baten ondoan. Eureen poza ur garbi zoragarria aukeran zeukatela ikustean!

—Nun arkitu zuten ba otsoa?

—Ur trago eder bat egin ta belar puska jan ondoren, etzan omen ziran, Josepa, zuaitz baten itzalean eta orduntxe azaldu omen zitzaizen aurrean otsoa ortzak erakutsiak.

—Bildurtuko ziran aurrera otsoa ikustean!

—Garai ederrean! Malen, lenago kontuak atera bear zituzten...

—Ola gazteak! Zeñen ederki etorri zeraten —zien irriparez oisoak— nere aspaldiko gose au asetzekol

—Jan egingo al gaituzu?

—Guri guriak zaudete biok ala biok ta gaurko batekin naikoa izango dut.

—Otoi: ez nazazu ni beintzat jan —zion estu ta larri arikote batek.

—Ez ni beintzat... beste arikoteak larrigo.

—Ederki zioak! Biok diozute ez ni jan eta ni gosez il... aurrean orrelako jaki ederrak dauzkatela? Ez ez... zuek erabaki zein jan bear detan gaur.

Negarrez ekin omen zuten arikoteak otsoaren asmoa jakitean; baña ez alperrik! etzuten eureen negar ta sotiñaz otsoaren biotza bigunduko, ezta aren urdallaren gosea aseko. An zegokien otsoa irriparez begira, ta gero ta aundigua zala sumatzen zuan bere errayetako jateko larria ta aotik baba zeriola zegon jaki ayen aurrean.

—Erabaki al dezute nor jan bear detan?

—Ez ba oraindik ez degu erabaki; zozz aurreko zuaitz orretara ta alkarrekin itz egiñaz erabakiko degu.

—Ondo dago ta laister erabaki; ez pensa iges egingo didazute-nik; ernai egongo naiz ta iges abituko ba ziñate, ordun bioi bizia kenduko nizueke...

Poliki poliki joan zan otzua esandako zuaitzera, bañan atzera begiratzuz zaintzen zitun arikote guriak; etzioten ez mendetik alde egingo, arraok ezik. Bitartean larri zeuden arikoteak eureen aizkena eldu zala gogoratuaz ta ze egin etzekitela begiratzuz zioten alkarri. Bururatu zitzayon, ordea, bati ze egin ta alkar arturik abitu omen ziran otsoarengana.

—Zer? Erabaki al dezute zein jan nezaken?

—Bai; ara zer erabaki degun: jarriko gera bat zure eskubitik ta bestea ezkerretik, eta amarna pauso emango ditugu atzera. Ordun zuk deituko gaituzu ta zuregana azkena iristen dana laztana ematera uraxe jango duzu. Ze ixten diozu?

—Ederki erabakia-zion irriparrez, guriña uste baizun iritxiko zitzayola aizkena laztantzera ta ortzak miatzkatzen asi zan guriñari begiratzuz.

—Etzan oso lasai egongo guriña, azken ordua gañean zuala ikusiaz.

—Ala uste al dezu, Antoni? Etzan ba orrelakorik gertatu...

—Zer gertatu zan ba? Artzaya azaldu?

—Eman zituztenean amarna pauso atzera arikoteak, deitu ziyen otsoak ta abisera bizian abitu ziran beregana arikoteak, ta biak batera eman zioten laztana otsoari; bañan arikoteen laztana tunkakada gogorra izan zan ta bien artean lertuta azkenetan utzi zutela otsoa.

—Kendu zioten orratik gosea betiko otsoari. Ezaguera al zeukaten len abereak?

—Orrela azaldu nai digute, Josepa, zeñen zorion ta pakean bizi ziran len gizonak eta abereak.

## UNTZAK OTSOA TA AXARIA

—Arritu egin zerate lengo ipuya entzutean; zer esango duzute, gazteak, beste onekin?

—Izan ere ezaguera ba lute bezela jokatzuz zuten ipui orretan abereak; nola ez arritu?

—Ara, Josepa, ipuiak erakutzi nai digutenari begiratu bear diogu, au da: Zeñen zoriontzuz bizi ziran len gizon ta abereak, zoritxarra munduan zabaldu baño len.

—Ori ondo dago, aitona, baña ez al derizkio beorrek gelegizkoa, ipuietan ezagueraz abereak jaztea?

Sinisten ote zuten lengo euskaldunak ipui oyetan?

—Baliteke, Maria, Kristoren argiak Euskalerria argitu baño len, egitzat artzea euskaldunak ipui oyek; bañan gaur danok, egi batzuek azaltzen dizkiguten, azalpen batuk bezela artzen ditugu ta ortarako berdin da gizon edo abereaz baliatzea. Ori bai beti euki bear dugu begien aurrean: ipui batzuk dirala: erakutzi aldiak ta orregatik beren esanaiari begiratu bear diegu.

—Politak dira, aitona, ta segi beza ipuiak azaltzen.

—Negu sarreran jartzen gaitu ipui onek, Malen, eta mendian omen zeuden oraindik auntzak bera jetxi gabe. Egun batean, ordea, eguardi aldera dei egin omen zien auntz zarrak billerara beste guztiai ta bildu omen ziran danak bere inguruan. Ala omen zion zarrenak:

—Jabetu al zerate, ze aldaketa egin duan gaur goizean eguraldiak? Obe izango degu danok, elurrak eraso baño len bera jotzea...

—Bera dauneko? Oraindik eguraldi onak egingo ditu bai, ta larre ederra daukagu emen —zioten besteak.

—Bildur naiz —zion lengo auntz zarrak— biar goizerako elurpean ez ote geran izango, ta gero nola jetxi elurpetan bera?

—Gu baño geyago ikusia zera ta ala ba dizkiozu, joan gaitezen guziok beera.

Ala egin omen zuten guziak zar ta gazteak; zarrena bide erakusle

an joan omen ziran, gizonak bizi ziran lurraldetara alkartasun ederean. Ba omen zijoan auntz tardea mailoan bera ta erre kara iritxi ziranean, errenkadan jarrita aurretik auntz zarra zijoala, igaro omen zuten arkaitz arteko biutxurra. Pasaizu estua igarota, zabaltzen omen zan berriro bidea ta pillatzen asi omen ziran berriro auntzak. Orduntxe azaldu omen zitzazen aurrean otsoa

—Auxe poza nereca, ainbat auntz aurrean ikustean! A ze odol aseca egin bear dutan orain!

—Garai ederrean bururatu zaizu otsoa, auntz jan bat egitea! Ezur ta azal besterik izan oi al degu garai onetan auntzak? Udaberrian izan balitz, tira ez nuke ezer esango; baño noiz? ta orain?

—Bai, ori ala da; ezur ta azal besterik ez daukazute zuek orain.

—Izan ere aurretik zetozten zarrak bakarrik ikusten bai zitun —Udaberrian bai zeñen ederrak egongo zerater ta zeekin ekarriko dituzute antxume guriak.

—Ondo ari zera, otso Jauna, beko zelayetan ederki gurituko gera ta antxume ederrakin itzuliko gera.

—Trato bat egingo nuke zuekin, beteko dezutela agintzen ba didazute, ta danoi bizirik joaten utziko dizuet orain...

—Zer trato dezu ori?

—Berrogei bat antxume ekarriko dituzute zuekin udaberrian ezta?

—Bai, berrogei bat inguru.

—Berrogei oyetatik amar neretzat izatekotan, orain danoi bizirik joaten utziko dizuet. Zer diozute?

—Ondo esana dagola —...ta udaberrian ekarriko ditugun antxumetatik amar guriñak zuretzak izango dira.

Pozik alde egin omen zuten ordun beintzat bizirik otsoaren atzaparretatik ta gero gerokoak... Ederki igaro omen zuten negua beko zelain ta aterpe ona idoro koba zulo batean larre inguruan. Urak ziran udaberri artan azten ari ziran antxume ederrak! Aotik lerdea zeriela egoten ziran eureen antzumei begira! Igaro zituzten Otsailla ta Ilbeltza ta Martzo txoroan ederki baño ederkigo guritu ziran zar ta gazteak eta Jorraillan mendira begira jarrita zeuden danak. Izan ere aurreko urtetan Jorraillan erdirako mendian izaten ziran ta aurtan Mayatzak beko zelayetan arrapatuko zitun. Asita zeuden bai gazteak mar marka mendira joan bear zutela ta...

—Noiz joan bear degu mendira? Emen bero baitago ta kiskaldu egingo gera...

—Ez al zerate oroitzen zein eukiko degun zai Osin zulo inguruan?

—Ezin igo al gintezke mendira beste nunbaitetik?

—Ezin igaro gintezke basoetatik barna; erreka zuloatik joan beariko degu.

—Erabaki bat artu eziñean zebiltzatela auntzak, azaldu zan an axari zar bat ta txit arritu omen zan beko aldetik auntzak garai artan ikusita ta laguntzeko prestatu omen zitzayen zergatik zan jakin zunen. Zeozerren billa zijoala esanda, joan omen zan gizonen etxe ingurura, ta bera etori arte itxoegiteko. Laister etorri omen zan berriro ortzetan gizonen abarkak zekazkilla ta or ibilli omen zan arat onat bear ainbat abarka bildu arte.

—Etzien oñetakoak jarriko auntzai, aitona? Asmatuko al zuten abarkaz ibiltzen?

—Etzien ez, Malen, abarkak jarri anketan, adarretan baizik, zintzilika zemazkitela larruzko lokarriak. Auntz zarrari etzion ezertxo jarri adarretan.

—Zertarako, ordea, adarretan?

—Laister ikusiko dezute axariaren asmoa, Josepa. Alde egin zun axariak mendira ta atzetik patxaran jarraitzeko esan omen zien auntzai, ta zarrena aurretik zala ta danak erori gabe eramateko adarretan jarri zizkien apaingarriak.

Iritxi omen zan axaria osin zulo ingurura ta ez omen zegon otsoa bide baztarrean, arkaitz baten gañera igota baizik, andik auntzak noiz azaltzen zien obetogo ikusteko. Igo omen zan axaria ere otsoaren ondora ta eguzkitan etzan omen zan bera ere.

—Ene azaril Ez dakik zenbatañekua dan nere pozal Au dek nik egin bear detan jateal Baña zer da nik ikusten detana? Zer zekarkitek auntz oyek adarretan?

—Zer zekarkitek ba auntz ayeke? Ikusi bear diat... Altxa zan axaria ta jarri omen zan beko erre kara begira... Adarretan dakarkiten?... Ai bail Oraintxe oroitzen nauk, betik gora nentorrela, ikusi zetiart adarretan zekazkitela otso baten buru ta zatiak ta auxe erantzun ziatek: Eurakin datorren basajaun batek ildako otsonak dituztela ta mendi onetan dabilzaten otsoak iltzeko asmotan datorrela. Ikusten dezu otso,

adarretan ezer ez dakarren auntz ori? Ba bere adarretan jarri bear omen du gaur zure burua.

Ori entzun zuanean otsoak, zerao ikaratu omen zan ta auntz zal egon gabe, beriala asi omen zan presaka arkaitzetik jezten, basajau-naren atzaparretan ez erortzeko. Bañan bere presa ta zalapartakin irristatu omen zan otsoa ta arkaitzetik bera amildu ta erreka zuloaño pirikan joan omen zan ta antxe il.

Poliki poliki jetxi omen zan arkaitzetik axaria ta an omen zegon parrez axari zarra, auntz taldea iritxi zanen bertara.

—Ara or beko erreka zuloan, zuen antxumeak jatekoa zan otsoa ilda. Alkartasun ederrean igo omen ziran mendira auntzak ta axari zarra ta ez omen zuan andik aurrera goserik ikusi axariak, naiko esne ematen omen zioten auntzak.

—Ze etzi diozute, gazteak, ipui oni?

—Oso ederra, aitona, ta beorrek zion bezela garai bateko alkar-tasun ta ortik sortzen zan zoriona aditzera eman nai duala.

—Alaxen da bai, Josepa.

## AXARIAREN ZORIONA

—Nai zenuteke, gazteak, axariaren beste ipui bat entzun?

—Ipui oyetan azaltzen dan bezin argia al da axaria, aitona?

—Aspaldi jabetu ziran gure aurrekoak azkarra zala axaria; ba-ñan gaurko onetan ez da ain azkarra azaltzen, Antoni.

—Gezurra dirudi motela azaltzea axaria!

—Zeorrek antzemango diozu, Malen, zeñen bizkor jotzen dan; beste abereak adarra jotzen diotenean...

—Entzutekoa izango da ori, aitona. Esan beza par pixka bat egin dezagun.

—Oso alai esnatu omen zan goiz artan axaria, Josepa; bat ba-tean nagiak kendu aurreko ta atzeko anak luzatuz erabat ta urrena zulotik ateratzekoan putz bat bota omen zun. Orretzek uste azi omen zion, zorion beteko eguna izango zuala egun ura, ta bildur ta kezka gabe eman omen zion asiera egun ari.

Abitu omen zan ausati janari billa baztarrak miatuz ta txabola batera inguratu zanean, nun ikusten dun maskuri bat esegita kanpo aldetik: beriala poliki poliki bertaratu zan, baita usnatu maskuria ta antzeman txerri gantzaz beteta zegola.

Artu ta jan! Ura gosari ederra aurrean! Asi omen zan ordea kon-tuak ateratzen eta ala omen zion bere baitan; "Jan bai, ori aixa egin-go dek", bañan gero? urrena egarria ezin ase dekela ibilli bearo dek egun osoan. Obe izango dek pakean utzi maskuri ori ta barruko gan-tza ta aurrera jotzea, gauz obeagorik arkitu eziñik ez daukak".

Ala egin omen zun eta gantza utzita jo baraurik aurrera.

—Etzala bizkorra ageri zion len, aitona, etzait iruditzen motel jo-katzen duanik.

—Ikusiko degu, Malen, aurreaxego ala derizkiozun edo ez. Gantzak utzita aurrera jarraituz zijoala, beko zelayan txerriama bat ikusi zun txerrikumeekin ezurretan.

—Auxe benetan egun zoragarria! Ara or gosari ederra! Joan ari

poliki poliki, ta kendu yok bat txerriamari ta, gosari ederra egiñaz, bapo jarriko egun guzirako.

Erabaki bezela egin ere, ta silleko ederrenari elduaz, orrela agurtu omen zun txerriama:

—Ola egun on adiskidea. Ze sail ederra daukazun inguruan!

—Ez nereak diralako; bañan oso ederrak daude txerrikume oek.

—Ederki asko ari zera txerrikume oyek azten. Nola ez, ain ugari ezkur ederra dagon leku onetara ekarriaz umeak? Berriz ere guriak azalduko dira zure saillekuak.

—Zoragarriak daude bai umeak!

—Onetxeekin egin bear det gaur nik nere gosari ta otordua.

—Ez al dizu dagoan bezela jateak nazka emango? Garbitu egin bear zenuke lendabizi or ibryan.

—Aizu ondo diozu; lendabizi garbitu egingo det.

Ibaya joanik an asi omen zan ur ertzean txerrikumea garbitzen, eta ortan arreta osoaz ari zanen axaria, inguratu zitayon atzetik txerriama sartu zion ankarrean muturra, ta an bota omen zun axaria jabetu baño len ibai erdiraño. Korrika alde egin omen zun txerriamak bere umekin.

—Gosariaren orde busti aldial Ori zan axariari ziri ederra sartzea.

—Bai, Josepa, ederra izan zan txerriamaren ziria; Malen, zer dizkiozu? azkarki jokatu al zan axaria.

—Maite zitula txerriamak bere umeak ta al zuana egin zula umeak gordetzeko...

—Axariaren amorrazioal Irten zan udetatik al zuan laisterren, bañan ordurako anka egiñik ama-umeak andik, ta astintzen zan bitarten, ala omen zion bere baitan:

—Ero zarra; zertan asi aiz garbiketari? jan besterik ez uan zegoan bezela. A zeñen eder ta guria uan eskutan euki deken txerrikumal Ai arren iztar ederrak! Egon ari mokolo ori orain baraurik...

—Ez al zien atzetik jarraitu?

—Ez alperrik, Antoni; bazekian axariak gertuan izango zula txabola edo koban bat, ta barrura sarturik, sarreran itxoegingo ziola ortzak erakutziz... ta etziyen jarraitu...

Aurrera jarraitu omen zun baraurik axariak txerriai pakean utzita, ziur omen zijoan beste nunbaiten billatuko zuala gosari on bat. Aurrera ta aurrera, nun ze arkitu zezakean ernai begira... lotan zegoan

erbi edo beste zeozer... aurrera beti aizeak zekazkin usayak usnatuz. Bitartean eguna aurrera ta eguadiko beroa nabaitzen asi zan, bere barrua, ordea, zurrunka... barau arrek burura ekarri azten eskutatik aldegin zion txerrikumearen iztar ederrak...

Eguardi bete beteari aizia usnatuz zijoala, bere senak zemakian axaria, beorra bere moxalakin larrean ari zan belardira. Urrutira ikusi omen zitun eta ayek konturatu gabe inguratzeko bere malizi guzia erabilli omen zun axariak, baita lortu ere nai zuna, ta bertaratu orduko, eldu moxalari lepotik.

—Eup adiskide, otordua egitera noa zure moxalakin; zu zeorri joan zintezke lasai —esan omen zion beorrari.

—Zer, ni joan nintekela lasai? ederki ederki adiskidea... Gaitzedi, joateko gauza banitz... errenka ezin baitet pausorik eman.

—Zer dezu ba erren egiteko?

—Ba al dakit neuk zer detan? Sartu zait nunbait atzeko ankako azkazalan zeozer ta ezin dut urratzarik eman. Nola joan ninteko? Jango duzu gero nere moxala, ta eskertuko nizuke aterako ba lidazuke orain azkal orretan daukatena.

—Atoz ba onera ta aterako dizut nere ortzaz sartu zaizun espal edo dalakoa.

Joan omen zitayon beorra ondoraño, ta atzeko anka pixka bat jasoaz erakusten omen zion axariari. Asi omen zan axaria azkazalean begira nun zeukan espala ta alako batean eman omen zion beorrek muturrean axariari eundoko ostikoa ta korde gabe bota, moxala jateko asmotan zan, azaria.

Axariari kordea etorri baño len, izkutatu omen zan inguru aieta-tik beorra bere moxalakin.

—Ja Jail Etan oso azkarra azaldu axari oril Eman zion beorrek ederra baita ziri ederra sartu ere.

—Orixe bera zion axariak, Josepa, konortea etorri zitayonean:

—Nork jarri au beorran sendagille, gexal ori? Urrungorako ikasi zak; jan zak lendabizi moxala ta gero... gerokoak...

—Etzuan orratik goizean uste zuan bezin egun zoragarria izan axariak egun ori. Urdalla utzik ta muturreko ona. Ori bere zorional!

—Azkar ta bizkortzat jotzen zun bere burua axariak, Antoni; bañan eureen buruak gordetzen badakitela, erakutzi zioten besteak.

Ortzak ausita ikasi zuala ori axariak.

## LEGOYA TA OLAGIZONAK

—Ez al dira gizonak azaltzen abereen ipuyetan?

Azaltzen dira bai, Malen, gizonak ipui oyetan. Orrelakoren bat entzun nai zenuteke?

—Pozik entzungo diogu; jakin nai baidegu nola jokutzen duten gizonak.

—Entzun ba au, Josepa:

Oian aundi baten bizi omen zan legoi-ama bat; bera omen zan inguramai oyetako erregiña ta beste abere guziak itzal aundia omen zioten, ta bere orrua entzun ordukoxe joaten omen ziran besteak igesi al zuanak al zuan tokin izkutatzera. Ume eder bat ba omen zun legoi ama orrek ta bein da berriz esaten omen zion ume orri koskortu ala:

—Begira seme: etzatzu iñoiz beste abereen bildur izan; bañan gizonak ikusi orduko iges... egin...

—Bañan ama —erantzun omen zion semeak lejoi eder biurtu zanean— zergatik esaten didazu gizonen bildur izateko? Nik aña indar dun gizonik ba ote da?

—Ene seme! Ez dira gizonak korputzez zu baño geyago; bañan oyen indarrak gureak ez bezelakoak dira, ta guk iñoiz sumatuko ez genuken jokabidea, biurri oiek beriala sortzen dute. Jakin bear duzu au, seme, oyen eskutar. galdu zula bizia zure aitak; ortik kontuak atera zer nolako almenak dituzten gizonak...

—Askotan entzun zizkion bai gauz oyeke bere amari, bañan erabat sendotu zanen korputz ta indarrez, ta batez ere basoko pizti guziak menderatu zitunean, sortu zitayon biotzean, gizonak ezagutu ta eurakin bere indarrak neurtzeko gurari bizia. Ezin zun ba geyago oyan artan jarraitu.

—Alde guzitan oyanean bezela errege azaldu nai, aitona.

—Griña ori jabetu zan bai, Antoni, legoi gazte orren biotzaz, ta amaren izkutuan alde egin ta ausarditzu ekin zion gizonen billa.

Jetxi omen zan zelayera ta urrutira ikusi omen zuan curreneko aldiz giz-erri bat, baita eureen oiua ta zalapartak entzun. Etzan orregatik bildurtu ta ausati jarraitu zun gizonen billa. Eldu omen zan errira ta curreneko etxean sartu omen zan eta oñetako egillearekin aurkitu omen zan.

—Aizu, gizona al zera zu?-galdegin omen zion legoyak.

—Zein ni? Ez, ez; ni ez naiz gizona ni oskigille naiz. Oñetakoak nai al zenuke?

—Ez naiz oñetakoen billa etorri; nik gizonak ezagutu ta oyekin nere indarrak neurtzera etorri naiz. Nun arkituko nituzke gizonak?

—Zoaz currenara, erri bukaeraño, ta arkituko dituzu gizonak.

—Agur ba oñetagillea, banoa gizon billa, ez naiz basora itzuliko, gozonakin indarrak neurtu gabe.

—Estuasun ederra izango zuan oñetakogilleak, atetik currenara legoya sartzen ikusita.

—Esan bearrik ez dago ori, Josepa, uste gabeko bisitalari ori azaltzean.

—Arkitu al zitun legoyak nai bezela gizonik?

—Jarraitu omen zun currenara gizon billa legoyak; kale guzian etzuan iñor ikusi, danak gorde bai ziran eureen etxetan ta ate ta leyoak itxi. Irten omen zan beste aldera, ta an aurrez aurre gizon txiki batekin oztopo egin omen zun, ta berari galdegin:

—Gizona al zaitut, adiskide?

—Zein ni? Ez, Ez; ni mandatari nauzu.

—Nun arkitu nezazke gizonak? Ortaxe etorria nauzu basotik eta ez naiz itzuliko basora, gizonak ezagutu ta eurakin nere indarrak neurtu gabe...

—Gizonak ezagutu nai al dituzu?; Zoaz an beko etxe aundi artara, ta antxe arkituko dituzu gizonak. —Ibai ondoko ola erakusten zion mandatariak legoiari.

—Agur ba mandatari, banoya esandako etxera.

Abitu omen zan legoia ola aldera, ta lasatu omen zan berarekin kaka larri mintzatu zan mandataria, erritik alde egiten ikusita. Begira omen zeuden eureen etxetatik erriko bizilagun guziak: andra ta ume, baita errian zeuden bizardunak. Ola aldera joaten ikusita irten ziran kalera, bañan urtetan goguan izango zuten egun artako estuasuna.

Lasa asko ari omen ziran olagizonak beren lanean dinbi danba



malluak astintzen, gutxiña uste zuten bisitalaria urbiltzen ari zitzayen bitartean. Entzun omen zuten orru aundi bat, euren dinbi danba guzien gañetik ta arriturik begiratu zuten leyo aldera, ta nor ikusiko? legoi bat aurreko bi anak leyo-egalean jarrita zeuzkala eurari begira.

—Eup adiskideak: gizonak al zerate?

—Bai, gizonak gaituzu, zer nai zenuke?

—Ba neukan oraintxe gizonak ezagutzeko gogo. Zer nolakoak zeraten ta nolako indarrak dituzuten.

—Ikusten gaituzu lanean, ta lantxo au bukatutakoan, laister joango gera zuregana gure indarrak erakustera.

—Ederki: orixe ikustera etorria nauzute basotik.

Bitartean matxardak jarri zituzten olagizonak sutan guritzen eta guritu ziranean, artu eskutan ta or joan zitzaizkioten leyon zai zegoen legoyari.

—Gizonak ezagutzera etorri zera beraz ta gure indarrak nolakoak diran neurtzera. Laister jabetuko zera gu nolakuak geran.

Ori esanaz eldu omen zion matxardaz sudurretik ta berotu ederra eman omen zion. Ez omen zion bigarrenari ankatik eltzeko betarik eman; an alde egin omen zun itxumustuan leyotik orruka.

Basoko abere guziak izutu omen ziran legoi gaztearen orrukin eta ezin jabetu inor zergatik ziran marru ta ayuma oyek; larri asko inguratu omen zitzayon ama:

—Zer dezu, seme; Zergatik orru ta ayuma oyek?

—Zenbat beatz dituzte esku bakoitzean gizonak?, ama.

—Bost, seme.

—Bi beatz luzeaz eldu dit gizon batek sudurretik, ta orrax ondatu dit sudurra ta emen nago oñazetan ito bearren.

—Ene seme, Ez nizun esan bein baño geyagotan, gizonetatik iges egiteko? Ta zuk doakabe orrek, eureen billa joan zera...

—Bai, ama, ondo erakusten zidazun, bañan ez nun sinistu nai zuk zeniona, ain bildurgarriak ziratenik gizonak. Orain ordea, nere buruan dastatu det. Bai, bi beatzaz eldu niñun bezela, amar beatzaz eldu izan ba niñun gizon arrek, antxen utzi bearko nuke nere narrua.

—Benetako bildurra sartu ziotela legoi arri olagizonak.

—Izan ere, Malen, igesi joaten ditun gizonaren aurrean pizti guziak.

—Bai, noski, Maria, iges egiten dute gizonaren aurrean pizti danak. Nunbait jabetzen dira, ipui onetan ikusten degun bezela, eura ez duten beste indar berezia duala bi oñen gañean zutik ibiltzen dan gizonak, eta orregatik diote orrelako bildur ta itzala gizonari.

## ESKER TXARRA

—Esan digun ipui ortan garbi ikusten degu, gizonari abereak dioten itzala. Azaldu bear digu beste ipui bat.

—Entzun, Josepa, erakutzi sakonaz betetako beste au:

Ba omen zetorren menditik etxe aldera artzai bat beste askotan bezela, beste artzayen ardurapean bere artaldean utzia. Ontan konaturatu omen zan baten bat zegola inguramain artan estu ta larri ayumaka, ta bereganaz joan omen zan laguntzera bereala. Zein ote zan estu ta larri arkitzen zana? Otsoa arkitu omen zun arkaitz baten azpian itozteko zorian...

—Ez al zuan bertan jota il?

—Ez ba, Malen... errukia eman omen zion, naiz zan bezin etsai gaiztoa izan artzayentzat, ta antxe omen zegoen artzaya ze egin etzekilla, estu ta larri zegoen otsoari begira.

—Biotz beratxua zun, aitona, artzai orrek; beste edozeñek etzion errukirik izango orrelako etsai gaiztoari.

—Onegia zan bai, Antoni, gizajua; baita antzeman otsoak ere ta adoretzu eskatzen zion artzayari atera zezala arri aren azpitik.

—Erruki nauk bai iretzaz, otsoko —erantzun omen zion artzayak— ta pozik kenduko nitek gañeko arri ori. Bañan bildur nauk, ez aizen aurrera ere len bezin gaiztoa izanen...

—Ez, ez, artzai; etzazu bildur izan. Arri onen azpitik ateratzen ba nazu zure lagun izango naiz eta zure ardiak paken utziko diet, naiz gosez iltzen egon. Otoi, kendu yazu gañeko arri au.

—Ire itza ematen al diak, otsoko?

—Bai ematen dizut nere itza.

Ordun jaso omen zion artzayak azpian estutzen zun arri ura ta estuasun artatik askatu omen zun otsoa. Zutitxen ere lagundu zion, baita ezur ausirik ote zeukan miatu artzayak. Zutitu omen zan otsoa ta arnasa lasai artzen asi; urren ibiltzeko gauza ote zan sayoak egiten asi ere bai...

—Eskerrak emango zizkion, noski, otsoak artzayari?

—Bai, ortakoxe zegoen otsoa, Josepa. Jabetu zanean etzeukala ezurrik ausirik ta arriak azpian arrapatu aurrean zeukan sasoi bera zeukala, ao zabalka asi omen zan bere ortz guziak erakutziaz eta artzayarengana itzulita ala mintzatu zitzayon:

—Jan egingo aut, artzai, gosez il baño len.

—Ederki zio, otsoko, Jan egingo naukela? Ez diak ba len agindu nere lagun izango aizela? Ta orain jan? Ze nolako zerria aiz i?

—Bai, ala agindu nian; bañan ez diat gosez il nai.

—Itza bete bearra daukek, adiskide, ta itza ausi baño len, goazemazik iru lagun billa. Oiek ire jokabidea ontzat ematen ba ditek, ordun jango nauk, bestela ez.

An joan omen ziran iru lagun oien billa, eureen arteko ausia erabakitzeko, artzai ta otsoa. Aurrera zijoaztela zakur bat arkitu omen zuten lendabizi.

—Aizu adiskide —esan omen zion artzayak zakurrari— zu artzen zaitugu bitarteko otsoak ta nik dakarkigun ausia erabaki dezaguzun.

—Ze ausi dezute artzai ta otsoak? Ardin batzuk jan al dizkitzu?

—Ori baño beltzagua da gu bioen arteko ausia, zakur. Ara: Ito zorian arkitu det lentxoko otsoa arkaitz baten azpian, ta itza eman didalako, ez neri ta ez nere ardiak ez d'igula kalte egingo, arria gañetik kendu ta bizirik atera dut otsoa. Orain, berriz, itza janaz ez nau ba neoni jan nai! Zer dizkiotzu? Ondo ai dago orrela eskertzea?

—Esker ona! Ba al dago iñun esker onik? Eizerako sasoi ona nuan, ekartzen nizkion nere nagusiari erbi ugari, baita bestelako eizeko egazti eder asko. Zartu nintzan ta eizerako sasoya galdu nuan eta ordun etzetik makilka bidali ta geroztik emen nabil biziari eusteko, jakirik arkitu eziñik...

Ongi egiñaren ordañetan esker txar ugari jasotzen det...

—Entzun dek, artzai; nere alde zegok zakur zar au—... ta jan egingo aut.

—Ez orratik beste bien iritzia entzun gabe.

—Goazemazik len bailen bi lagun oyen billa, oraintxe auñkeriz ezin nauk zutik egon.

Joan omen ziran bi lagun oyen billa ta aurreaxego bei zar bat

ikusi omen zuten belaz batean larrean ta berarengana zuzendu omen ziran artzaya ta otsoa.

—Entzun bear diguzu, adiskidea, —esan omen zion artzayak— otsoak eta nik dakarkigun auzia, ta zure erabakia eman.

—Zer duzute ba artzai ta otsoak?

—Erdi itoan arkitu dut otsoa menditik nentorrela arri aundi baten azpian, eta itza eman didalako nere laguna izango dala, arria kendu diot gañetik eta bizirik atera dut. Orain, berriz, itza ukatuaz, ez nau ba jan nai. Ori ondo al dago?

—Zer dago ondo? Eskertu bear al da? Ikus nazazute: zutik ego-teko indarririk ez eta alaz ere larrean sayatu bear bizitari eusteko. Gau-erako estalik ez, ez eta jatenik askan eguraldi txarretan. Leen, ordea, ez nintzan orrela bizi; len sasoi onian nengola, bazkatzen niñun gañezka; bai ordun esne ederra ez ezik txal ederrak azten nizkion. Sar-tu nintzan ta ez esne ta ez txalik gabe gelditu nintzan ta orratx: "Oa ortik esanda biala niñun larrera. Esker ona? Ez dago iñun esker onik... orratx.

—Jan egingo aut ta pakea.

—Ez onezkero, otsoko, irugarren lagunak zer dion entzun gabe.

Utzi omen zuten bei zarra larrean ta irugarren lagunaren billa joan omen ziran. Bidearen jira bira batean aurrez aurre axaria azaldu omen zitzayen eta beriala azaldu omen zion artzayak otzoarekin ze-karkian auzia ta beste bi lagunak erabakiak.

—Ondo dago —erantzun omen zion axariak —Bañan ezin jabetu naiz, ez zenbatañeko estuasunean arkitzen zan, ezta zenbatañekoa dan egin zeniozun mesedea, ezta ere zenbatañekoa dan otsoak dizun zorra.

Ara: goazen irurok otsoa estu arkitzen zan lekura ta an emango det nere epaya.

Itzuli ziran ba ta irurak jo zuten artzayak arri azpitik otsoa atera zun lekura.

—Ezin al zuan, axari azkarrak, otsoaren zorra neurru lekua ikusi gabe?

—Epaikari zuzenak bezela, erabaki nai zun, Malen, axariak eta ortarako gauzak nola gertatu ziran ikusi egin bear lendabizi.

Arkaitz aytara iritxi omen ziran irurak ta otsoari galdetu omen zion axariak:

—Nun arkitzen ziñan artzaya etorri zanean?

—Zirrikitu orretan, axari, —erantzun omen zion otsoak.

—Jarri zaite or etzanda, mesedez, arriaren azpian zeunden be-zela. Etzan omen zan otsoa erabat kiskurtuta. Artzayari urrena:

—Jarri yozu, artzaya, gañian ordun zeukan arria.

Laister jarri omen zion artzayak gañean otsoari, lenago kendu zion arria ta laister omen zan sotinka larri otsoa.

—Orrela zeundela agindu al zenion artzayari bere egizko laguna izango ziñala?

—Bai —erantzun omen zun otsoak— Kendu yazute laister gañetik arria.

—Jan zak, otsoko, orain artzaya. Orratx: nik erabaki...

Agur, otsoko, ta urrena alkar ikusi arte... agur... segi ondo... (Irriz).

—Ez diogula gaiztoari okerrik egiteko biderik eman bear.

—Orixe ikasi zuan, Josepa, artzayak axariari eskerrak.

## OTSOA ARTZANTZAN

—Ze abere azaltzen da, aitona, ipuietan motelena?

—Otsoa, Malen.

—Bai, ala ikusi degu, aitona, esan dizkigun ipuietan: axaria ta arikoteak berak baño motelago jokatzen du; bañan ez nuke beste guztiak baño motelago danik esango.

—Egiten zetin, Josepa, pikardi ederrak otsoak artaldetan, ta ez liken orrelako pikardirik egingo, aitona, dion bezin motela balitz.

—Ez det ukatuko pikardi ederrak, Maria, egiten dituanik; bañan ez da beti berekin irtetzen eta sarritan alde egin bear izaten du baurik ostiko ederrak artu ondoren.

—Ez al daki otsoak axariaren antzera jokatzen?

—Bai zera; Malen, gutxitan jokatzen du axariak bezela, ta poliki poliki artaldera urreratuz, sakabanatuta dabillen ardiari lepo egin eta bere txokora eramanez, an lasai jan. Beste aldera jokatzen du geyenetan, gose danean batez ere. Ordun orruka urbiltzen da ardi edo beor taldetara; urrutitik asi ere orruka, baita ardiak, larre goxoa utzita, artzayaren txabolara korrika abitu babes billa. Beorak, berriz, alkarrengana biltzen dira, artzen dituzte erdian moxalak ta eureen biran jartzen dira, atzekaldeak otsoari eskeñiaz. Badirudi otsoa axukatzen dutela: "Ator, ator, escamaz, gauza ba aiz, ator orain eta eldu eiguk lepotik orain"... Alperrik urbitzen zaye orrela prest daudela... ostikoka bialdu izan oi dute otso gosea.

—Nola egiten ditu ba orrelako pikardi aundiak?

—Bein edo bein, Maria, badaki axariaren erara jokatzen, naiz gosez irikita egon ta arkaitz tartean egon oi da gorderik ta ixillik. bera dagon toki ondora larrean ardi edo beorak inguratu arte. Ordun izkututik eta erasotzen diye al ditun guztiak; bat naikoa izan bere gosea asetzeko, ta ainbeste buru II. Ez al da ortan buru motelekoa azaltzen?

—Orixe ba buru gutxikin jokatzea! Bat naikua egun batzuetako gosea kentzeko ta ainbesteri lepo egin alajañetan.

—Orregatik diote, Josepa, gaurko artzayak orrelako gorrotoa otsoari, ta lengoak ere berdin gorrotatzen zuten ipuietan ikusten denez.

—Ipui oietako bat esan bear digu.

—Ba omen zan, Antoni, Aralar mendian otso bat gaztetan pikardi aundiak egindakoa; bañan gorriak ikusten ari omen zan bere zartzaroan. Joan zitzaizkion gaztetako sasoi ta indarrak, ortzak bakandu ta biziari eusteak lana ematen ba zion. Izan ere nola salto egin beorren lepora ta bizia kendu? ardiak ere ezin zitun arrapatu; ardi zakurrari, berriz, aurrea emateko kehenik ez. Pozik, putreai jaten ari ziran aberetik puska bat kentzen zienean.

—Ez al zitun, zartu ala, maltzurkerik ikasi?

—Ustez bai, Josepa, ta ala omen zion azal ta ezur bihurturik gosea ase eziñik zebilela: "Nik ekarri aziko ba nituzke ardiak nere ingurura, artzaiak bezela... ze ardi jatea egingo nuken!... Egunak zemazkian burutazio orrekin gira biraka... bein da berriz goseak oroitu azten ori ta bazkalondo baten nun ikusten ditun artzaya ta bere zakurra itzalean etzanda lo ta eureen inguruan ardiak ausnarrean lasai etzanda. "To" —zion bat batean argituta— Nora begira egon naiz orain arte?

—Ze sumatu zun ordun, aitona?

—Bera artzai biurtzea, Antoni.

—Artzai ederra irtengo zan... zainduko zitun bai ardiak. Nola iritxi ordea ori?

—Ikusten zun artzaya beste arratzaldetan bezela luze luze etzanda lo. Bero aundiak egiten omen zitun egun ayetan eta etzateko kapusai, abarka ta mantarrak kendu egiten omen zitun artzayak eta arri batean uzten itzalean. Artzayari kapusai abarka mantarrak ta makilla kentzea bururatu omen zitzaion. Ordun, Josepa, poliki poliki urbildu zan ta artu zitun artzaiaren kapusai, abarka mantarrak ta makilla, eta etorri bezela joan zan bere txokora; antxe jantzi omen zituan artzaiaren prendak.

—Ez al ziran jabetu artzai ta bere zakurra?

—Ez ba, Maria, arretaz ibilli zan otsoa, ta bero aundi arrek berriz, lo sendoa eman omen zien bai ardi ta bai artzai ta bere zakurrai.

Artzai jantziak soñean zitula, an joan omen zan otzua ardiak etzanda ausnarrean ari ziran lekura ta etortzen ikusi arren, ez omen ziran ardiak jabetu otsua zanik; izan ere burua txanoaz estalita, oñetan abarka mantarrak, eskuan artzai makilla zemakian...

—Ikustekoa egongo zan otzua artzai jantzital Ez ote ziran jabetu ardiak zein zuten artzai berri ori?

—Ez ba; Josepa, ederki estaltzen zitun otsoak buru belarriak kapusairen txano barruan, eta lasai jarraitu zuten ardiak bere inguruan. Asi ere asi ziran ardiak larrean zabaltzen, ta poliki poliki eraman besterik etzeukan otsoak nai zuan lekura, ta an ase bere aspaldiko gosea.

—Ez al zuan ba, aitona, ori egin?

—Zoratuta omen zegon otsoa, Antoni, ikusirik zeñen errex ari zan artalde bereganatzen, eta etzitzayon ba bururatu artalde osoa berarekin eramatea, ta ortarako txistu jo artzayak bezelal

—Asmatu al zun otsoak txistua jotzen?

—Bai zera; txistuaren lekuan orrua irten omen zitzayon otsoari, Josepa,

—Ederra egin zun tonto orrek!

—Ori esan zazu, Malen. An sortu azi zuan iskanbilla ederral ardiak larri beeka igesi; artzai ta zakurra esnatu ta otsoaren atzetik ardiak babestera. Otsoak gosea ase gabe iges egin nai ta ezin, izan ere oñetan abarka mantarrak traban, kapusaiak, berriz, ez uzten lau oñean korrika abitzen. Artu zituan bereak eta bi otsoak, ta berriro artzantzan ekiteko gogua kendu zioten artzai ta bere zakurraren artean.

—Ondo zion bai, aitona, motelena azaltzen zala otsoa zionean.

—Gosea ase ez, ta bizkarrekuak artu ordañetan!

Orixe mokolo galanta!

## OTSOA TA AZARIA EIZEAN

—Motelago jokatzen da, gazteak, otsoa, beste ipui onetan.

—Ezin liteke, aitona, aurrekuan baño buru gutxigokua azaldu.

—Zeok ikusiko dezute, Antoni, ala dan edo ez. Uzta betean omen zan eta gariak jo ondoren, an ari omen ziran nekazariak aizetan gariak larrainean garbitzen ta ogia pillatzen. Pillatu ondoren, barrura sartu omen ziran apaitera nekazariak. Orduntxe zetozten menditik bera otsoa ta axaria.

—Alkar artzen al zuten ba bi pizti oyek?

—Sarritan ikusten ditugu, Malen, alkartuta bi pizti oyek ipuletan; goseak eraginda alkartu ziran nunbait eta an zetozten biak nun zer arrapatuko begira arretaz, bañan dirudiñez etzuten ezar arkitu ta errira inguratzea erabaki zuten. Axariak, ordea, errira inguratzeke obe izango zutela omen zion, erabat illundu arte itxoegitea ta ala egin omen zuten.

Illargia irten zanean arto asko abitu omen ziran errira, ziur ziur biak olloak zuatzetan kokatuta, edo ardi edo auntzak lasai etzanda ausnarrean arkituko zituztela etxe inguruetan. Egarrria kentzeko, bide ertzeko putzu batera joan ziran ura edatera ta uda edaten ari zirala, gazta aundi bat ikusi omen zuan otsoak.

—Ikusten al dek, axari, or barruan daguan gazta eder ori?

—Bai, otso... (irripärrez axariak).

—Nola artuko nitek gazta ori?

—Oso errex... putzua uztu ta eskutan izango dek gazta.

—Nola uztu, ordea, putzua?

—A ze estuasuna! Edan zak ur guzia ta kito—...

—Asi ote zan ur guzia edan nayeana, aitona? Ez ote zan konturatzen, ikusten zun gazta illargia zanik?

—Etzan, Antoni, jabetzen otsoa gauz orretzaz eta uda edateari ekin zion; biurria izaki aldameneko laguna, ta bere bizkarretik parra egin nai. Ari omen zan otsoa gazta arrapatu nairik uda edan eta edan;

eta edan ala atzetik txisa dar  
batekin itxi atzeko zuloa axar  
tu omen zan ederki otsoa, bañ

—Emen etzegok gaztarik...

—Urakin batera iruntziko

—Balitekek... ederki bete

Aurrera jarraitu omen zut  
ko zorian ta iritxi ziranean la  
azariak len jarritako koskola o  
rral baita larrañean goitik be

Jabetu omen zan baten b  
larri dei egin omen zien barru  
ogiak babesera eramaten. Jak  
nundik zetorren ukustera joan  
balduta barrua uztutzen eta e  
omen zuten otsoa barrua ust

—Bitartean ze egiten zun o

—Erremienta ederra axari  
Ori bai, ez omen zun uste bez  
leyo baten gaztanbera ederra  
anka gañean zutik jarri ta lep  
tanbera garbitzen eta ondarra  
zala kaikua, buru gañera irau  
Orduntxe ayenaka inguratu o

—Zer dek lagun? Zergatik

—Makilka ausi zizkiatek k  
nautenen larrain gaikaldean n

—Ori eztek ezer lagun! C  
rrak; neri buru ezurra ta muñe

—I ez ago ni bezin gaizki; r

—Goazemazik emendik giz  
utzi bearko zetiagu gure larruak

—Ai enel Ezin diat ankarik

An omen zijoazten biak ai  
tan; ontan lagun zar batekin a  
gun orrek zer zuten biak ayen  
eureen kuitak, baita axariak a

ari omen zan otsoa, bañan koskol  
eta ordun puztuzten asi otsoa. Puz  
aznarik arkitu ez putzu barrenean...

r duk au?

gazta.

k beintzat.

biak ta an omen zijoan otsoa lertze-  
aren gaikaldera, kendu omen zion  
ri... Ura omen zan barrua ustua bea  
zijoan ur erreka...!

arak zemakila eureen ogi ederra, ta  
. Laister etorri ziran ta ekin gogotik  
ziran, ordea, ateri zegola ta ur ura  
otsoa arkitu omen zuten ankak za-  
rik emanik, beste leku batera bidali

biak?

Josepa; eizean omen zebillen lasai.  
ollorik iñun arkitu; bañan bai ikusi  
tetako kaiku aundi bat, eta atzeko  
zatuz justu justu asi omen zan gaz-  
arbitu nairik, beregana ekartzen asi  
tzayon ontzia ta mamiz bete burua.  
zitzayon otso gizajoa.

ma oyek?

arreko ezurak, txixa egiten arrapatu  
ariak.

ago natxok neu: iri bizkarreko ezur-  
girian utzi: ikusi eorrek.

nauk ibiltzeko gauza...

oiak agertu baño len, bestela emen

o; lagun eidak axaril

ika, bata egitan eta bestea gezurre-  
u omen ziran. Jakin egin nai ba la-  
joateko ta an azaldu omen zioten  
ei galdetu zein jotzen zuan okerrago

zeturrela, bizkar ezurra ausita edo buru kaskoa ausi ta muñak age-  
rian zekarkiana.

—Ez zijuak batere ondo bizkar ezurra ausita damakiña, bañan  
okerrago dijoala esango nitek muñak agirian damazkiñak erantzun  
omen zion.

—Entzun dek otso? I baño askoz okerrago neok ni ta gañean era-  
man bear nauk.

Esan eta egin, otsoaren gañean etzan omen zan axaria ta, arras-  
taka ba zan ere, eramán egin bear otsoak gañean axaria. Orrela joan  
omen ziran bide luzean otsoa eziñean arrastaka, gañean aizkenetan  
dijoanaren papera egiñaz eramánax axaria. Etzitzayon berealakuan  
gau ori aztuko otsoaril

Eldu omen ziran, ordea, axariak maite zun koba zulo baten pare-  
ra ta otsoaren gañetik salto egin ta or joan omen zan izkutatzera ko-  
rrika axaria bere zulora. Ordun jabetu omen zan irri egiten ari zitzaj-  
yola gau artan axaria ta amorruez beterik jarrai omen zion otsoak axa-  
riari ta zuloan gordetzen ari zala, eldu nai isitzatik; bañan axariari  
eldu bearrean arbola zain bati eldu ta amorru guziaz ari omen zan  
tiraka... Irika barrutik axaria...!

—Ondo zion, aitona, ez du batere bururik azaltzen ipui onetan  
otsoak.

—Ori izan zan ba adarra jotzea otsoari, Antoni.

III

**SORGINKERIAK ETA GERTAERAK**

## SORABILLAKO ZUBIA

—Sorgiñak egiña zala zioten nere lagunak, aitona, Sorabillako zubia; entzun al du beorrek orrelakorik?

—Sorabillako zubia? Bai, Malen, gau batean egiña dala dio ipuyak.

—Ba... ba... gezurra izango da orratik, aitona, ipuyak diona.

—Gezurra?... zergatik Malen? Ez al dezu uste, zubi bat gau batean egiteko lain indarrik, izango duanik sorgiñen buru dan zan deabruak?

—Deabrua al zan ba, aitona, sorgiñen burua?

—Zein uste zenun ba izango zala sorgiñen burua?

—Nik uste nuan, aitona, etzirala iñoiz izan sorgiñik ta orixe: ipui batzuek besterik etzirala kontu oyek.

—Kontuak bakarrik Malen?... antziña artan zigorkatu zitun Inksizioak Euskalerriko zenbat sorgin.

—Gaur entzuten det ori, aitona, curreneko aldiz.

—Ba garai aietako kontua dezu Sorabillako zubia.

—Ta ori nola gertatu zan, aitona?

—Ara ba... ez omen zegon zubirik beste aldera igarotzeko Eillabonatik Lasarteraño ta Aduna ta Sorabilla aldekuak edo ur gutxi zegon tokitatik igaro bear edo bestela Billabonako zubiraño jo bear. Oso gaitza jotzen zuten, noski, ibayaren beste aldekuak, Andoaingo errira joateko, Billabonako jira bira luze ori egitea.

—Etzeguan, aitona, ikusten danez garai arretan errestasun geyegi batetik bestera igarotzeko.

—Ez ba ta sarritan oñak ez ezik zanguak ere ondo beratuta igaro bear.

—Zergatik egin zuten sorgiñak zubia? Ez diote aidean ibiltzen zirala? zertarako bear zuten zubia?

—Sorgiñak ez noski, Malen; bañan pozik asko artuko zuan Sorabilla parean zubi bat Peru itzayak.



—Zein zan, aitona, Peru itzai ori?

—Iri pare eder baten jabea zan andoaingar onek bere kontura artu zuan Sorabilla aldeko baso egurrak Andoaingo zerra batera eramatea. Ederki ibilli omen zan udara aldean ibaia igaroaz; bañan egurguziak eramán baño len eldu zitzayon udazkena, ta ebite gogorrekín ibaya azi ta ezín igaro ibaitik ta ordun Billabonako zubiraño jo bear.

—Penatuko zituan idiak ederkil

—Iriak?... Iriak ez ezik bere burua ere bai. Neke ugari ta irabazi gutxi... orra Peruren bizimaña.

—Damutuko zitzayon, noski, aitona, lan ori artu izana.

Damutu? I...ez du itz orrek Peruren amorrua azaltzen, Malen, ez bai zioten Billabonatik Andoañera egurrak lorketan eramaten uzten ta askotan, berriz, ardatzeraño sartzen zitzayon gurdia... Ordun joan bear albotik Peru zirikatzerá...

—Bañan ze ikusi bear du Peruk Sorabillako zubiakin?

—Entzun, Malen, ta jabetuko zera. Ba omen zetorren Peru ondo illunduta gero bere gurdiakin; su ta gar omen zetorren akullua dantzatzu ta ontan eldu omen zan Sorabillako parera. Ala omen zion asarre: Artu nian ba nik zorigaiztoko lan aul Ortik onuntza egurrak ekartzeko madarikatzen jardun bear, zubirik ez dagolako pare onetan! Oraintxe nazkatu nauk nere iri ta nere bizimañaz!

—Zer dek Peru —esan zion inguratu zitzaión lagun batek —ain emegatua egoteko?

—Zer detan?... Gutxi ba dizkiok aul Ekarrí itzak ortik onutza egurrak Billabonako jira bira egiñaz, irik ta ire burua ondatuz emen aurrean zubirik ez dagolako.

—Ze emango ukek biar goizean or zubi bat ikuste arren?

—Ze emango nuken?... or zubi bat biar ikuste arren?... Edozein gauz motell... ez diagun amets egin... etzegok ori egin lezakenik...

—Nik jasoko diat biar goizerako zubi ori.

—Pozik artuko nitek zubi ori... Bañan ez diak utzaren truk egin naiko, adiskide...

—Ez diat ba gauz aundirik eskatuko... Ara: iltzen aizenean, ire anima neretzat izateko tratua egingo diagu ta biar goizean zubi eginda ikusiko dek; bai, biar goizean ollarrak irugarren kukurrukua jo baño len zubi eginda ikusiko dek or... zer diok?

—Ondo zioak... iltzen naizenean nere anima iretzat ta biar goizean or zubi bat neretzat... ba zijoak.

—Ene bada, aitona, orrelako tratua egin zun?

—Pozik asko joan zan Peru etxera zubiarekin amesetan, baita emazteari azaldu bere pozaren iturria. Etzitzaión emaztea alaitu berri orrekín, larritu baizik...

—Etzan gutxigorako...! Ze egin zuten?

—Larri omen zegon Peruren emaztea, deabrua izango zala lagun ura ta apaizarengana joan bear ko zutela ta ozta ozta apaltzeko beta senarrari eman omen zion. Entzun omen zion erretorreak itzaiari ta zalantza gabe erabaki omen zun, deabruak bakarrik egin zezakela orrelako tratorik, ta ikusi bear zutela betetzen zun edo ez agindutakoa. Orra ba ibai ondora jo zuten erretoreak ta senar ebazteak.

—Ezer ikusi al zuten ibai aldean aitona?

—Arrigarrizko gauzak, Malen. Ari omen ziran ordurako sorgiñak lanean. Sokan bezela alkarri aldean botatzen omen zieten arriak "Or den ormatarako amargarren arria" esanaz botatzen omen zituzten aldean arriak ta bestiak aldean artuaz jartzen omen zuten bear zan lekuan. Gauerdirako jaso zuten erdiko ta bi baztarreko ormak ta asiera eman omen zioten aurreneko uztayari. Orma ta uztayetako arriak, Alar mendian arrubian bertan lantzen omen zituzten ta andik ekartzen omen zituzten. Ikaratu omen zan erretorea ori ikusita ta etxera bidali omen zuan itzaya ollar billa.

—Ollar billa?

—Entzun ixillik ta jabetuko zera. Ari ta ari, dantzan ari ba lira lez, ari omen ziran sorgiñak arriak alkarri ematen ta argiñak beren lekutan jartzen. Laister bukatu omen zuten Sorabilla aldeko zubi uztaya ta dotore asko jaso ere bi aldamenetako ormak ta bereala ekin omen zioten zubiaren bigarren uztaiari. "Laureun arri naikua zetiñagu" —dei egin omen zien sorgiñai argin-maisu argiak— ta landu ditzatela zubiko giltzarriak".

Ontan eldu zan itzaya ollarrakin ta eskutik kendu zion apaizak ollarra baita astindu ere biziki ta kukurruku jo azi. "Kontxo, aguro zijoakigun gaua" —diadar egin omen zun argin-maisuak— "Bizkor ibilli ditezela bear ditugun arriak lantzen" Ikustekua omen zan sorgiñak ekin zuten dantza ta ayen oiak: "Gurea dun" Gurea dun" Gurea dun" "Amaituko dugula ollarrak iru bider kukurruku jo baño len".

—Larrituko ziran oiuk entzunaz, aitona?

—An zeguan eureen ondoan erretorea ta ikusten zuten bere sendotasuna. Konturatu izan balira sorgiñak, inguruan zeukatela bere ardia galdu nai etzuan artzaya, estutuko ziran naski ta ala eureen poza aundiña zanean lengo matrikulaz kukurruku jo azi zion erretoreak ollarrari. Ordun bai sortu zala egizko zalaparta sorgiñen artean!

Gero ta agurogo eskatzen zieten alkarri bear zituzten arriak ta adoretzu ari ziran danak lanean; ba zirudian bat batean osatzen ari zirala uztai ta aldamenetako ormak ta uztai ta aldamenetako sakonak arri txeaz bete ta berdintzen. Urruti zegon oraindik goisentia, ta alaz ere amaitzen ari ziran zubia. Ekin zion argin-masuak giltzarriak eske, baita eskatu ala besteak eskura eman "Or dezute amar-garrena" "Orra bederetzigarrena" "Zortzigarrena..." Beajundeizuela zuei neska bizkorrai; amaitutakuan zubi ondoan dantzatuko gaitun... ekarri besteak ere" —erantzun zien argimasuak.

Estu ta larri zeuden erretore ondoan Peru ta bere emaztea, sorgiñen oiuk ta lanak entzun ta ikusten. Entzun zuten "Or dezute bi garrena" "aizkenekoa bidean dator jarri aguro beren tokietan".

Ordun erretoreak argia piztu ta ollarrari kukurruku indartzu jo azi zion. An erori zitzaion eskuetatik argimasuari giltzarria udetara ta bat batean izkutatu ziran ibai ondotik ixillik sorgin danak.

—Azkarra izan zala benetan erretore ori.

—Bai, Malen; orrela iritxi zun zubia, bere ardia galdu gabe.

## BI IKAZKIN TA SORGIÑAK

—Egizkua edo gezurrezkoa, polita zan beintzat, aitona, lenguan azaldu zidan ipuia; ba al daki beste sorgiñen ipuirik?

—Irri egiteko asmotan al zera, Malen?

—Irri ez aitona, lagunen artean esateko jakin nai nituzke orrelako ipuiak. Egan beit mesedez beste sorgin ipui bat.

—Sorgin kontu asko dakizkit ta politenak esaten joango natzaizu. Neoni jabetzen naiz ez dirala danak egizkuak izango, ta orregatik esan oi zun nere aitona, noski, Ori ala bada, irten dedilla Derioko plazan". Ezin uka politak dirala ta erakutzi ederrak ematen dizkigutela.

—Bai orixe politak dirala! Ez daki zeñen pozik entzun zuten nere lagunak beorrek azaldutako Sorabillako zubiko ipuia.

—Ba gaurko au ere atsegin izango zaye zure lagunai, Malen.

—Etortzekuak ditu jai arratzalde baten beorren aotik entzutera. Zein du gaurkoa.

—Gaurkua, bi ikazkiñai gertatua.

—Ze gertatu zitzaion ikazkin oyei? Txondarrak banatu al zion sorgiñak, aitona?

—Ez, Malen; asi zera orain ere jakin nayeiz dana nastutzen.

—Orixo, jakinaiaz larri nauka, ta asi naiz galdezka.

—Entzuten ikasi bear duzu, Malen. Ara ba: eztabaidan asi ziran bi ikazkiñak txondarrak prestatzen ari zirala.

—Zer zuten ba eztabaidan ekiteko?

—Etzijuala-zion batek- su ematera gertu zeukan txondarrari urren-go astelena artel ordun sututa etzeukela igandean mezatara joaterik ta etzegola txondarragatik meza uzterik. Bestiak, ordea, gogor erantzun zion, etzala astelena zai egongo su emateko, egun artan bertan, naiz ostirala izan sutuko zitula gertu zeuzkan txondarrak, meza baño lenagokoa zalako bearra.

—Gibel aundin bat izango zan olako oril ta kristauatzat joko zun bere burua, aitona?

—Ba dituzu, Malen, orrelako kristau ugari: aurretik ez dituzte kontuak ateratzen ta gero meza ta gañetiko eginkizunak bete eziñik arkitzen dira.

—Beajundelera orrela jokutzen dutenai, aitona!

—Orixe egin zun ba orrek: larunbat goizean txondarrak sutu ta nola lau bat egun bear izaten ditun txondarrak ondo erretzeko, ta zaintzen betik baten bat egon bear dun, mezatara igandean joaterik etzuan izan.

—Ez al zitzayon ortik okerrik etorri?

—Bai ta ez, Malen.

—Nola esan du ori, aitona?

—Etzun orrela beste ikazkiñak jokatu; lagunak bezela su eman bearrean larun bat goizean gertu zeukan txondarrari, beste txondarrak prestatzen igaro zun eguna ta illuntzean etxera jo.

—Noiz esan bear dit, txondarra sutu zun ikazkiñari gertatua, aitona?

—Meza entzun ta atzedenean igaro zun igandea ikazkin zintzoak. Astelenean, berriz, etxeko lanak egiten igaro zun goiza, ta arratzaldean mendirako asterako jakiak artu ta abitu zan mendira. Ba omen zijuan mendi aldera, ta ederki illundu omen zun sorgin zelayera beira iristeako; udazkena bai zan ta eguna motza.

—Ikusi al zitun sorgiñak, aitona?

—Bai, Malen, aurrea artu omen zioten sorgiñak ta an omen zueden bilduta ingurumai aytako danak.

—Zertan ari ziran sorgiñak, aitona?

—Ba omen zituzten eureen sallean txistulariak ta ayen doñuak eraginda, jota kea dantzan ari omen ziran sorgin danak, gizon ta emakumeak. Begira egon zitzayen puskatean ikazkiña ta dantza utzita, galdezka asi omen ziran alkarri: "Zer din erregiñak? Aspaldi onetan makal zebillen ta ez din iñork asmatzen ze gaitz dun".

—Entzun al zien ikazkiñak ziyotena, aitona?

—Orixe entuten ziyela ikazkiñak, Malen, sorgiñai, izkutatuta bai zegon ziotena entzuteko eran.

—Ba al zekiten, sorgiñak, ze gaitz zeukan erregiñak?

—Ara, ze erantzun zioten galdera ori egin zunari. Erregiñak al dion? Berriz ere egongo dun gaxo arroputz ori. Erori zitzayonan bein, eli-

zatik at irtetzeko garayan, ogi bedeinkatuaren zatitxo bat lurrera ta etziñan makurtu nai izan jasotzeko. Etorri itunan bereala txinurriak ta eraman zitenan puskatxo ori, zimeterioko losa aundiaren azpira. Ez den sendatuko erregin ergel ori, txinurriak jasota daukaten ogi puskatxo ori jan arte. Segi dezagun dantzan, ez den ba berealakuan sendatuko erregiña ta...

—Ze egin zun ikazkiñak ori jakinda, aitona?

—Ze egingo zun ba, Malen, mendira joan ta urrengo goizean goiz jeikita txondarrak sutu ta arretaz zaindu okerrik gabe ondo erre zitezen. Urrango larunbat arratzaldean txondarrak erre ondoren etxera jetxi gauerako. Igandean berriz meza entzun ondoren, etxekoai azaldu erregearen jauregira azaldu bearrean zegola ta ekarri zezatela bitartean astoakin ikatzak menditik. Bazkalondoan abitu zan erregearen jauregi aldera.

—Patxaran ibilli zan orratik ikazkin ori! Nik uste nuan, aitona, txondadarrak bere artan erre gabe utzi ta bereala joango zala albiste pozkarri orrekin errege jauregira.

—Zergatik ibilli bear zun presaka, Malen? Entzun zien sorgiñai etzala berealakuan sendatuko, ta etzegon alde ortatik estuasunik. Orregatik, aurrena bere eginbearrak bete zitun txondarrak erreaz ta gero joan zan lagun urkoari laguntzera. Iritxi zan ikazkiña errege urira ta zuzenean jo zun eliz atarira ta sorgiñak zioten erdiko losa aundia altxatu, ta txinurriak jasotako ogi puzka artu ta zapi garbi batean bildu ta abitu zan errege jauregira.

Aditzera eman azi ziyon erregeari, emaztearentzat sendagai batekin zetorrela ta bereala eraman azi zuan erregeak ikazkin ori erregiñaren gelara. Azaldu zien senar emazteai, ze ogi puska zekarkian zapitxo artan ta ogitxo ori jan orduko sendatuko zala. Eskerrak emanaz artu zion erregiñak, eliz atarian erori zitzayon ogi pusketa ta pozik asko iruntzi zuan ogi bedeinkatua.

Iruntzi ta sendatu bat izandu zan. Ura errege ta erregiñaren pozal Ze egin etzekiten ikazkiñari ordaintzeko mesede aundi ura. Urrez beteta bialdu zuan erregeak ikazkiña bere etxera.

—Ori izan zan txondar ederra arkitzeal

—Bai, ondo ari zera, Malen; etzuan geroztik txondarra erretzen lanik izan.

—Zer zion, aitona, besteak lagunaren zori ona ikusita?

—Ze esango zun gizajuaki Mezak utzezin ta igandetan ere lan eginda etzan aberastu; laguna, berriz, seko aberastuta ikusten zun. Jakin nai zuen nola izan zuan lagunak zorion aundi ori, ta or juan zitzayon etxera galdezka. Garbi azaldu ere lagunak gertatua.

—Ordun jabetuko zan, aitona, zintzoari lagundu ziola Jaunak ta ez berari.

—Ez dakit ba gauz orretzaz jabetu zanik, Malen... Jaungoikoari begiratu gabe, joan zan beintzat astelen batean illunabarrean sorgin zelayera aberasteko asmotan.

—Aberasteko biderik arkitu al zun, aitona?

—Asarre omen zeuden arratzalde artan sorgiñak zelayan bildu ziranean. Ala omen zioten: "Aitatu genunan beste bein emen erregiñaren gaitz kontua, ta baten batek entzun ziñan gure autua ta joanda erregiña sendatu den. Kontutan asi baño len, begiratu dezagun iñor zeletan dagon.

—Arrapatu al zuten ikazkiña, aitona?

—Arrapatu ez ezik, urrena sorgiñen kontuak entzutera joateko go-gua kendu zioten gizajoari, eman zioten pasadaz.

Orrela zigortu zun Jainkoak diru-gose purrukatua zana.

## SORGIÑEN BILLERAK

—Arratzaldean, aitona, emen gaitu beorren inguruan Malenen lagunak.

—Ongi etorriak gure etxera, gazteok. Zerk ekarri zaituzte gurera jai arratzalde ontan?

—Esan nion ba lenguan, aitona, etortzekotan gelditu zirala nere lagunak beorren aotik ipui politak entzutera.

—Zer entzun nai zenuteke, gazteok?

—Nun biltzen ziran sorgiñak? Ze egiten zuten billera oyetan; Zerk eragiten zien sorgin biurtzeko?

—Galdera askotxo arratzalde batean danai erantzuteko, Josepa, ta ez dakit danai ondo erantzungo diedan.

—Esan beza lasai, aitona, guk pozik entzungo diogu aspertzeke. —Antonik.

—Zuek pozik entzun ta nik pozago esan berriz. Beajundeizutela gazte maiteak, plazako pezta utzi ta nere inguruan bildu zeratelako jai arratzaldean.

—Plazan bezin ondo igaroko dugu arratzaldea beorri entzuten-danak batera.

—Ez dakit nundik asi... Billerak nun? galdetzen zenun, Josepa... ba toki ta leku askotan egiten zituzten billerak. Ori bai, etzuten gure aurrekuak iñoiz garbi esaten noiz biltzen ziran toki bakoitzean; batzutan Naparroko Zugarramurdin, bestetan Aralar mendiko zelai batean, bestean Bizkaiko Muxikako Eper landan ta beste nunnai.

—Danak biltzen al ziran leku oyetan.

—Batzutan bai, Maria, danak biltzen ziran billera oyetan; batez ere euren nagusia etortzekua zanen. Ordun nunbait izaten zituzten solas aundiñak ta etzuan sorgin batek ere utzegiten.

—Nola biltzen ziran ta nola joaten ziran ain urrutira, aitona?

—Sorgiñen sallean sartzen zanean bat, artzen omen zuen sorgiñen buruaren eskuetatik erregali bat, Josepa, ta ontxitxo ortan ze-

guan unguentuz igurtziaz burua, batetik bestera joateko indarra ar-  
tzen omen zuan.

—Arrigarria dirudi ori, aitona.

—Ondo ari zera, Josepa, arrigarria da bai sorgiñen kontuetan  
azaltzen dana.

—Bañan, aitona, ezin litekela izan dirudi, orrelako indarrrik duan  
unguenturik...!

—Bai, guk ala jotzen degu, Maria, bañan garai batean gauz oye-  
tan sinistu ta oyen atzetik ibilli oi zan jendea. Orregatik, noski, neu-  
rri estuak artu bearrean arkitu zan, sinismen ta oiturak zaintzeko ja-  
rrita zegon Inkisizioak.

—Noiz ta nola egiten zituzten sorgiñak igurziketa oyek?

—Billera batera joan bear zutenean, Malen, egiten zituzten igur-  
ziketa oyek. Oraintxe etorri zait burura, bein igurziketa orrekin gerta-  
tu zana.

—Esan beigu, aitona, gertatua.

—Ama alabak bizi omen ziran baserri batean, Marian, ta mo-  
rroi bat omen zuten. Askotan ikusten omen zitun morroyak, apalon-  
doan ama alabak sukaldia jaso ondoren, eureen buruak txukundu  
ta apaintzen: arpegia garbitu, illeak orraztu, oñetakuak aldatu ta  
abar...

—Apaldu ondoren...? Arrituko zan mutilla ori ikusital

—Uraxe ba arritu... Josepa, prestamen oyek ikusital Ala omen  
zion mutillak berekiko: "Auzoko etxe batera joango ituk ziurki irun-  
keta" ta geyo gabe etzatera joaten omen zan bere gelara. Prestamen  
oyekin baño geyago arritzen omen zan etzalako iñoiz oartzen, ez noiz  
irtetzen ta ez noiz sarten ziran etxean.

—Ez al zan ba jabetzen morroya noiz egiten zuten joan etorria?

—Ez ba, Maria, etzan jabetzen iñoiz, naiz arretaz zaindu oitik.

—Ez al zun ezer egin ze egiten zuten jokiteko?

—Zaintzeko asmotan zegon marroya. Malen, ta ikusi zituanean  
gau baten beste askotan bezela bereen buruak apaintzen, gau onak  
emanda, alde egin sukaldetik lotara joango balitz bezela...

—Ze egin zun morroyak?

—Zeletan gelditu ate atzean, Antoni. Ba zun sukaldeko atek zu-  
lotxo bat ta andik begira gelditu...

—Orrelako zelatariaren kezka gabe jokatuko ziran ama alabak?

—Bai, orixe, Josepa; lasai ibilli ziran biak eureen prestamenetan,  
ta soñeko ta oñetakuak aldatu ondoren, artu omen zuten su burni  
atzean gorderik zeukaten ontzitxo bat ta bertako unguentuz igur-  
tzi omen zituzten beso ta iztarrak. Urrena utzi omen zuten ontzia bere  
tokian ta biak batera esan omen zuten: "Sasi guzien gañetik ta odei  
guzien azpitik" ta or alde egin omen zuten ama-alabak tximiniko zu-  
lotik kanpora.

—Leku onean zegon morroya, oitikan oyen joan etorria sumatze-  
kol Lotara joan al zan mutilla?

—Bai zera, Antoni; etzeukan berak lotako gogorik... arrayo  
ezik, jakin bear zuala nundik nora ibiltzen ziran ama alabak ta eureen  
antzera pretatu omen zan bera ere. Garbitu arpegia, esku, beso ta  
oñak; igandeko jantzi ta oñetakuak jarri ta or abitu zan su-burni atze-  
ko ontzi billa ta beso ta iztarrak igurtzi zitun ta itzak esan; bañan gi-  
zajuak itzak oker esan zitun.

—Nols esan zitun ba itzak?

—Esan bearrean: "Sasi guzien gañetik ta odei guzien azpitik"  
ama alabak bezela; "Sasi guzien azpitik ta odei guzien gañetik" esan  
zuala morroyak, Antoni.

—Okerren bat gertatu al zitzayon, aitona, gaizki esanda.

—Orixe bai, Malen. Esan zun bezela joan zala "sasi guzien az-  
pitik" Errukari iritxi omen zan gizajua Eper landako zelaira: soñeko  
ta burua erabat urratuta.

—Billeran bat al zuten sorgiñak Eper landan?

—Bai ta ez txikienetakua. An bildu omen zitzayen eureen nagu-  
sia Aker-Beltzaren irudian. Arriturik gelditu omen zan morroya, an-  
go solas, alaitasun ta zoramena ikustean, ta sorgin berrizat arturik  
Aker Beltzaren aurrera eramane omen zuten morroya ta bat batean  
sendatu omen zizkion urratuak ta soñekuak berritu. Sorgin guziak  
bildu ziranean asi omen zan pesta politena, Maria. Banan banan musu  
ematen omen zioten sorgiñak Aker Beltzari ipurdian.

—Ai enel Musu eman ipurdian? —esan zuten ao batez gazteak.

—Bai, ipurdian akerrari. Zuek arritu egiten zerate, ta izpide aun-  
diz. Bañan jakin bear dezute, ordea, zeremoni orren bidez azaltzen  
ziyotela deabruari eureen menpetasuna ta eskubide aundiak ematen  
zizkien ordañetan. Etorri zitzayon morroyari ere laztantzeko ordua...

—Eman ote zion morroyak musu akerrari, danak bezela?...!

—Joan zan morroya musu ematera... ta patrikadan zeukan ezte-  
na artu ta ziztatu zun akerra, musu emateko imintziola egiñaz.

—Salto egingo zun akerrak, galdetu zion parrez Mariak.

—Ez dakit orixe: baño bai mutillerangana itzulita esan ziola: "Bi-  
zar gogorra daukek gazte; urrungorako kendu bizarra". Morroyak eran-  
tzun: "Jesus maitea; Ori duk ipur beltza"

Ederra egin zun! Ori esanaz mutillak! Etziran ba danak batera  
izkutatu aker ta sorgiñak, tximistak jota bezela— ...Or amaitu zan  
billera.

—Bakarrik gelditu al zan morraya Eper landan?

—Bai, gazteak; bakar bakarrik arkitu zuan bere burua zelai aun-  
di artan ta urrena etxerako bidea artu zuan aidean; bañan oraingo on-  
tan zuzen esan zitun itzak ta ederki baño ederkigo eldu zan etxera.

—Ze egin zun gero mutillak? —danak batera.

—Ba urrengo goizean erretorearengana jo zun ta aurreko gaueko  
pazazua azaldu zion. Pozik asko zan mutilla, apaizaren bidez iritxi  
zuanean ama alabai bide oker ura utzi aztea.

## SORGINKERIAK

—Gauz batek nauka, aitona, erabat arrituta, zion Mariak. Nola  
biurtzen ziran sorgin kristauak? Zerk eraginda ordea?

—Ez nazu batere arritzen, Maria, galdera orrekin. Neonek ere  
zenbat aldiz egin ote diodan galdera ori berbera nere buruari gazte-  
tan batez ere. Urteak ekarri didate erantzuna: Gaiztakeriz jotzen zuten  
sorginkerira.

—Gaiztakeriaz? —danak arrituta.

—Bai enetxuak, gaiztakeriaz. Urte asko ditut bizkarrean ta zen-  
bat gauz ikusi bearrean izan naizen urte oyetan. Ez uste danak ede-  
rrak ziranik; zenbat beltzekeri; zenbat azpikeri; zenbat kalte egite bes-  
teri; odol ixurtze; malkoak baztarretan; zoritxarra zabaldu logun ur-  
koen artean... ta ori dana, ez jentil erritan, kristau erritan baizik ta  
kristauen artean. Ez naiz batere arritzen, sorginkerira jotzea garai  
ayetako kristauak eureen griñak asetzeko.

—Ori orratik zitalkeri aundia zan. Aitona, ageri al da orrelakorik  
ipuietan?

—Ondo ari zera, Josepa, ori zitalkeri gogorra da ta garbi ageri  
da zenbait ipuietan. Zuek noski, orrelako ipuyen bat entzun naiko de-  
zute... Ez naiz, ordea, une onetan ipui oyetzaz oroitzen.

—Buruu pitin bat astertu ta oroitu da bai, aitona, ta azaldu  
bear digu orrelako bat —zion Antonik.

—Iñori kalte egin nai ziotenean sorgiñak, zion nere amonak, ka-  
tu, zakur, bei ta beste abereen antza artzen omen zutela,—esan zun  
Mariak.

—Bai alaxe da, Maria, ta ipui askotan ikusten da ori. Oraintxe  
datorkit burura Berastegin gertatua. Zoritxarrez bizi omen ziran ango  
baserri batean. Makiña bat malko ixuri omen zutem baserri artako se-  
nar-emazte, zaar ta gazteak. Gutxi, berriz, etxe ortakoak bezin zintzo  
ta elizkoyak...

—Nundik zetorkien ba orrelako zoritxarra?

—Ara, Kosepa, sei aur izan ta seirak aingerutxo batzuek zirala il... aurrrik gabeko etxean... alaitasunik ez.

—Arrazoi du, aitona, naiko zoritxarra ba zuten etxe orretan. Ez al zituzten aurrak bear bezela zaintzen? Zeekin iltzen zitzaizkien aurrak?

—Ondo zaintzen ote zituzten galdetzen dezu, Maria. Etzitun iñor ayek baño obetogo aurrak zainduko. Begira: gurasoak sasoi onenian zeudela eskondu zan etxera semea ta laister ekarri zuten aingerutxo bat, ta zar ta gazteak bete zitun pozaz. Etzuten iñoiz aurtxoa bakarrik uzten, amona etxean gelditzen zan besteak lanera irtetzen ziranean ta arretaz zaintzen zun illobatxoa. Alaz ere iru bat illabeteko aurtxo zoragarri bat zala, irten zan amona eskatzera ta sukaldera biurtu zanean etzun ba itota arkitu seaskan illobatxoal Beste aintbeste gesta itzayen bigarrenarekin ere, iru lau bat illabeteko aur zoragarri baat zala...

—Arrazoi du, aitona, naiko zoritxar zeukaten etxe orretan!

—Bai, Josepa, erabat naigabetuta bizi ziran ta zarrak osasuna galtzen azi ziran. Jaungoikuak bakarrik daki zenbat otoitz egin zuten etxe artakuak, orrelakorik geyago gertatu etzitzayen; amona batez ere eten gabe jarduten zan otoitzean.

Bialdu zien Jaungoikuak beste aingerutxo bat: matrail gorriko neskatiill polit bat. Ura aiton amonaren zoramenal Ezin alde egin seaskaren ondolik... oroitu gabe igarotzen zituzten antxe orduak! Etzion ez aingerutxo arri alde egiten utziko amonak; bearrekua zuten bere irriparre gozua lur gañean jarraitzeko. Arratzalde batean, ordea, amona illobatxori begira dagola, ikusten du aurtxoa itolarrian, artzen du amonak eskutan, astintzen zun larri illobatxoa, baita buruz bera jarri bizkarrean astinduz, estarrian zirudian traba bota zezan ta an etorri ziran omonaren deyerera etxeko danak; bañan ezin ezer egin: aurtxoa ito zitzayen.

—Ez al zioten sendagilleari deitu?

Ez alperrik, Antoni, ekarri zuten bai sendagillea; aztartu zun aurrak ondo, bañan etzion iñungo gaitzen aztarnarik arkitu. Esango nuke zion ale edo orrelako zeozer iruntzi nayeon ito dala aur au. Begiratu omen zion estarri zuloan; bañan an ere ez omen zion ezer arkitu aurtxoari.

—Amona gaxua, orrela iltzen ikusi bear aurtxo maiteal

—Bai, Josepa, etzien onik egin zarrak irugarren aurraren eriotzak.

Andik laister il zan aitona ta atsekabea atsekabearen ondoren zeterren etxe artara. Amona bera ere makaldu zan erabat ta neskame on bat ekarri zuten.

Naigabeak arintzeko nunbait beste aurtxo baten itxaropena eman zien Jaungoikuak. Berpiztu zan berri onekin amonaren biotza. Beregan artu zun sendagiñak espero zuten aur arren bizia ta bai jaiio aurretik ta bai jaiio ondoren noiznai joaten etxe artara nola jokatu erakustera.

Etzitzayen ba eureen erruz galduko aurtxoa. Bosgarren illabetera elduta gero, etxeko danak sukaldean zeudela, nun jabetu zan ama, ba zula zeozer aurrak... Ango negar ta istilluak! Laister zan korputz aingerutxoa... Etzan bakarrik joan aingerutxoa, laister jarraitu zion amonak...

—Errukarriak benetan etxe artakuak, zioten kupituta gazteak.

—Benetan kupigarriak guraso ayek; berdin berdin galdu bai zitzayen bosgarrena ta seigarrena...

—Buruauste ederra izango zuan sendagiñak eriotz ayekin!

—Bai, Malen, sayatu zan benetan, bañan dana alperrik. Bostgarrena itotzen ari zala eldu zan sendagiña ta bereala iriki zion eztarria labanaz; bañan alaz ere ito egin zitzayon.

—Ez al zizkien aurrak Ebangelioak ateratzen?

—Ebangelioak? Ze ez ote zuten egin guraso ayek eureen aurren alde: mezak atera, kandela bedeinkatuak jarri, ebangelioak atera, promesak egin... ze ez Antoni...?

—Etzien Jaungoikuak estuasun ederra eman guraso oyeil

—Gurutz aundia, naski, Maria; bañan egun batean kendu zien gañetik gurutz ori.

—Nola aitona? Esan beigu aguro, gure biotzak lasatu ditezen.

—Ara ba Malen; egun batean azaldu omen zan erretorearengana emakume bat ta arrokeriz esan omen zion, berak il zitula etxe artako aurrak ta espero zuten zazpigarrena ere ilko zuala besteak bezelaxe.

—Bañan nola iltzen zitun aurrak iñork ikusi gabe?

—Sorgiña omen zan emakume ori, gazteak, ta ezin ikusi zitulako etxe ortakuak ari omen zitzayen aurrak iltzen. Ortarako euli baten biurtzen omen zan ta iñork ikusi gabe sartzen omen zan aurraren eztarrian ta ito egin azten omen zun.

—Ikaragarria da ori, aitona! —zioten gazteak izututa—Ez al zion apaizak asmo txar ori utzi azi?

—Alegiñak egin omen zitun erretoreak, asmo txar ori utzi azteko; bañan gogor omen zegoen bere setan emakumea ta jayoko zan aurra iltzeko asmotan alde egin omen zun erretore-etxetik.

—Il egin al zun zazpigarren aurra?

—Ez ba, Josepa; goguan artu bai zion emakumeari noiz ilko zien aurra, ta egun orretan erretorea bera joan omen zan aurra zaintzera. Aurraren gelan erretorea zegola, sartu omen zan sorgiña giltza zuloatik barrura, baita erretoreak eulia arrapatu ta eliz zapi baten artuta kutxa baten giltzapean gorde.

Andik egun batzuetara erriko alkate, juez ta sendagiña lagun zitula joan omen baserrira erretorea ta kutxa irikita, ilda azaldu omen bertan bere etxean izan zan emakumea, ta sorginkeritan zebillena.

Orra ba gazteak, gaiztakeriak zemazkin sorginkerira.

## MAXIATZALLEAK

Zergatik artzen zituzten, aitona, sorgiñak katu, bela ta putreen irudia ta ez txakur, zaldi ta beyarena? —galdetu zion Antonik arretaz.

—Askotan egon izandu naiz sorgin kontuak ausnartzen, ta uste det ez nabillela oker nere sumaketan.

—Ez da motela beorri ta azaldu bear digu arkitu dun zea.

—Ara ba, Josepa, konturatuko ziñaten zeok ere nolakoak diran katuak.

—Bai, aitona, ez dira oiek txakurren antzekoak: txakurrak leyalak dira; katuak, ordea, berekoyak.

—Ondo ari zera, Malen; katua da gure abereen artean berekoyena. Ez da iñoiz leyal izaten katua; egingo ditu bai imintzion batzuk, bañan beti jarraitzen du berekoi. Ukatu yozute katu leyalenari jatena, ta laister ekingo dio lapurretan.

—Gose izan gabe, aitona, kontuz ibilli bearra dago berarekin, arrai usaya usnatu ezkeru beintzat.

—Bai, Maria, arrayakin ez ezik, okelaren ere bai. Entzun dezute iñoiz leyal izan danik katua bere nagusiakin?. Milla aldiz entzun izan dugu danok, berriz, baita ikusi ere askotan zenbatañekua dan txakurraren leyaltasuna... zein ez da arritu nagusiaren alde txakurrak egindakuak entzutean?

Txakur asko izan dira nagusiaren illobi ondoan etzanda jan nai ezta il izan diranak.

—Ez luke berealakuan orrelakorik egingo gure katuak!

—Ez zuenak ta iñorenak ere, Antoni. Esker txarrekua da katuak labetuko ziñaten nola zaintzen dituan katuak jaki gozuak dauden bazterrak.

—Ernegazio ederrak ematen dizkigu beintzat guriak! Goserik ez ta ala ere puska gozoenak arrapatu egin bear!

—Ain biurria al da zuena Maria? Or dabil nere illoba Malen, txakurra bezela ezi nayeon katua; bai ez alperrik... katua beti katu...



Begiratu al diozute inoiz eizean nola jokutzen dan? Ze egiten dun sagu bat arrapatzen dunean?

—Baño, aitona, ez dakit ortik nora jo nai dezun?

—Ai Josepal; zu ere asi zera, Malen bezela zirika? Entzun paxaran ta gauz politikak entzungo dituzu. Eizean esaten nizuten lenago, oso maltzurra dala katua. Batzutan lo papera egiten du, naiz zulotik ateratzen ikusi sagua; baita jaten ere lasai utzi ere... ta jaten goxoenean ari danen sagua... salto egin ta botatzen dizkio atzaparrak.

Erruki eman oi izan didate oyen eskuetan erortzen diran sagu ta txoriak! Ilko balituzke bat batean; tira, gaitzerdil; bañan or ibilliko eurakin jolasean luzaro senperenak ikusi azten gaxoeri. Bein baño geyagotan bota izan diet eskutan neukana, ori ezin eramanik.

—Txorien errukia izatea beorrek, aitona, ez naiz arritzen; bañan saguena?...

—Baita saguena ere, Malen, ta ara zergatik. Gaiztuak zigorra merezi du ta sarritan baita eriotza bera ere bestienizat izan dedin exemplu. Bañan gaizto ta biurria izan dala, ta semperrenak ikusi azi ondoren noizbatean bizia kendu?; ori ez... Ori egiten dunak, biotz gogorra azaltzen du ta ba dira zoritxarrez orrelako kristauak...

—Sermoya al dugu, aitona?

—Sermoirik ez, Antoni; baizik ipui bat azaltzeko bearreko sarrera.

—Katuakin ze ikusia duna al da ba?

—Etzenuten jakin nai ba, Maria, zergatik artzen zuten askotan sorgiñak katu itxura?

—Bai ala zan, aitona, bañan aztuta geunden.

—Ba katuak bezin biotz gogor ta maltzurra dute, Josepa, kristau askok. Aztertu bestela oyen jokabideak. Zaintzen dituzten lagun urkoaren ibillerak: nora dijuan, zeñekin egon oi dan, zein ditun matenak, ze asmotan dabillen... ta abar... zeñek azaldu lezazke orrelakoaren maltzurkeri guziak?... Erruki det orrelakuak begitan artzen dun gizon edo emakumea... Ez da bera konturatuko, ta atetan dauka lagun papera egiñaz, pozik galduko luken etsai gaiztoa. Ai ene...Egun gorriak igaro aziko dizkiyo utzegiten batean arrapatzen badu...

—Aztu zayo, aitona, esan bear zigun ipuya!

—Ez, Malen, ez; etzait aztu; ipuya azaltzen ari natzaizue.

—Ez diogu ba guk inñundik ere ipui itxurarik artzen.

—Orain bai garbi antzemango diozute, Malen. Ara ba; gauero

sartzen zitzayon emakume bati sukaldean katu bat. Gorri nabarra omen zan; aundi ta begiratu bildurgarrikua. Su ondolan jazarri ta ez omen zitzayon miau-miaka ixiltzen.

—Sorgin bat al zan?

—Sorgiña kuantò, Josepa.

—Zertara joaten zitzayon katu itxuran?

—Baztarrak ikustera nunbait, Maria, urrengo egunean ze maxiatu izateko nunbait.

—Ze egiten zuan emakume orrek?

—Erabat izututa omen zegon, Antoni, katu orrekin izan ere ez omen zun alde egiten uxatu arren. Gauero gizona oyatu ondoren, ardatzean azten zanean sukaldean, or zetorkion katu bildurgarri ori barrura ta su baztarretik begira begira mau ta mau. Nola egin ardatzian ondo? Osasuna galtzen ari omen zan egunetik egunera emakume errukari ori...

—Ez al zion gizonari ezer esaten?

—Etzion gizonari ezer esaten, Malen. Bañan antzeman omen zion gizonak zeozer ba zula bere andreak ta dana aitortu azi omen zion andreari.

—Par egingo zun gizonak kontu oyek entzutean, ezta?

—Ez ba, Josepa; aintzat artu zun gizonak andreak ziona ta urrengo gabean bera geldituko zala sukaldian ardatzean, esan zion emazteari, bere jantziakin.

—Emaztearen jantziakin?

—Bai, Maria, urrengo gauan emaztea oyeratu ta bere jantziakin estali zun gizonak bere soña ta azkenik emaztearen buruko zapiaz estali burua, artu ardatza ta firi firi ekin su onduan ardatzean. Lais-ter azaldu omen zitzayon emaztearen gaueroko bisitalaria.

—Ze egin zun ordun gizonak?

—Ardatzian jarraitu lasai, Antoni, katuaren marru ta begiratu gogorrakin ikaratu gabe. Katuak, ordea, beriala antzeman omen zion etzala emaztea, ardatzean ari zana gizona baizik, ta ala esan omen zion: "Bizarra euki ta ardatzean"?

—Bai —erantzun omen zion gizonak— "Katua ta izketan"?

Bat batean zutiturik gizona, artu omen su-burni bat ta eundokoa eman omen zion buruan katuari ta leyotik bota omen zun kampora

katua ilda. Urrengo goizean arkitu omen zuten ilda auzoko emakume bat.

—Ori bukaera errukarria emakume orrenal

—Bai, Maria, errukarria benetan emakume orrena; bañan bukaera ori zegokion, lagun urkoari kalte egiteko sorginkerira jo zuan emakumeari. Goxo pama zeukan izan ere errian emakume orren mingañoak! Uzte al zion iñori pakean? Baztar guziak maxiatu bear...

Bai, geroztik ez omen zan len aña esamesik izaten erri artan...! ¿Ez al dute orrelakuak katuen antza?

## ANIMA MEZA ESKE

—Ba dirudi, aitona, beorrek ez dula sinisten animak azaltzen diranik. Ez du entzun an edo emen animan bat azaldu dala?

—Bai, Antoni, nik ere entzun izan ditut orrelako kontuak; bañan goguan daukat emen mixioak ematen ari zan kaputxinoari entzuna...

—Zer zion ba, aitona? Etzerala animak azaltzen?

—Etzuan orrelakorik esan, Malen; goguan eukitzeko Jesukristok esana: Lazaro beartzua ta Epulon aberatzaren ipuia azaldu zuanean.

—Ondo asko dakigu ipui ori, aitona; bañan ez det uste, or ezer esaten duanik gai onetzaz.

—Ez e Maria? Ez al zion ba Abrahami'i Epulon aberatzak eskatu, biala zezala Lazaro bere senideengana, bera nun zegon jakinaztera, erori ez zitezen eurak zuleitz artan?

—Izan ere alaxe dal aitona. Ori eskatu zion bere egarria ezin ase zitekela jakin ondoren...

—Ez al zion, Josepa, Abraham'ek erantzun, etzala bearrekoa Lazaro joatea bere senideengana, ori jakiteko; an zeuzkatela munduan ori erakusteko jarritako gizonak, ta oyen esana entzun nai ez pazuten, etziotela Lazarori ere entzungo?

—Ez da berdin, aitona, guk esan nai deguna. Badakigu ta sinisten dugu Jainkoaren izenean erakusten digutenen esana; bañan ez digute esaten, ez zein joan dan zerura ta ez zein inpernura; ez eta zein dagoan garbitokian estu ta larri gure laguntzaren zai. Ez al dizkio laguntza eske etorri litekenik orrelako anima bat?

—Bai, noski, Josepa, etorri liteke, Jainkoak baimena ematen ba diyo; bañan ez dizkiot ain errex Jaungoikuak baimen ori emango diyetenik.

—Ez al digu Kristau-Ikasbideak erakusten, lagundu egin bear diyegula, garbitokian dauden animai, gure otoitz ta egintza onaz?

—Aizu, Mari, esaten al du iñun Kristau-Ikasbideak animaren bat azalduko zaigunik?

—Ez, aitona; ez du esaten orrelakorik; bañan guk uste dugu, ez esanarren azalduko dirala bein baño geyagotan animak eureen sende edo lagunai.

—Auxe esango dizut, Josepa, aita arrek zion bezela: Ez dugula zai egon bear animai laguntzeko, an edo emen animan bat azaldu dala entzun arte. Badakigu ez dala iñor zeruan sartuko, zorrak ordaindu gabe; lagundu dezayegun zorretan dauden animai ta kito, ta ez dezagun kezkarik izan nortzuk dauden irten gabe jakiteko.

—Esango nuke ez diyela beorrek fede geyegi ematen, anima bat azaldu zayela esaten dutenai...

—Ezta eman bear ere, Antoni, ta izpide au dut orretarako: Jaungoikoak mirari bat egin gabe, ezin ikusi lezake iñork anima bat; Jaungoikuak, ordea, ez ditu izpide aundi bat gabe mirariak egiten.

—Ortaz zer dizkio, aitona, anima bat ikusi dutela dioten oyetzaz?

—Ze esan nezaket Maria? Ez dut uste beti gezurretan ari diratenik, baño bai ordea eureen irudipenak, etzegona ikusi dutela, sinistu azi diyela.

—Ene, aitona, oso zorrotz erabakitzen du auzia!

—Zorrotz ez, Malen; gizonki baizik; bestela nola burutu zenbaiteen esanakin? Ara: oraintxe datorkit burura, gau beltz batean gizon bati gertatua.

—Sorginkerin bat ziurki, aitona!

—Ez da ba sorginkeri bat, Josepa, baizikan egitan gertatua ta ari geran gayakin ze ikusi aundia duana:

Ba omen zijuan gizon au etxe aldera; gauerdia ondotoxoa igarota gero irten ere ostatutik. Illun omen zegoen benetan: illargirik ez ta iñun argi zinta bat ere ez; kontuz joan bear gizajuak oztoporik ez egiteko ta pausua emateko lurra makillaz astertu bear. Poliki beraz ta patxaran etxe aldera.

Ontan, ordea, an aurreaxeagotik ayuman bat sortu ote zan iruditu zitzayon. Jarri zan erne, zer izan ote zan jakin nairik. Etzuan ezertxo sumatzen illunpe artan. "Ba —esan zun berekiko— gautxorin baten garraxia izango uan" eta aurrera jarraitu omen zun lasai. Aurreraxego berriro entzun omen zuan lengo ayuma bera; bañan orain bizigo ta len baño gertuago zirudian...

—Au ikara! Ondoez bat egingo zitzaidan neri.

—Ari ez ba, Maria. "Ze arrayo da ori" esanaz berak aurrera ausati ta bide gurutzera iristean, ormaren babesean, persona baten lausoa ote zegoen iruditu omen zitzayon: zuri zuria lausoa burutik oñetaraño. Jaso makilla ta izutu gabe lauso orrengana zuzen zuzen. Samingarriak benetan lauso arren ayumak! —"Zer duzu?"— galdetu zion zorrotz urbilduta lausoari— Zein zaitugu? Zerta etorri zera ordu onetan?

—Ai ene! —erantzun omen zion lausoak —garbitokian nagon anima bat nauzu. Errukitu zaitez nintzaz, ta meza bat atera azi zazu nigatik, andik irten nadin".

—Aizu adiskidea: Dirurik ekarri al duzu? —galdetu omen zion lasai.

—Ez ba, lagun, an ez degu dirurik, oñazetik bai ugari.

—Barkatu, adiskidea; bañan dirurik gabe ez du ematen mezarik gure erretoreak, ta urrenguan dirua ekarri zazu.

—Etzeukan orretzek, aitona, gibel txarra!

—Bai, Melen; estutu bat eman nai izan zioten tabernako lagunak, bidera irtenda. Toki onean zeuden! Etzan orregatik estutu ta larrituko zan gizona Juan Prasku.

Guziok sayatu bear dugu Juan Praskuren antzekuak izaten gai oyetan ta ordun nekez lilluratuko gaitu gure irudipenak.

## NOLABAITEKO APUSTUA

- Gizon lasai asko ezagutu al ditu, aitona?
- Asko? Ez dakit ze esan; bada ikusi izan ditut estu larrialdietan, lasaiak ziruditen asko ta asko...
- Emakumeak baño gutxigo estutzen zeratela gizonaek, entzun izan degu beti; ala al da?
- Bai, emakumeak baño gutxigo estutzen gera gizonaek, Maria; izan ere ezer gutxi bear izaten dezute emakumeek estu ta larri jartzeko; bañan ba dira gizonaek ere zuen antzekoak ortan.
- Ortaz danok berdiñak, ezta ala, aitona?
- Berdiñak ez, Josepa. Alde ederra dago gizonetatik emakumetara bildur gayetan!
- Nik uste det gizonaek gutxi ausardituko dirala gauaz kanposantura joaten.
- Gutxi?, Antoni. Ez digu guri zuei añako bildurrik ematen leku orrek.
- Beorrek esan du esatekua! Ikusi izan ditut bildurrez aldean gizonaek leku orretara urbiltzean.
- Gazteen batzuek izango ziran, Maria. Ez dira ain gutxikin sasoko gizonak ikaratzten.
- Sasoikoak ez? Joango al litzake iñor leku orretara lo egitera?
- Leku ederra aukeratu dezu, Josepa, lo egiteko. Bañan ortxe lo egin bearo dugu danok azken juizioko eguna arte.
- Bizirik nor ausardituko da or gaua igarotzen?
- Ezagutu nuan ba nik zulo-egille bat, kanposantuko txabolan lo egiten zuana, udaran batez ere.
- Ez al zan, aitona. ikaratzten bertan lo egiten?
- Ez ba, Malem, pake ederrean lo egiten uzten omen zioten ta goizeko preskurakin egiten omen zituan lurra eman bear zietenentzat illobiak.
- Orrelakoren izan ezik, zein ausarditu...

—Ezagutu nuan ba nik beste bat zulo egillea etzana, bañan asko izuten etzana ta orrelako apustu bat egin zuana, Antoni.

—Ze apustu egin zuan ba?

—Begira, Josepa, indar aundia du ardoak ta makiña bat apustu egin azi ditu. Oyetako bat Perminek bere lagunakin egin zuana. Ari ziran sarritan bezela ardoz ondo berdindu ondoren, alkarri zirika ta sasaka, ezez ta bayez, eta guziak izututa utzi zitun enbidoa bota omen zien Perminek.

—Ze enbido bota zien ba Permin dalako orrek?

—Arkume bat jokatu zien, ezez iñor joan orduntxe kanposantura, ta buru ezurra ekarri ta bertatik ardoa edan.

—Ene Maria ta Josel Enbido ori bota? Kirten aundin bat izango zan Permin ori, aitona.

—Bai, gau ortan ixildu azi zitun Perminek tabernako lagunak, Malen.

—Etzan gutxigorako Perminen ateraldi ori. Izan al liteke orrelako kirtenkeria egin lezaken kristaua?

—Azaldu zan bat, Josepa, ori egiteko prest.

—Nor zan ori, aitona?

—Permin bera, Malen.

—Egitan? Prest al zegon Permin ori egiteko?

—Bai orixe, Maria, prest zegola Permin arkumea truke ori egiteko. Burutik kendu nai izan zioten asmo ori lagunak; bañan berean tink zegon Permin, ta trabiesa egin ta or abitu zan kanposantu aldera.

—Ori kirten ajolagabea!

—Bai, Antoni, ez det ezagutu beste bat Permin bezin ajolagaberik; ondo zetorkion bai "Terrible" jarri zioten ez izena.

Illargirik gabeko gaua gau ura; lanbroa goitik bera, lañoak arrastaka; ta alaz ere sasoi ta giro artan kanposantu aldera argirik gabe abitu lasai Permin. Eldu omen zan bertara, orma gañera igo ta salto barrura. Zuzenean ezur tokira, buru ezur egoki baten billa. An omen zebillen ezur tokiko ezurak jiratzen, bat batean asi zanen ayuma batzuk entzuten. Aurrenetik motel xamarra; urrena bizigoak; geroko, ordea, bertan bertan ba leude bezela egiñak...

—Ikaratuko zan ordun Permin?

—Ez ba, Josepa; buru ezur bat artu ta or igo omen zan orma gañera ayuma bizi oyek entzutean. Bañan orma gañetik ikusi zitun

bera zegon toki aldera etortzen ayumaka lauso zuri batzuk, eta ordun izutu zan erabat, eta eskutan zeukan buru ezurra bota pillara ta ormatik salto egin zun kanpora iztarrak austeko zorian, baita atxintxika bizian alde egin errira.

—Kirtenenak ere ikaratzen dirala orrelakoetan!

—Permin beintzat zearo izutu omen zan gau orretan, Maria, ta etzuan atzera begiratzeko kemenik izan. Or joan zan korrika itotzeko zorian errira. Alperrik deitzen omen zioten bere lagunak atzetik; ez omen zan gelditu, ez eta lagunen diadarrari jaramonik egin; ez omen zan gelditu, ostatuan bere burua ikusi arte. Ura izan omen zan parra egitea Perminen bizkarretik!

—Bere lagunak izan al ziran ba ayumaka ibilliak?

—Bere lagunak kuantu, Josepa; jabetu ziranean benetan zebillela Permin, aurrea artu ta izara zuritan estalita, inguratu ziran beregana ayumaka.

—Ori jokabidea! Ez al zun osasunik galdu Perminek estuasun orrekin?

—Ez, Malen, ardua edanaz pasa omen zitzayon estuasuna ta berak ere paregiten omen zuan lasai egia jakinda.

Adiskidetasun ederrean jan omen zuten urrengo gau batean arkuma errea ta solas bide ederra izan omen zuten, gau artako pasai-zuak oroitzea.

## KONTUZ IZUAKIN

—Zur egiñik gaude, aitona, beorri gauz oek entzunda!

—Banekin, Malen, arritu egingo zifiatela; bañan aditzera eman nai nizuen arreta aundiz ibilli bear degula gauz oyetan, eta orregatik azaldu dizkizuet ajolakabeen ateraldiak.

—Ez gera gu, ordea, oyen antzekoak eta bear dan bezela artzen ditugu beste munduko gauzak.

—Ondo egiten dezute, Josepa, orrela jokatzean; gauz oyetan, bada, Ama Elizaren esanera ibilli bear dugu.

—Ez al digu Berak an da emen animak azaldu dirala erakusten?

—Bai noski, Antoni; bañan etzerate jabetu oso gutxitan azaltzen dirala orrelako gertaerak eliz liburutan?

—Ez dituztelako danak liburuetan jartzen; bañan orregatik ezin esan dezakegu geyagotan ez dirala gertatu.

—Baliteke ala izatea, Maria, bañan, naiz ezta ere, datorkit burura mixiolariari entzuna: ez ditugula egizat artu bear gertaera oyek izpide aundi bat gabe.

—Zergatik ez diegu ba sinistu bear egia diyotenai?

—Ez dute gezurrik esaten, Josepa, bañan gertatu ez dana, egi bezela azaldu lezakete.

—Gertatu al liteke, aitona, orrelakorik norberak ikusi duan gauzaz?

—Orixe gertatu litekela ori, Maria, ta zuek uste dezuten baño geyagotan gertatu ere...

—Noiz gertatu liteke ori?

—Noiz diozu Josepa? Ara goguan daukat ze irriparez entzun zion gure erretoreak morroi bati gertatu zitzayona.

—Izango du orain ere, aitona, tabernako kontu bat!

—Ez ba, Malen, gure errian gertatua da orain dala urte asko.

—Ze gertatu zitzayon ba morroi orri?

—An geunden gizon batzuk apaizarekin izketan meza ondoren

zimiterioan. Ontan etorri zitzayon apaizari Garayaldeko morroya ta danon aurrean asi zitzayon esaten erretoreari, kezka aundi bat ematen zion gauza bat zula. Ori entzunda, danok agur esan eta geren etxeta abitzeko prestatzen asi giñan, biak bakarrik uzteko asmotan; bañan gelditzeko esan zigun morroyak eta orrela entzun genun berak ziona.

—Etzuan konpesioko gauzik izango, aitona?

—Bai, ordea, konpesiokin ze ikusia zuna. "Ara —zion morroyak— ikusi nuan lengo batean oso belar ederra zegoala kanposantuan eta beyak bazkatzeko ezin bear ainbat osaturik genbiltzan gurerean, ta belar billa joatea erabaki nuan gabean kanposantura".

—Joan ote zan gauean belar billa?

—Orixe joan zala belar billa gauean, eta xorta eder bat egiteko lain ebaki zuanean, asi omen zan entzuten zeozer ta doñu ura arretaz entzuten jarri zanean, onetzaz jabetu omen zan: baten bat ari zala an inguruan otoitzean, Josepa, edo orrelako zeozertan, bada negar ta sotiñen artean garbi entzun omen zun "Erregutu gugatik", ixillunea ondoren; berriro negarra ta urrena "Graziaz betea"...

—Ze egin zun morroyak?

—Erabat izututa, Maria, morroi gizajoa, utzi ber bertan ebakitako belarra, ta alde egin omen zun andikan, otoitz ta negarrez ari zan ura, animan bat izango zalako bildurrez.

—Zer zion apaizak ori entzutean morroyari?

—Ez dizuet esan, Antonio, irriparrez entzuten zegokiola erretorea? Ala esan zion bukatu zunean morroyari: "Baño, gizona, etzendun ikaratu bear, baizikan ondo begiratu, nor zan jakiteko ordu artan an otoitzean ari zana".

—Ba ote zekian erretoreak zein joaten zan ordu artan otoitz egitera?

—Ez, Josepa, etzekian erretoreak iñor joaten zanik ere ordu artan otoitz egitera. Bañan morroyak ziona entzunda, erabaki zun jakin bear zutela, nor zan garai artan kanposantura zijoana otoitz egitera eta bera ta eliz inguruko gizon bat zelatan egoten ziran gauero.

—Garbitasunik atera al zuten?

—Bai, Malen, urrengo ostiral gauean, antxe arkitu omen zuten ate aurrean emakume bat otoitzean. Senarrari agindu omen zion il zorian zegola, iltzen zan ordu ta egunakin joango zitzayola kanposan-

tura lagun egitera, ta orrela joaten omen zitzayon ostiralero, il zan orduan senar zanari otoitzaz laguntzera.

—Etzun ba oso ordu egokia kanposantura joateko otoitz egitera!

—Ez noski, Maria, bañan ori agindu omen zion senar zanari ta berak zintzo zintzo betetzen agindua.

—Jakin al zuan ori morroyak?

—Ezin sinistu omen zuan gizajokak, Josepa, erretoreak esan zionean: etzala ildako bat, Etxeberriko alarguna baizik.

Jabetzen zerate orain gazteak, nola gezurrik gabe, artu lezaken batek egitzat eztana? Gauz bat izan ta beste bat zala uste ta ziur ziur gañera...

—Izan ere orrelako izuaz bat nastu liteke.

—Orregatik esaten nizuen, Antoni, arretaz miatu bear degula, izuarik tartean ote zan; bada izuak erabat nastu lezake bat, ta ez dana sinistu azi.

Ez ba errex pensatu beste munduko bat dabilela tartean.

## GAU BELTZ BATEAN

—Ez da orratik, aitona, ori askotan gertatukol

—Zuek uste dezuten baño geyagotan, Josepa; bai emakume ta bai gizonezkoai, ta baita sarritan kakalari euren buruak ikusi ere.

—Ba al daki orrelako beste pasaizon bat?

—Parregurea datorkit nere lagunai gertatua oroitu utzaz... Malen.

—Ain irrigarria izan al zan ba beorren lagunai gertatua?

—Lasai ja, jai... egon ziran arratzalde artan ostatuan; bañan gero etxera bidean estuasun ederra igaro bear izan zuten...

—Esango al digu beingoan, aitona, ze izan zuten?

—Kontu zale ikaragarriak biurtu zerate, Maria, ta ikusten det esan arte ez didazutela pakerik emango...

—Ixillik euki besterik etzeukan, esan nai ez pazun!

—Orra ba, Antoni, joan ziran nere Asteasuko lagun batzuek besperan ondoren ostatura, ta arratzaldekoa egin ondoren, musean ekin, ta antxe enbido ta ordago arratzaldea igaro ederki. Ezin ba abitu etxera apaldu gabe ta gero berriro, kontu zar batzuk berriro ondoren, musean ekin ta goizaldera azkenean etxera abitu... Laurak ballara batekoak ziran ta anaitasun ederrean jarraitu zuten patxaran etxetara.

—Egitan gertatua al da esatera dijoakiguna?

—Euren aotik entzuna dezute, Josepa. Ba omen zijoazten lasai asko etxe aldera ta kanpusantu ingurutik igarotzean estuasun ederra igaro bearra izan omen zuten.

—Zergatik kanposantu aldetik joan ziran?

—Kanpusantu ondolik zijoalako euren ballarako bidea, Maria. Ez omen zuten ura aurreneko aldia, ordu artan andikan igarotzen zutena; sarritan igaro izan omen ziran goizaldera bertatik eta sekulan ez omen zuten kezka ta bildurrik sortu azteko ezer izan, ta gau onetan ere lasai omen zijoazten...

—Ze izan zuten ba ikaratzeko?

Ayumak entzuten asi zirala bat batean, orrax... Josepa, kanpusantura urbiltzen asi ziranean. Ber bertan planto egin ta laurak gel-ditu omen ziran alkarri galdezka: Entzun dezute? Zer ote zan? Nor ote zan? Antxe omen zeuden laurak zalantzan ze egin etzekitela... berriro lengo ayumak, bañan orain bizigc, indartzugo... Ezurretaraño-ko sartu omen zitzaizen ikara ta dardaraz omen zeuden laurak. Ixildu omen ziran ayuma ta aurrera abitzeko garayan, berriro ayumak...

—Ze egin zuten ordun, aitona?

—Ze egin zuten? Ara, Malen: "Emen etzegok gauz onik"-zian batek. Besteak erantzun. "Obe genikek kalera itzuli". "Bai, baño ze esan bear dik jendeak?"-bestiak. Ta antxe zeuden lauck bidean geldik.

Aizkenean orratik aurrera joatea erabaki omen zuten alkarri elduta, bañan abitu aurretik Aitaren egin ta iru aitagure esan zuten biotz biotzetik... Ez omen zuten jolasa izan kanpusantu parera iris-tea... izan ere ala zioten ondorenean, gau artako pasaizoa azaltzean, "aixago emango omen zituztela lau pausu atzera, bat aurrera baño". Indar aundia omen dik ardoak, etzian, orratik aundirik guk iruntzitako ardoak, eta poliki eanak giñukan, antxe geunden bidean zutik erabat motelduta, oñak jasotzeko kemenik gabe iztarretan. Izardi patzetan iritxi giñukan kanpusantuaren ate parera...

—Ezer ikusi al zuten?

—Benetan gau illuna uraxe omen zan ta beti bezela argirik gabe zijoazten: pozik artuko omen zuten ordun lastargi bat. Ate parean, ordea, persona baten lauso beltza sumatu omen zuten, ta urratzak aditzean nunbait ausilio eske asi omen zan indartzu ta atearen barrai bi eskuz elduta omen zegoan.

—Animan bat al zan?

—Bai, Josepa, anima bat zan, bañan oraindik mundu onetan bi zi zana.

—Ze egiten zuan ateari elduta?

—Ori ikusteko, Maria, pospolo bat piztu omen zuten, ta atearen barra artean burua sartuta zeukala ikusi omen zuten gizajo arrek ta etzuala ateratzen asmatzen.

—Lasatuko ziran ordun, noski, ayumaren iturria nor zan ikusital

—Orduntxe lasatu omen ziran ba, Malen eta pospoloen argitan

lagundu omen zioten burua ateratzen barra artetik. Aren poza burua atera zuean! Arretzek biotz biotzetik eskerrak eman ere! "Ba zekizu —esan omen zioten— zenbaterano izutu azi gaituzun zure ayuma oyekin. Beste munduko baten baten ayumak ziralakuan geunden gu".

—Ezagunen bat al zuten?

—Bai ba, Josepa, an eskean sarritan izaten omen zuten agure bat omen zan, ta esan zenez otoitz egiteko edo sartu omen zun atearen barra artean burua, ta gero ezin atera inolaz ere. Ala omen zion etziola bere etsai aundiñari ere berak igaro zitun bezelako estuasunik opa. Eurakin eraman omen zuten agurea ta ostatu eman.

—Parra egingo zuten gero?

—Etxera bidean ez omen zuten parrik egin, ezin naita ere bereala bere onera etorri. Ondoren bai lagun artean parra lasai egiten zuten gau artako ibillera azaltzean, eta badakizute aytako batek zer zion?

—Ze esaten zuan ba?

—Ez nian uste ain gauz utzaz orrela ikaratuko nintzanik eta ez diat nere bizi guzian orrelako estuasunik igaro. Bai zion —Malen— arro putz oyetako bat jarriko nian gau artan gure lekuan ta gu bezela kakalarri jarri bayez apustu.

—Ez da arritzekua orrelakoan edozein ikaratzeal

—Ala da, Josepa, ta orregatik esaten nizuen len, geyo gabe ez degula egitzat artu bear esaten digutena, ta ondo begiratu bear degula, izuak nastu ote zezaken ori dion laguna.

Jabetzen zerate nola nastutzen dituan izuak gizon kementzuak ziranak, eta ez dienak ikusi azten dizkiyen? edo sinistu azi?

## GAIZTOEN ONTZEA

—Nola uste dezu, Malen, ondu litekela gaiztoa dana?

—Guraso edo lagun esanak utzi aziko diotela bide txarra.

—Ez dituzu gajo orrek ondo ezagutzen orrelakoak... ez da ez arritzekua, gaztea zera ta ori urtekin ikasten da.

—Ez al dute ba inoren esanik entzun nai izaten gaiztoak?

—Ara Miren, maite dituzte geyegi euren buruak ta azkarraguak dirala uste gañetikoak baño; orregatik ez dute aintzat artu nai izaten inoren esanik, ez guraso ez eta lagunena ere...

—Ez al dago ortaz gaiztoak zuzentzeko biderik?

—Bai, Malen, lagun urkoarenganako errukia.

—Ene! Nola zuzendu azi lezake orrelako lagun-urkoarenganako errukiak?

—Ara: eder izten dute euren jokabidea, ta Goikoaren argi berezi bat bear, euren gaiztakeriaz jabetu ta uzteko. Ez diote argi ori eskatzen Jaunari... Gaizto aundiñak ere izan lezeke lagun urkoarenganako errukia ta sarritan izan oi du onentzat edo beste ayentzat, eta ordañetan Jainkoak eskatzen ez dion argi berezi ori eman izan oi dio, Malen.

—Orrelako gertaeraren berri ba al daki, aitona?

—Bai, Antoni, orrelako gertaera asko ageri dira ipuyetan.

—Azaldu bear digu ipui oyetako bat.

—Belarri ernai, Josepa, ebazle aundi batena dijoakizute. Etzan ba mutil txarra besteren lepotik bizitzeko! Orretzek lasai par egiten besteei... Zaintzen omen zituan besteren ondasunak ederki, ta jabeen zabarkerien zai bera gauz oyetzaz jabetzeko. Lur ta sail aundien jabe ez izan arren, ez omen zeguan bere etxean euren paltarik, ta ederki baño ederkigo bizi ere.

Orren matrikulak! Bizkorra zan gizona ebazketan! Zenbat aldiz ekarri ote zun Naporrotik naiko gari ezer ordaindu gabe! Baita artzayak txaboletan ontzen zeuzkaten gaztak artu eta eraman, ta urrea



an edo emen saldu! Etzuten goserik ikusten bere etxeko beyak, leun ta guriak azaldu oi ziran beti; izan ere iñun ba zegon ekarriko zien gauaz arek sortaka ederrak.

—Ez al zuten iñoiz ebazketan zebillela arrapatzen?

—Ez ba Maria; oso azkarra zan ta ijitoen era jokaten zun eta auzoan lapurtu bearrean, urrutirago jotzen zun.

—Utzi al zun bide txar ori?

—Gauz on bat ba zun lapur orrek: oso errukitzua zala beartzuakin. Etzuan iñoiz esku-utzik biali ate ondolik eskale bat; sarritan, berriz, aparria ez ezik aterpea ere eman oi zien, baita soñeko zarpa zarrak kendu azi ta txukunaguak jantzi azi. Orregatik nunbait ikutu zion biotza Jainkoak ta ebazketako oitura ori utzi azi.

—Nola ikutu zion biotza, Aitona?

—Ba omen zan erri artan nekazari on bat: etxealdi eder ta azien da ikusgarriaren jabe zona. Ba zun ordea, akatz bat: amar urte esposatu zala, bañan aurrik ez.

—Naiko naigabe izango zun ortaz, aitona.

Bai, Josepa; elizkoya zan bera eta elizkoya emaztea ere, orregatik etzaitzte arritu, esaten ba dizutet eguneroko ogia ainbat eskatzen ziotela biak ala biak aur bat Jaunari. Noizbait artu zien aintzat eskabidea, eta eman zien aurra. Aurraren batayo bazkaritarako zikiro eder bat azten ari ziran, ta nagusi Jaunak aña, arreta artzen zuten zikiro ori ondo gobernatzan etxe artako morroyak.

Jayo zitzayon aurra ta semea bera: laister bidali zien bere ta emaztearen aldekoai deyak batayorako. Igandean meza nagusiaren ondoren batayoa.

Sarritan ikusi oi zuan larrean zikiro eder ori gure lapurrak, baita sumatzen jardun nola eramán zezakean bere etxera iñor jabetu gabe.

Orrela ba ostiral arratzaldean, sartu kontuz etxe artako ukulluan iñor jabetu gabe, lotara joanak ziran etxeoak, eta kortara joanik badakizute, gazteak, zein arkitu zun zikiro ondoan?

—Morroyen bat?

—Ez, Maria, ez; deabrua bera omen zegon parrez parre zikirioari begira. Ta ala omen zion deabru maltzurak —“Pozik zeudek etxe on-takoak seme bat izan dutelako; ez ditek asko uste ni emen naionik ta zertara etorri naizenik”.

—Zertara etorri zera ba zu? —galdegin omen zion deabruari.

—Esango diat ba: Laister asiko duk aurra arrosoinka ta iñork ez pa zioke “Doministikun” esaten ta astintzen; irugarrenez “atxiz” egi-tean itoko duk aurra batayatu gabe ta neonekin eramango diat in-pernura”.

Ori esanaz alde egin omen zun goi aldera deabru biurriak.

—Ze egin zuan orduan ebazleak?

—An omen zeguan zikirioaren onduan zalantzán, ez bai zion aurrarenganako errukiak, zikirioa artu ta alde egiten uzten. Ontan, ordea, “atxiz” egin omen zun aurrak indartzu goyan bere pare parean ta etzan iñor konturatu, gurasoak lo nunbait...

Larri zegoan orain ebazle aundi ori ukulluan, nola jokatu etzeki-lla. Andik puskatera berriro aurra arrosoinka larri; etxeoak ez konturatzan, ordea. Ordun errukiak eraginda, bere indar guziaz diadar egin omen zun etxeko danak esnatu azteko eran: “DOMINISTIKUM”, baita ukullutik jabetu zalapartaka zebiltzatela orain gelan gurasoak...

—Zikirioarekin alde egingo zuan bitartean?

—Ez ba, Antoni, zikirioa bertan utzita, alde egin omen zuan esku utsik etxera ta bein betiko utzi omen zun oitura txar ori.

Orra ba, gazteak, lagun urkoarenganako errukiari esker, iritxi zun Jaunagandik bere gaizakeria ezagutu ta utzi azi zioten argi ta indarrak.

**IV**  
**DANETAKOAK**

## ASTOA TA ASTRONOMOAK

—Lengoan irakurri nuan, aitona, laister jakingo degula ziurki aurretik ze eguraldi giroak egingo dituan eta ez omen ditugu geyago orain arteko buruausteak izango gai orretan.

—Nun irakurri duzu ori, Malen? Ta nola antzeman gizonak aurretik ziur ze eguraldiak egingo dituan?

—Ara ba, aitona, ari dira bialtzen, lurraren inguruan biraka eten gabe ibilliko diran, gizonak sumatutako, izarbelak. Oyek barruan omen damazkite lur gañeko aize ta lañoen goraberek ikusi, neurtu ta aditzera emango dizkiguten irratia ta urrunbegiak. Orrela jakingo omen degu garaiz gora bera guziak.

—Baliteke, Malen, diozun bezela gertatzea; bañan nai ezta ere burura datorkit antziñako ipui bat.

—Izango du orain ere zelebrekerin bat; bañan etzait iruditzen, aitona, ze ikusi aundirik izango duanik oraingo sumaketa berri onekin.

—Ez dakit ori, Malen, bañan erakutzi aundikoa duzu ipui aundirik. Entzun: Bildu omen ziran bein, Sarako landetxe batean, lau edo bost abèrritako eguraldi gayetan jakintzuenak ziran gizonak.

Ao zabalik egon oi omen ziran inguruetako nekazariak, jakintzuak ekarri zituzten tresnai begira. Izan ere baserri orren gaikaldean zegoen zelaitxuan antolatuta omen zituzten tresna oyek ta zelaitxo orretan igartzen omen zituzten jakintzuak egunak eta gauak zeru aldera begira.

—Ze asmotan bildu ziran ordun Sarako landetxe orretan?

—Egun gutxi barru illunduko omen zan bat batean eguzkia egunaz, bera ta gure artean illargia jarriko zalako, Malen, eta zelaitxo artatik justu justu ikusiko omen zan erabat illunduta eguzkia.

—Eklise osoa edo illuntze osoa, beraz, aitona.

—Bai orrelako zeozer, Malen, ta eldu omen zan ba aian biziki opazuten eguna, ta goizean goiz an bildu omen ziran zelaitxo artan ja-

kintzun danak Uste bezela esandako orduan illundu omen zan erabat eguzkia, baita olloak kotatu, ta kortara abitu larreko abereak; bañan argitzen asi omen zan eguzkia berriro, ta eureen neurketak pozik egin ondoren bazkaitera joan omen ziran alai jakintzuak, landetxe artan bertan omen zuten bazkaria.

Bazkaltzen ari zirala, artutako neurritatik kontuak ateraz, erabaki omen zuten ze urte sasoya egingo zun urte artan.

Or arratzaldeko laurak aldera jetxi omen zan bera jakintzu oyetako bat bere eginbearrak egitera ta orduntxe omen zijoa etxeoandrea atarira ontzi aundi bat zemakilla.

—Nora zoaz emakumea ontzi orrekin?

—Euri jasa egitera dijoa laister ta ontzia jartzera nijoa itutu parran.

—Euri jasa? Ja jail! Ez dugu aurtengo udaran euri jasarik izango; aurtun legortea izango dugu. Ori garbi ikusi dugu gaurko eguzkia illundu ta argitzeko jokaeran, eta ortan iritzi berdiñekoak izan gerra jakintzu danak.

—Bai zera? Legortea ortaz aurtun?

—Bai emakumea; alperrik jarriko dituzu ontziak itutuan, ez zaizkitzu beinguan beteko aurtengo udaran.

—Baliteke zuek diozuten bezela izatea; bañan nik beste aldera gertatuko dala uste det.

—Bañan, emakumea, zer diozu: beste aldera? Ze izpide daukezu oker gaudela uste izateko?

—Ara ba Jauna; nik ukulluan daukagun astoari begiratuta, konturatzen naiz noiz euri jasa egingo dun.

—Astoari begiratuta? Oraindik aundiguak entzun bearke ditugul...Ixillik egon zaite, emakumea, erokeririk esateke. Nola jakin lezake astoak guk baño geyago?

—Ara, Jauna; ni auxe esango diyot: gure asto zarra asten danen plisti plasta belarriaz aldamenak astintzen, laister sortzen dala euri jasa, ta gaur aspaldiko partez, lan ortan ikusi dut gure asto zarra.

Beok noski asko jakingo dute; bañan gure asto zarrak ez du inoiz ortan utzegin, eta etzait iruditzen gaur utzegino duanik ta ni ontziak jartzera noa itutun.

—A ze parrak egin bearren geran zure bizkarretik!

—A Jauna; ori gero ikusiko dugu: nork nori par egiten dion.

—An joan ziran jakintzua lagunetara ta emakumea ontziak itutun jartzera. Bitartean an jarraitzen zun belarriak astintzen astuak ikulluan ta aspaldian ez bezela astindu ere. Ba zirudian jabetu zala etxeoandre ta jakintzuaren arteko eletaz, ta etxeoandreari indarra ematen ari zala.

—Euri jasarik sortu al zun aitona?

—Bostak aldera berebiziko aize zurrunbilloa sortu zun bat batean ta ondoren laño mordo beltzak ta txuriak pillan. Itxura txarra bat batean eguraldiak ta larri asko joan ziran jakintzuak landetzeko zelaitxon zeuzkaten tresnak biltzera. Tresna guziak bildu ta babesera ekarri baño len, ekin zion tximits ta trumoi nasi euri jasa bildurgarri oyetakoa.

Ao zabalik jakintzuak, uste gabeko euri jas arrek arrapatu zituztanean.

Ala esan omen zien jakintzu ayetako bere lagunai: Alde egin dezagun lenbailen geren aberrita; Pranziko asto onek guk baño geyago zekik eguraldi giro gayetan.

## KARGAK JASOTZEN

—Beti izan degu euskaldunak indarrak neurtzeko zaletasuna; ezta oraingoxekoa zaletasun au. Jainkoak bakarrik daki zenbat orrelako sayo egin ote diran euskaldun artean.

—Beorrek ere, aitona, ondo al derizkio jokaera orrei? Ba da beti an edo emen deman bat, arriak jasotzen dala, korrika dala, aizkoran, arriak arrastaka eraman... Zertan ez? Zenbatek, berriz, dema oyetan txanponak jokatzen!

—Alde txarretik begiratzen diyezu, Malen, dema oyei: diru alde-tik alajaña! Jokuko griña dunak, ez du jotzen dema oyetara indar edo abilidadeak ikustera, dirua jokatu ta irabaztera. Orrelakuak demarik ez danean ere sumatuko du dirua jokatze bidea, izan ere jokatu bearra izaten du ta ez du onik diru jokatu ta arriskuan ikusi arte edo kartetan edo txapetan edo beste zeozertan...

Demak ikustera dijoazten geyenak ez dira dirua jokatzer joaten; gizonen indar ta trebetasunak ikustera joaten dira ta oyen pozu lan bikain bat ikusitakoan... Izaten dute ondoren jardun gozoa ikusitako aztertzen lagunen artean.

—Bai ori ala izango da, aitona, bañan zenbatek ez dituzten kaskarreko ederrak artzen dema oyetan!

—Aspaldiko esana da, Malen, dema ez dala errenta ta ori denak begien aurrean euki bear lukete ta arta ez genuke iñoiz kaskarrekorik artuko dirua jokatuta.

—Izan al da iñoiz kaskarrekorik gabeko deman bat?

—Orixe izan dirala, Malen bein baño geyotan. Dema ondoren alkarrekin pitxarra bat ardo edan edo apari bat egin ta len bezin lagun jarraitu, eta dirurik aitatu ere ez. Azalduko nizuke orrelako dema polit bat, Malen.

—Pozik entzungo diot, aitona.

—Ni gaztea nintzala bizi zan erri txiki baten, Ameriketara izandako euskaldun jator bat. Ura gizon puska! Luzea benetan, bañan

zabalean ere etzan makala; ikustekoak, berriz, aren beso, istar ta sabel aldean. Emango zion zapaldu ederra oetzari etzaten zanean! Bañan gutxi bera bezin alai ta lagunartekoa.

—Dema zalea al zan ori ere, aitona?

—Nola ez ba euskaldun izanda. Ara: joan omen zan arratzalde batean perratokira bere mando gañean, eta ain sendo ta astuna izan arren, arin asko jetxi omen zan mandotik. An omen zegon aurrea arturik manduak perrazten mandazai bat.

Asi omen ziran izketan alkarrekin amerikanoa ta mandazaya, ta sarritan gerta oi dana euskaldunen artean, gerta omen zan bien artean. Aundi ustekoa nunbait mandazaña, ta goratzen omen zitun galanki bere buru ta indarrak; besteak, berriz, ezin eraman ainbesteko arrokeria. Ari omen zan mandazaña, errokaka, etzegola iñor berak bezela kargak jasotzen zitunik arin ta txukun; bai etzala iñor azalduko, berak bezin aguro ta txukun jasoko zunik zortzi arrobako zaku mando gañera.

Aspertu zan nunbait amerikanoa erronka oyek entzuten, ta bat batean esan omen zion mandazañari:

—Aizu adiskidea: ez pensa besteak erren ta mainguak diratenik; besteak ba dituzte eureen indar ta trebetasun.

—Nik aña duanik zakuak jasotzen, ez didazu aurrean jarriko.

—Ez e?; ara ba: neonek jokatuko dizut, zeñek lenago jaso karga berdiña geroon mandota.

—Zuk neri jokatu? Nai dezunean, gizona. Mando bat, ezez nik baño lenago jaso zortzi arrobako bi zaku mando gañera.

—Ba dioa.

—Bereala abitu ziran biak manduak artuta errota. Etziran biak bakarrik joan, perratzallea ta an egokitu ziranak zituzten lagun. Bete zituzten zakuak zortziña arropa jarriaz zaku bakoitzean, eta eraman zituzten zakuak mandoen ondora.

Errotaria zuten epaikari ta galdegin zien dana gertu jarri ondoren: "Gertu al zerate lanean asteko? —Bai —erantzun zioten biak —Ortaz —esan zien errotariak— Nik txalo jotzen detanean ekin kargak jasotzen".

Jo zien txaloe errotariak eta eldu zion bizkor mandazañak lenda-biziko zakuari ta ederki baño ederkigo jazo zuan mando gañera. Bitartean irriparez begira amerikanoa, zakuari eltzeko asmorik gabe.

Ori ikustean esan zion mandazañak: "Zer atzera egiten al duzu orain? —Ez dezu oraindik irabazi, erantzun zion serio serio amerikanoak.

Eldu zion mandazañak bigarren zakuari, ta mandoari, berriz, amerikanoak esku bakarrak, ta bat batean mando gañera igoaz, goitik diadar mandazañari: "Orral zuk baño lenago jaso ditut amasei arropa mando gañera.

Parrez ekin zuten guziak amerikanoaren ateraldiaz; baita mandazañak ere ta ezin jaso bigarren zakua, ain arin igotzen ikusita mando gañera amasei arropa baño geyago zan amerikanoa.

Anaitasun ederrean par da algara artean, pitxarra bat arno edanaz mandazañaren kontura, amaitu zan apustua.

Ori bai andik aurrera kontuz ibiltzen ikasi zuan mandazañak amerikanoari esker.

## MANDAZAÑA TA ESTUDIANTEAK

—Mutil onak azaltzen dira, Malen, gure ipuyetan estudiantek!

—Zer ba, aitona, orrelako deabrukeriak egiten al zituzten?

—Deabrukeriak? Orixek ba deabrukeriak sumatu ta egin! Etziran makalak irtengo eureen ikastaroan, egintza oyetan bezela sayatu izan ba ziran eureen ikasketan.

—Azaldu bear dit pazaizo oyetako bat.

—Entzun ba, Malen. Ba omen zetorren Iruñatik mandazain bat aberiak atzetik zitula. Ikusi omen zuten, atzalde pasa Iruña alboko erri batera joan ziran iru estudiantek, ta mandazaña ikusi orduko, bere bizkarretik arratzalde on bat egiteko asmua artu zuten, baita sumatu ori lortzeko bidea. Orretarako bide ondoko sasi atzean gorde ziran bi ta irugarrena bidera irten ta zuriketean ekin zion.

—Eztago munduan mandazaña bezin ederki bizi danik, asi zitzayon irugarren estudiante au. Jan da edan iñork ez bezela egiten duzute zuek ta denbora gutxi barru aberastu. Izan ere bi sosean betetzen dituzute arrañaz zuen mandoak Giputxan, eta urre truk saldu Iruñan arrayak. Onutzakuan, berriz, Erriberako ardo gozoaz zamatu mandoak, eta nork daki zenbatean ematen diyozuten edari eder ori Giputxai. Bapo baliatzen zerate ango arrai ta emengo ardoaz... Ez dago zuek bezelako gizon argirik! —Ba... ba... ez da ainbeste guk irabazten deguna, gizona. Ez det esango gaizki bizi geratenik; ez beintzat zuk diozun bezin ongi.

—Ez ote dakit nik zure berri...! bein baño geyagotan ikusi zaitut zure mandoakin Iruñan. Ondo goguan daukat: berri artan mando bakarra zenun eta ez izugarri oyetako bat. Laister trukatu zenun mando ura ta gaur bost mando zein zein baño ederraguak dakazkizu zurekin.

—Gauz aundirik ezin ba egin mando bakar ta kaskarrak ta mando onak erosi bearrean arkitu nintzan.

—Etzenitun erosiko, irabazirik izan ez pa zenu...

Irriparrez zijoan mandazaña estudiantearen zuriketak entzunaz. Bitartean beste bi estudianteak sasi atzetik irtenda, ebatzi zioten bosgarren mandoa. Eraman mandoa sasi ostera, zamak kendu, ta askatu zizkioten kabestro ta txalmak. Jarri zuan estudiante oyetako bat kabestroa bere buruan eta artutik txalmak bizkarrean, bidera irten ta laugarren mandoari lotu zion bere burua

—Ez al zan mandazaña jabetu mando bat ebatzi ziotenik?

—Zoraturik zijoan mandazaña estudiantearen berriketak entzunaz ta etzuan luzaro atzera begiratu. Entzuten zituan mando perra ta txintxarrien doñuak ta lasai jarraitzen zun aurrera, estudianteak alde eginda gero, berari entzunaz ao gozaten. Noizbait begiratu atzekaldera, ta etzuan bosgarren mandorik ikusten. Joan zan atzera, ta zur mur gelditu zan, mandoaren lekuan gizon bat zetorrela ikustean, mandoaren kabestro ta txalmakin.

—Arranapola! Zer duk au? Nun dituzu nere mando ta bere zama?-galdetu zion mandazañak.

—Neu nazu zure mandoa, erantzun omen zion gisasemeak.

—Zu nere mandua?

—Bai; ara ba, orain dira bost urte oker aundi bat egin nuana, ta aitortzera joan nintzanean, bost urte igaroko nitula esan zidan aitortleak mando biurturik ta bost urte igaro ditut mando bezela. Gaur bete zaizkit esandako urteak, ta bat batean gizon biurtu naiz berriro.

—Nik, berriz, jakin ez zu gizona ziñanik, ta sarritan zama geyegi jarrita pensu gutxitxo emango nizun. Barkatuko al didazu ori dana?

—Bai gizona; pozik asko barkatzen dizut ori dana, nere burua gizon bezela ikustean.

Askatu omen zizkion kabestro ta txalmak mandazañak, ta zato bat ardo ogi eder bat ta lukainka bat emanaz, oso adiskide agurtu omen zuten alkar.

—Erremienta ederrak zirala estudiante oyek, aitona!

—Egun ederrak igaro omen zituzten estudiante oyek mandazañaren bizkarretik. Etziran or amaitu mandazañaren goraberak. Iritxi omen zan gaberdia baño len etxera, ta beriala eraso zion demandan emazteak:

—Nun dezu, gizona, bosgarren mandua? Jokuan galduko zenun segurki mandorik onena lotzagabe orrek...!

—Bazenekizu guzia... ze esango zenuke?

—Esango al diazu beingoan ze egin diozun?

—Ze egin diodan? Kabestro ta txalmak kendu, ta bere kasa joaten utzi.

—Erotu egin al zera, gizona?

—Ze egitea nai zendun ba, bost urten mando biurturik ibilli dan gizon bati? Egin zuan oker baten zigorra omen zun bost urteko mandotza...

—Zur eginda uzten nazi, gizona... Okerraren orde bost urte mando biurturik... Orain jabetzen naiz zergatik iruditzen zitzaidan dotoretzua mando izateko... Jesus Jesus... ez bai nuan ura bezelako mandorik beste ifiun ikusten. Aizu: eskatu al diozu trato txar guziak barkatzeko?

—Bai, andrea, bai ta oso adiskide agurtu dugu alkar, ta biderako ogia, lukainka, sato bat arno ta dukat bat eman diot.

—Gaitzerdi onean bukatu ba dezu berekikoa.

—Or bukatuko da, noski, ipuya, aitona.

—Bai zera, Malen, politagua du amaya.

Tapallara joan bearra izan omen zuan mandazain orrek andik laister. Azoka eguna izaki, ta bere eginbearrak bete ondoren, azokara joan omen zan. Badakizu, Malen, zein arkitu zuan azokan?

—Zein aitona? Estudiantea!

—Gizon biurtu zan mandoa.

—Bai zera!

—Bai emakumea, ta azokan ikusi orduko ezagutu omen zun bere mandoa izandakoa. Ondora joan omen zitzayon, ta bizkarrean igurtziz, ala esan omen zion maiteki belarrira: Zer... beste okerren bat egin al duzu?

Ontan inguratu omen zitzayon saltzallea ta ala esan omen zion:

—Saltzeko daukat; modu onean emango dizut.

—Ez... ez... aspalditik ezagutzen dut mando au ta ez daukat bere bearrik.

## AMEN

—Gezurra dirudi, Malen, orain azaltzera nijoan ipuya, bañan egizkoa da gertaera polit au.

—Gaur ere deman bat al du, aitona?

—Ez da gaurkoa dema kontua, sakristau bati gertatua baizik.

—Gaur arte ez du sakristauen konturik aitatu. Zein ote da sakristau orren maratilla?

—Makiña bat ipui atera diete gure artean sakristauei, eta sarritan gizontxoak ageri dira oyetan.

—Nolako gizona ageri da gaurkoan? Biurrin bat?

—Ez ez, Malen, biurria ez; bildurri xamarra.

—Etzan ba sakristau ori ildakoak ikusita ikaratuko.

—Aurrea artu ta sumatu nai gertaera zure betiko joera, Malen; bañan ziur nago etzenukela inñolaz ere asmatuko.

—Ortaz esan beit len bailen gertatua ta lasatuko da nere irudipena.

—Ara ba, Malen: joan zan arratzalde onetan bestetan bezela Abe Maritakoak jotzera. Jo zitun ezkillak eta elizako atea itxi baño len, erdi illunpetan zegon elizari begiratu bat eman zion eta etzuan inñor sumatu barruan; bañan alaz ere bada ezpada diadar egin zun: Inñor ba al dago elizan?, ezerren erantzunik etzala oartuta, itxi egin zitun elizako atea eta etxera joan apaltzera.

Etzan, ordea, Antonio konturatu, elizan bere aurretik aker bat sartu zala ta an preso gelditu zanik.

—Nola sartu zan aker ori elizan?

—Ziurki elizako atea zabalik egongo zan auntz taldea errira jetxi zutenean, eta orrela sartuko zan barrura akerra. Barruan preso utzi zula akerra, Antonio sakristauea etzan konturatu.

—Baztarrak nastuko zitun akerrak!

—Bai, etzan orrentzat egiten eliza, ta dirudinez or ibilliko zan batera ta bestera eliz barruan, eta etzuan nunbait etxeko aska janari

goxoaz betea arkitu, eta ate aldera etorrira, adarka ekin zun itxita zegon ateari.

Etxe aldera zijoazten bi emakume elizkoi, ta eliz ondotik igaro bear zutelako, Jaunari agur bat egin bear ziotela-ta itxita zegon atearaño urbildu ziran.

Etzuten ordea bisita bukatzeko betarik izan, bada bat batean barruan preso zegon akerrak, ate ondoko emakumeen boza entzutean, ekin zion adarka biziki ateari. Erabat izututa alde egin zuten bi emakumeak ate ondotik.

—Ze ote unan elizako atea ausi nai zituna?— zion batek.

—Baten bat geldituko unan barruan preso, bestiak erantzun.

—Ago ixillik, erokeririk esan gabe; orrela izan balitz, ate ondoan sumatu gaitunen, diadar egingo zigunan atea irikitzeke ta ez asi dan bezela kolpeka asi atea austeko zorian.

—Bai ondo dion. Zein ote den ordea? Parte gaiztokon bat? Deabrua?

—Nik al zekiñat ba? Auskalo zein dan!

—Ze egingo diñagu? Joango ote gaitun aditzera ematera erretoarengana?

—Goazemazin zuzenean erretoarengana.

Or joan ziran estu ta larri bi emakumeak erretoretzera ta atean deitu zuten. Irten zitzayen neskatxa ta sekulako jarduna ekin zuten iru andrekoak, baita larri joan neskatxa nagusiaren billa.

—Zer dezute emakumeak-zion erretoreak-orrelako iskanbilla sortzeko?

—Ai Jauna! Ez dago gauz onik elizan; deabrua ibilliko da, noski, baztarrak ondatzen.

—Zaudete ixillik orrelakorik esan gabe.

—Erabat izututa etorri gera beorengana, ateari ematen zizkion dunbatakoak entzunda.

—Esango al didazute beingoan ze entzun dezuten?

—An asi zitzaizkion bi emakumeak gertatua aditzera eman nayeon, bañan alkarri itza kentzen zioten, ta berebiziko nasketa sortu azi. Nasketa ori argitu nayeon, ekiten zun urrena albotik erretorearen neskatxak izketan. —Bai bai-zioten irurak-deabrua ibilliko da elizan ta obe du D Migel konjuro egitera bereala joatea elizara.

—Orra ba ekarri zion neskatxak rokete ta estola bat, baita konju-



ruak egiteko liburuak, ta jantzi zanean, artu zituzten emakumeak kandelak bedeinkatuak ta sakristauari deitzeko, elizako atea iriki dezan, onen etxera joan ziran.

Deitu zuten sakristauaren etxean, irten zan sukaldeko leyora sakristaua, ze bear zuten galdezka. An zitun iru andrekoak gertaeran berri ematen, baita barrura sartu ayek ziotena entzun orduko, ta eskutan giltzak zitula berriro azaldu leyora:

—Torizute giltzak ta iriki zeok elizako atea, erantzun zien sakristauak —Ez, Antonio, ez; zeorrek etorri bear duzu atea iriki ta neri konjuro egiten laguntzera.

—Ene Jauna! Berebiziko izua diot deabruari, ta ez det esan bear detana esaten asmatuko.

—Baño, gizona! eguneroko erantzunak dituzu ta konjuroaren bukaeran Amen orixe da guzia.

—Ortarako nere bearrik ez du; nik bezin ongi erantzungo diote emakume oyek, eta ain elizkoi izanda, nik esanda baño indar geyago izango dute.

—Atoz zeorri, Antonio, edo bestela biar bertatik utzi bearko duzu sakristautza ta etxea libratu.

—Ez bedi asarratu, Jauna; joango natzayo giltzakin.

Noizbatean azaldu zan sakristaua, ta prozezioan zijoaiztela letanik bukatu ta deabruaren kontrako konjuroa egiñaz erretorea, emakume ayetako batek argi egiten ziola bere kandelaz eta eliz atean berebiziko indarrez esaten zun oioitza ta dardaraz ba zan ere erantzuten nolabait sakristauak.

Etzan orratik barrukoa baretzen; gero ta dunbatako aundiguak atera azten zizkion ateari.

—Iriki zazu Antoni atea, esan zion erretoreak.

Dardaraz urbildu zan ateraño sakristaua ta etzuan giltza sartzen asmatzen. Noizbaitean asmatu zun ta bat batean atea iriki zun.

Ordun gertatu zana, zeñek pensa? Atea irikita ikusi zuanean, itxumustuan irten zan akerra, sakristaua lurrera bota, ta parean zeukan erretorea jaso aidean, ta igesi abitu akerra, gañean zeramala erretorea, adarretan katiatu bai zitzazkion aren jantziak. Zalaparta onetan itzali zitun emakumeen kandelak ta danak illunpetan. Ura izan zan iskanbilla an sortu zana!

—Lagun eidak, Antonio, ba nematziak deabruak-zion estu erretoreak.

—“AMEN” erantzun zion bere indar guziaz sakristauak.

—Zertan amaitu zan pesta ori?

—Aurreaxeago lurrean ikusi zula erretoreak bere burua.

—Lagunduko zion, noski, sakristauak erretoreari?

—Bai zera! Atxintxika alde egin zula sakristauak etxera, aidian zemakilla ikusita erretorea ta barruan sartu zan larri.

Ayenaka ari ziran emakumeak lagundu ziotela erretoreari lurretik altxatzen.

## ESTUDIANTEEN MALTZURKERIAK

Kontuz ibilli bearra zegon, beorrek dionez, aitona, garai bateko estudianteekin, bestela larrutuko zuten bat ederki.

—Orixo bai kontuz ibilli bearra zegola oyekin; ez bai zuten sarritan dirurik sakelan, ta iñoren bizkarretik jateko edo edateko beti gertu.

—Azaldu bear dit orrelako ipui bat.

—Askotan bezela egun txarrak igarotzen ari omen ziran, Malen, iru estudiante, ta gerrikuak estutu bear ederki; izan ere ez baizien etxeoandreak goserik kentzeko moduko otordurik jartzen, Aurreko bi illabeteko otorduak zor zizkioten, ta etzien diru usairik nabaitzen.

—Mutillak-zion ayetako batek-gaizki bizi gaituk orrela: dirurik ez ta beinguan izateko itxurarik ez. Zeozer sumatu bearko diagu etxeoandrea adiskidetu ta gosez ez iltzeko.

—Bai ondo diok-erantzun zioten besteak-ezin jarraitu litekek orrela. Zeozer egin bearko diagu gerrikoak lasatzeko.

—Ara ba-aurrenekoak zion-nik ekarriko diat ardoz beteta aspaldian etxeo-andreak ate atzean utsik daukan zaragia. Zuetako batek ekarri dezala aragitik ugari: bei, txekor, ardi edo txerrikitik izan, ekarri egun batzuetako okela; Irugarrenak berriz, ogi pillla bat. Sayatu gaitezen egun batzuetarako jakia ekartzen. Goazemazik lanera ta buruz jokatu, adiskideak.

—A ze iru, aitona, ¡Zeukatenean etzituzten kontuak aterako, ta orain iñoren bizkarretik bizi nail!

—Bai, ori ala da, Malen; bañan kezkarik gabe jo irurak gauz billa. Artu omen zuan aurrenekoak aspaldian ardorik ikusi etzuan zagia, ta emparantzako iturrira joan ta udaz bete omen zuan. Urrena bizkarrean artu ta ardandegira zuzenen. Bizkarretik jetxi ta esan zion nagusiari: Ara Jauna, eldu danen ta zagiakin bialdu nau, ardo ohea emateko alegia ta emen etorri naiz goizean zuek eramandako zagiak.

—Bueno-erantzun zien ardandegi jabeak-utzi zazu or zagi au ta emayozu beste oietatik, ez det uste ardo orri muxin egingo dionik.

Bai, beste bat izan balitz ez nion ez, zagirik trukatu; bañan on zait zuen nagusiakin ondo egotea.

Esandako zagietatik artu zuan bat estuadianteak ta arin asko alde egin zuan ardandegitik. Bai zagia bizkarrean eramaten ikusi bear! Aizez betea egon balitz etzuan errexago eramango, ainbestekoa zan pozak ematen zion indarra.

Okel billa irten zan bigarrena. Orretzek zeramakian buruaste ederra: nola ta nundik? Zeñengana jo? Ze aitzaki sumatu? Illun sumatzen zun bere burua kalez kale zebillela.

Deabruk dirudi jarri azi ziola aurrean opa zuan, bada etzita zi-joala kaletan aurrera, nun ikusten dun basarritar bat datorrela atzetik ardi gizen bat sokatik dakarrela. Orduntxe argitu zan bere burua: aurrean zeukan bear zun okela.

—Aizu adiskide: saltzeko asmotan al dakartzu ardi ori?

—Bai, asmo ortan dakart.

—Ordu onean etorri zera; oraintxe etzita neguan, ez nuala nagusiaren agindua beteko, izan ere ardi gizen bat eroatera bidali nau ta ez nuan iñun itxurazko ardi bat ikusten, zorionean, orratik, azaldu zera zu zure ardi eder orrekin. Zenbatean emango dezu?

—Bi dukat bear ditut.

—Askotxo ez ote da ardi orrentzat? bizkarretik eldu ta ardia ja-soaz, dukat terdi ordainduko dizu nere nagusiak. Zer diozu?

Aizkenean dukat terdian konpondu ziran, ta nagusiaren etxe aldera abitu ziran estudiante, basarritarra, ta ardia. Eliz baten ondora eldu ziran ta esan zion baserritarrari: Apaiz bat da nere nagusia, ta orain elizan egongo da, ta itxoegin zazu emen nik berari tratoreen berrri eman arte. Sartu omen zan elizara estudiante ta an ikusi omen zun korupeko aitortegi batean, gisatzar utza zan apaiz bat ta beregana zuzenean jo zuan:

—Ai beza Jauna: Laister etorriko zayo aitortzera iñotxu samar dan basarritar bat ta baliteke beriala ekitea diru kontukin.

—Etorri dedilla nai duanean, ta laister zuzenduko ditugu bere diru kontuak.

Kalora irtenik auxe esan zion artzayari: Zeorri joateko esan dik ardi dirua jasotzera. Korupeko aitortegian arkituko duzu.

Eldu zion ardiari sokatik ta elizara sartu zan jabea. Joan omen

zan baserritarra korupera ta inguratu zan aitortegira, baita aguro esan apaizak erre xamar zutik jarraitzen zula ikusiaz:

—Jarri zaitetz belauniko ta esazu. "Ni pekataria".

—Ez nator aitortzera, zure morroyari saldu diodan ardiaren diru billa.

—Ze morroi ta ze ardi esaten ari zera, gizona? Nik ez daukat morroyarik ta nik ez diot inñori ardirik erosteko agindu.

—Nor zan ba nere aurretik beorrekkin izketan egon dan gazte ori?

—Ai demontrel! Esango nuke ebatzi dizula gazte orrek ardia. Zoaz aguro, gizona, zure ardiakin izkutatu baño len.

—Ikusi al zuan geyago estudiante orri, aitona?

—Etzun inñun ez estudiante ta ez ardiaren aztarnarik arkitu; ta ez diru ta ez ardi gelditu zan gizajoa.

—Apaju ona estudiante oril

—Entzun orain, Malen, irugarrenaren jokabidea. Okiñaren etxera jo zun zuzen zunean, ta saku aundi bat zabalduaz sei librako otanak eskatu zizkion Antonio Beltzaren baso mutillentzat. Ogei bat ogi ekarri zizkion okiñak ta beste lau geyo sartu zitun. Antoniok berarekin konpoduko zerala esan du, ta bizkarren zakua artuta lasai alde egin omen zun okiñaren etxetik.

—Ordaindu al zizkion Antonio Beltzak okiñari ogiak?

—Ze ordainduko zizkion! Etzuala berak inñor bidali ogi billa, ta obetogo begiratzeko zeñi ze ematen zion.

—Bañan, aitona, ezerren kezka gabe jan ta edan ote zuten orrela bildua?

—Bost ajola oyeil Aspaldiko gosea kendu zuten beintzat, eta inñoren bizkarretik egun ederrak igarotzen ari ziran. Etxekoandreak ere bekozkoa argitu zuan ainbat jaki etxean ikusita. Pozik ziran iru lagunak!

Gero gerokuak: ordun beintzat ederki bizi ziran.

## TIBI

—Ezer gutxik galdu azten digu sarritan daukagun zoriona, Malen. Astartzen ba dugu nola sartu dan zoritzarra etxe orretan, edo zergatik dauden asarre orain, beti adiskide ezagutu ditugunak, utza zala ezbear ori ekarri diona. Auxe garbi ageri da gaur azalduko dizudan ipuyan.

—Ze ipui ote du, aitona, orrelako erakutzi sakona dakarkia?

—Erri bateko erretore ta sakristau artean gertatua. Gutxitan ikusten dan bezin alkartasuna omen zegoen bien artean. Gizon zintzo ta leyala sakristau ori; orretzek bai berea bezela artu erretorearen izen ona; egitan sayatzen apaizaren laguntzaille izaten, ez elizan bakarrik, baita kanpuan ere. Egitan bigarren apaizatza jo ziteken sakristaua, arreta guziaz alegintzen bai zan, bai umeak elizan ixillik euki azten, baita gazte ta gañetikoa erretoreak ziona bete azten.

Txit estimatzen zun erretoreak bere sakristau leyala ta lagunik zintzoentzat zeukan bera. Etzuan erretoreak erabaki bat artzen, sakristauaren iritzia entzun gabe; biak bat zerala esan zitekean.

—Ainbestekoa al zan, aitona, bien arteko alkartasuna?

—Orixe zala aundia bien arteko alkartasuna. Pensa: igandero bazkaltzen zuten alkarrekin erretore etxean, eta igandez gañera, beste edozein jai edo illetak zituztenean, albo erriko apaizakin batera mayean jarri azten zun sakristaua.

—Benetan maite zula erretoreak sakristaua, aitona.

—Bai benetan maite zuten alkar. Entzutekoa omen zan bien arteko jardun leun ta gozoa bazkaltzen ari zerala. Sakristauari ematen omen zizkion erretoreak puska goxoena baita ardo ederra ere. Bazkariaren bukaeran beste oi omen zitun erretoreak. Bien edanontziak eta eskutan artu, altxa ta alkarren osasunerako eskeñiaz, edaten omen zuten eta auxe esan oi zun beti erretoreak: "TIBI".

Ikustekoa omen zan zeñen pozik altxatzen ziran biak maitik Bezerperatara joateko ta zeñen gozo alkarri begiratzen zioten.

—Adiskidetasun ederrean bizi zirala oyetxek, aitona.

—Bai, ala zan, Malen; bat batean deseindu zan, ordea, zorigaiz-toko egun batean...

—Ze gertatu zitzayen ba adiskidetasun eder ori austeko?

—Biotza kupitzen zait, Malen, zerk gutxik adiskidetasun eder ori ausi zuan gogoratzean...

—Azalduko al dit, aitona, ze gertatu zitzayen?

—Ara ba, Malen; bialdu omen zun erretoreak bere sakristaua albiste bat ematera beste erri bateko erretorearengana. Eldu omen zan erri orretara ta zuzenean joan omen zan erretore etxera albistea ematera. Etzion etxera itzultzen utzi bazkaldu gabe, ta berarekin batera bazkaldu bear izan zun. An ari omen zitzayon zirika andik edo emendik sakristauari erretorea, bere erriko erretorearen akatzak atera azi nairik sakristauari. Ez alperrik ixillik gorde omen zituan sakristauak bere erretorearen akatzak eta ez omen zun besteak gozatu sakristauaren mar marrak entzunda. Ura leyaltasuna!

Ordun jabetu omen zan erri ortako erretorea benetan maite zutela alkar beste erriko erretore ta sakristauak.

Bukaeran bete omen zitun bien edanontziak ardo ederraz ta edanontziak batera altxatuz "Zure osasunerako" esanaz eskeñi omen zion.

—Enel —zion arrituta sakristauak— gureak ez du orrela eskeintzen.

—Nola eskeñi oi dizu zuenak?

—Gureak? Arek beti "TIBI" esaten du.

—Bai zera! Ezta egia izango "TIBI" esaten dizunik?

—Bai, TIBI esan oi du beti, ta ez zuk diozun bezela "Zure osasunerako".

—Ezin liteken gauza da ori; estimatzen zaitun bezela estimatuta, ezin esan lezake ori, irriparez ari zan.

—"TIBI" esan oi du beti. Zergatik ez du ba orrela eskeñi bear?

—Etzayolako orrelakorik esaten lagun bati —par egin nayeon sakristauaren lepotik.

—Zer ba? Zatarikeriren bat esaten al dit? —larri sakristaua.

—Zatarikeria? —irriparez solasean ari baizan erretorea— Nola aditzera emango nizuke itz orren esanaya?

—Esan zazu, esan itz orrek esan nai duna —gero ta estugo sakristau gizajoa.

—Itz ori erabilli oi da zatarkeri guziak gizon bati esateko. Euskerak dauzkan itz itxusi guziak aña indar dauka itz orrek.

Sumindu zan erabat sakristaua ori entzunda; bitartean parra lasai egiten zun erretore biurri orrek, beste erriko sakristauari ziri ederra sartu ziolako.

—Ori abelera erretore orrenal! Ez al zan jabetzen, aitona, solas ortatik sortu ziteken okerraz?

—Ezta bururatu ere okerrik sortu zitekenik ortik, Malen.

—Zer gertatu zan ondoren?

—Gertatu bear zuna. Etxerakoan ez zion erretoreak solas bat zanik esan "TIBI" orretzaz esan ziona, ta kezkatzu zijoan gure sakristau ori bidean. Pensa ta pensa zijoan erretore onek esan zionaretzaz, ta pozoya bezela pixkanaka sartzen zijoakion biotzeraño. Ai enel Lagun aundizat jotzen zun bere erretorea ta benetan maite zula ta orrax tontotzat artuaz zatarkeri guziak jalkitzen zizkion noiz nai itz orrekin zurikeri gaiztonaz. Ez al da ori beltzekeru gogorra? Nork pensa orrelakoa zanik bere erretorea?

Ain biotz gaiztokoa ote zan? Gezurra zirudin; bañan, ez: ala izango zan bai; bestela etzion beste erriko erretoreak esan ziona esango.

Erabat minberatu zitzayon biotza. Erria urbillago ta bere oñak motelago ta bere burua errukarriago jotzen. Bat batean deseindu zan bere zoriona ta andik aurrera kopetillun ageri zan sakristaua.

—Ez al zion ezertxo esan bere erretoreari?

—Etzun biotzik izan ezer esateko, ta kopetillun ihilli zan egun ayetan, ta kopetillun joan zan bazkaltzera erretore etxera.

—Ez al zion erretoreak igarri, aitona, zezer ba zula sakristauak?

—Ikusi zun kopetillun egun ayetan, mayan ere berdin, bañan etzion galdetu zer zun. Etzan egun artako bazkaria oso alaya izan: kopetillun sakristaua bai, ez etzun bestetan bezela itz egiten; etzutenba bestetan bezela jardun gozorik egin. Bukaeran beti bezela bete zitun erretoreak bien edanontziak ta bestetan bezela artu zituzten edanontziak, ta sakristauak eskutan zeukan edanontziari ikutu legun bat egiñaz, eskeñi zion ardoa, beti bezela begiratu maiteki bategaz ta esan zion goxoki: "TIBI".

Gozoa jarri zan orduntxe sakristaua! Su ta gar bota zun lurrera edanontzia ardo ta guzi ta maitik altxaturik, begietatik sua zeriola esan zion erretoreari:

—Ez neri "TIBI" esan... "TIBI" zuuri... "TIBI" zure gurasoi... "TIBI" zure aide guziaz... "TIBI" zure gauz guziaz... "TIBI" ta kaka ta urdekeri guziak zuretzat... munduko zerri aundi ta zuriña...

Ber bertan alde egin omen zun zalapartaka jangelatik, ta atean itzuli ta oyu batean esan zion: Agur ta beste sakristau bat billatu.

Zur mur gelditu omen zan erretorea: "Erotu egin ote zait nere sakristaua? Orra, Malen, nola deseindu zuan apaiz arren solasak, ordurarteko adiskidetasun ta zorion eder ural

## ALPER AUNDI

—Lenguan sakristau batena zun; gaur zeñena degu, aitona?

—Gaur, Malen, alper baten goraberak azalduko dizkitzut.

—Entzutekoak izango dira, noski.

—Ez pensa lanari eltzeko asmorik zeukanik. Ala izan balitz etzioten bere erritarrak jarri zioten ezizena "Alper Aundi" jarri izango. Alperkeriari emanda jan zitun gurasoak utzitako ondasunak, ta mutil zartuta, ilko zan gosez errukitu izan ez ba lira beretzaz erritarrak, eta txandaka jaten eman izan ez bazioten.

—Bañan aitona, orrelako alperrik izan ote da?

—Izango zan, noski, bestela ez gendun ipui au izango.

—Txandaka ematen ziotela jaten esan dizut, Malen, bere erritarrak; bañan ain esker gaiztokoa azaltzer. omen zan danakin "Alper Aundi", esaten ari ziran etziotela askok ta askok jaten emango euren txanda etortzen zanean.

Ordun alkateak bildu azi omen zitun etxe buruak errietxean, ta ikaragarriak esaten zituzten askok ta askok "Alper Aundi" orrei jaten emateko erabaki orretzaz.

—Ez pa diogu, orain arte bezela-zion alkateak-txandaka jaten ematen il egingo zaigu "Alper Aundi".

—Il dedilla ta pakea.—erantzun zuten geyenak.

—Jaunak, il arte penatzen eukiko al degu Alper Aundi, jaten eman gabe? galdegin zien alkateak-Ez ote genuke obetogo jokatu, il arte gosez penatzen euki gabe, beriala lurperatzea?

—Ederki esana, alkate Jauna; lurperatu dezagun beriala.

—Bañan aitona, biotzik izango al zuten bizirik lurperatzeko "Alper Aundi"?

—Ortik jabetu, Malen, nola aspertu zitun Alper Aundik erritarrak bere alperkeri, ezker gaizto ta iñori ezertan ez laguntzeko seta gaiztoaz. Alper Aundi entzuten zegoen Erriko Etxean bere aurka erritarrak ziotena; bañan bost ajola berari.

Zerraldo bat ekarri azi zuan alkateak ta bertan etzan zan luze luze Alper Aundi ta lau lagunen artean zeramakiten elizara, urrengo goizean lurperatzeko asmoan.

Arritu zan amonaxo bat, il kanpayik gabe zeramatela ikusita ta nor zan galdetu omen zien:

—Ez da korputz oraindik; bañan korputz dala egizu kontu. Alper Aundi damakigu lurperatzera, ez geyago jaten ematea erabaki baita.

—Ene Jesus! Nik beintzat emango diot orain bertan anega bat gari, ta etzazute lurperatu bizirik.

—Aizu Mañasi: ogitan emango al diazu anega gari ori?

—Nik garia emango dizut; zure egitekoa da ogitan biurtzea.

—Ortaz adiskideak eramán nazazute lurperatzera, esanaz, etzan omen zan berriro luze zerraldoan.

—Ondo jarria zeukan ezizenal! Ez nai alajañetan ogia egin azteko ardura artu nai. Bizirik lurperatu al zuten aizkenean?

—Elizara eramán zuten, ta antxen utzi zuten usarioa zan bezela lau kandelan erdian. Bestetan korputz inguruan igarotzen zuten gaua aidek ta etxeokak. Alper Aundiaren inguruan etzan iñor gelditu; ori bai kandelak ixiotuta utzi zituzten.

—Ez al zan Alper Aundi ikaratzen elizan bakarrik egoten?

—Bost ajola arri bakarrik egon zerraldoan edo bizirik lurperatu, berdín zitzayon; lanik etzion, beintzat, iñork egin aziko.

—Orrek ausiko zituán alperran marka guziak!

—Orretzek ba ausi marka guziak! Ta ortxe jarraitzen zun zerraldon luze luze etzanda zuzien argiaren erdian, lanik egin nai etzulako.

Elizako ateak irikita zeuden, ta gau erdi aldera sartu ziran barrura lapurrak, ildakoa bakarrik zegola ikusita ta ildakoaren ajola gabe, eseri an inguruan, ta asi ziran egun ayetan bildutako diruak eureen artean banatzen.

An currean zeukaten korputz arrek oldozmen au ekarri zion burra ayetako bati ta ala escan omen zien beste lapurrak:

—Nik lapurtu bai; bañan iñori bizia kendu ez; nik ez nitek orretarako kemenik izango.

—Bizia kendu ez? —erantzun omen zion lapur lagunak— Nik edozeñi bizia kenduko niokek.

—Jainkoak emana duk, ordea, bizia.

—Bost ajola neri, ta korputz oni sudurra moztuko diodan bezin errex, edozeñeri bizia kendu.

Ori esanaz altxa omen zan bere eseilekutik, ta labana zorrotza eskuan zula, inguratu omen zan zerraldoko korputzari, sudurra mozteko asmoan. Ikaratu omen zan Alper Aundi ta oyu egiñaz altxa omen zan zerraldoan. Baita ildakoa zala uste zutena, bizirik altxatzen zala ikusita, izutu omen ziran lapur ayek ta dana bertan utzita igesi joan omen ziran.

Ordun Alper Aundik bildu omen zitun lapurrak utzitako diru ta pitxiak ta orduntxe akitu omen ziran bere kezka guziak. An zeukan bere eskutan mauka ederra ta zeekin ordaindu bere zor guzik ta lastai lanik egin gabe bizitzeko bear aña. Ala omen zion bere pozaren erdian:

—Orain ordainduko diot Patxi Beltzari amabots errialak; Pello errotariari kendu nizkion berrogei errealak, Gorriñeko Joseri berrogei errealak, Mendizabalekoari ogei dukatak; Ostatuko Joani eun errealak.

Itzuli omen ziran andik piskatera lapurrak eureen diru ta gauzan billa, bañan kanpotik entzuten omen zioten Alper Aundiri ogei, berrogei, eun, ta gañetiko kontuak eta erriko jendea an bilduta egongo zala pensatu omen zuten ta buru makur alde egin omen zuten esku-tzik andik.

—Alper Aundik suertea, aitona!

—Bai, urrengo goizean joan ziranean elizara Alper Aundi lurperatzeko asmotan, kandelak itzalita, ta zerraldoa utsik arkitu omen zuten. Urrena nun ikusi zuten Alper Aundi bati ta besteri aspaldiko zorrak ordaintzen.

—Zer zioten erritarrak ainbeste dirun jabe Alper Aundi ikusita?

—Danak zur eginda zeuden; ikusten zuten sosa erruz zebilkillita ta ederki baño ederkigo zaintzen zuala bere burua, ta zintzo ordaintzen zula ostatuko kontua. Baita esku zabala azaltzen asi omen zala berari ainbeste lagundu zioten erritarrakin, ta bein jarri zioten ezizena aintzaz arturik golperik jo gabe bizi omen zan.

Bañan iñork ez omen zuan jakin nundik nola aberastu zan erriko Alper Aundi ori.

Eriotzako orduan azaldu omen zien bere kutunai, batez ere zerraldoan elizari eramán zutenai, ze mesede aundia egin zioten elizara eramanda, ta gau artako pasaizua.

## DOISTUKO SAKRISTAU

—Esan nizun beste bein, Malen, ipui asko ditugula, sakistauen goraberak azaltzen dizkigutenak, eta oyetako bat entzungo duzu gaur.

—Beste sakristau arena bezin polita al da gaurkoa?

—Nere iritziz bai.

—Nungo sakristaua zan gaurko ori?

—Doistukoa.

—Nun dago erri ori, aitona?

—Ez da erri bat, ballara bat baizik. Deba ta Motriko artean dago mendian. Eliz txiki bat dago ballara ortan, apaizarik ez da bizi bertan; len lenago jai aunditan joaten omen zan apaiz bat meza ematera.

—Apaizik ez ta sakristaua bai? Ez al da arritzekoa ori, aitona?

—Ez da ba arritzekoa, Malen. Berak zaintzen omen zun elizatzkoa, ta beti txukun ta garbi euki oi omen zuan. Baita zintxo asko ezkillia jo egunero goiz, eguardi ta arratzean. Elizatzkoaren babesean zegoen etxetxoan bizi omen zan.

—Txukuna zan dionez sakristau ori, aitona, ta ez gizonezko asko bezela zabarra.

—Etzan zabarra ez Doistuko sakristaua; bañan ba zun bere akatza: ardozalea izatea. Ez omen zun, ordea, ardoak gaiztotzen; ardo puska bat edanarren, gizon leyal ta maitagarria jarraitzen omen zun.

—Geyenak ba gaiztotzen ditu zurrutak, aitona.

—Bai ala gerta oi da askorekin; bañan ez Doistuko sakristauaz. Etzuan izan ere egunero zurrutean egiten.

—Ba dirudi, aitona, beorren begitako gizona zala Doistuko sakristaua ori?

—Nork maite ez, Doistuko sakristaua bezelako gizon bat, Malen? Edaten omen zun bai ardo geitxo batzutan; bañan ordun ere biotz onekoa azaltzen omen zan guziakin eta ordun egiten omen zitun itzaldi ederrenak.

—Ixillik egon bedi aitona. Ze itzaldiak egin zezazken sakristau orrek?, Eskolatua al zan?

—Eskolarik etzeukan ez, Malen; bañan alaz ere gutxik bezelako itzaldiak egiten omen zituan.

—Ori nola liteke, ikasten ibilli gabe itzaldiak egiten jakitea?

—Ara Malen, berezkua izaten du bersolariak bersolari izatea. Eskolan ibilli gabe izan liteke, baita irakurtzen ta idazten ez dakiña, ta alaz ere ze berso ederrak botatzen ditun. Izan ere ume umetatik zekarkian bersotako joera, ta iñori entzundako bersoak gogoan artu ta sarritan abesten ditu, baita doñu orretan berak bersoak sumatzen sayatu bakarka; urrena lagun artean bersotan ekin. Zenbat bersolari berri sortzen ari diran aizkeneko urte oetan baztar guzietan, ta ez txarrak! Nik uste det, Basarriri irratiz entzundako bersoak piztu azi dutela asko ta askoren biotzetan zaletasun ori.

—Eta nola ikasi zun, aitona, Doistuko sakristau orrek itzaldiak egiten?

—Nola ikasiko zuan; guk askotan egiten ez deguna, egiñaz: arretaz entzun ta goguan artu itzaldiak. Aparta omen zan Doistuko sakristaua apaizak ballaran egiten zizkien, edo Motriko edo Deban entzunezko itzaldiak goguan artzen. Jai arratzaldetan, berriz, arratzaldean ezkillia jota biltzen omen ziran ballarakoak ta errosarioa esan ondoren, goizean Eliznagusian entzundako itzaldia, botatzen omen zien. Arrituta entzuten omen zioten danak sakristauari.

—Arrigarria zan ikusten danez sakristau ori, aitona.

—Benetan arrigarria, Malen; zan bezin argi ta azkar izan arren buruz, gizonik apal ta leyalena zalako. Orregatik maite zuten bai auzo ta bai inguruetakoak.

—Ezaguna al zan ba inguruetan Doistuko sakristaua?

—Bai, Malen, ba zitun lagun ugari bai Motriku ta bai Deban. Ba zekiten ardo zalea zala ta guztiak eskeñi oi zioten ardoa, ta ardoaren ordañetan berebiziko itzaldiak egin oi omen zizkien. Baita entzuleak elizan baño arreta geyagoz entzun berari.

—Parra egingo zuten orratik bere bizkarretik, aitona?

—Parra egin?; ez, ez... esan dizut elizan baño arreta goyagorekin entzuten zituztela bere itzaldiak, ta ain egoki egiten zun, sarritan bukatzen zanean, beajundeikela goratzen zuten danak.

—Ez al zan arrotzen ainbat zorion ta txaloz?

—Gizonik apalena izaki, Malen, Doistuko sakristaua, ta orregatik artzen zioten aintzat ziona.

—Ortaz lan ederra egingo zun, apaizai entzuna baztarretan zabalduz.

—Bai, Malen, lan ederra egiten zun ortan; bañan akatz bat ba zun bere lanak. Bere edan bear orrekin, etzuten beti, bear zuten indarrrik izaten bere itzaldiak. Edanbear orretzek paragarri ibilli azi omen zun egun batean.

—Ze gertatu zitzayon ba, aitona?

—Izan omen zan kale aldean arratzalde batean. Emen edan, an edan aizkeneako neurritik pasa omen zan gure Doistuko Sakristaua; bañan balantxaka ba zan ere abitu zan Doistu aldera. Ba omen zijoa nolabait bere txoko billa, bañan ibilli ala naztu omen zitzayon iruntzitako ardoa, ta etxeraño eltzeko gauza etzala antzemanik, bide ertzean zegon koba zulo baten etzan omen zan.

Bide artatik igaro ziran geroxeago gazte batzuk. Oartu ziran baten bat lo zurrunkaka zegola koba zuloan, eta nork ote zan begiratu zuten, ta Doistuko sakristaua arkitu. An omen zeuden gazte biurriak sakristauari begira ze sumatu etzekitela bere bizkarretik par egiteko. Alako batean bururatu omen zitzayon bati ze egin, ta kendu omen zioten sakristauari, oin batetik galtzerdi ta apargata beltza, ta bere lekuan mantarra ta abarka bat jarri omen zioten.

Esnatu omen zan urrengo goizean Doistuko sakristaua, ta zurt eginda gelditu omen zan, bere burua koba zulo artan ikustean; geyago, berriz, oin batean apargata ta bestean abarka ikustean.

—Zergatik arritzen zan ainbeste, aitona?

—Gizon txukun ta apaña zan ta beti apargata ta galtzerdi beltzak jantzi oi omen zitun. Ezin sinistuz omen zegon koba sarreran egitan bera zanik ere. Oin bati begira lendabizi, urrena besteari ta ala omen zion berekiko: "Oin ori bere apargata ta galtzerdi beltzaz. Doistuko sakristauena duk ta Doistuko sakristaua izango aiz bai" Urrena beste oñari begiratu ta asarre omen zion: "Utikan! Abarka ta mantar zatar oril Ez dek orrela iñoiz jazten Doistuko sakristaua. I ez aiz Doistuko sakristaua". An omen zegon kezka argitan: "Zer egingo ote det Doistuko sakristaua naizen edo ez jakiteko?". Azkenean oldozmen au etorri omen zitzayon: "Jozak Doistura, ta ikusi zak

etxean dagoan edo ez sakristaua". "Bai, ori egin bear ko diat", erabaki omen zun.

—Erabat argitu gabe zeukan, nunbait, oraindik burua Doistuko sakristauak, eztabaida orretan egoteko.

—Eldu omen zan Doistura, ta zuzenean sakristauaren etxera jo zuan. Deitu omen zun atean: "Barruan al da sakristaua?". Erantzunik ez ematen, eta ordun erabaki omen zun: "Ni izango nauk Doistuko sakristaua", eta atea irikiaz sartu zan barrura.

—Nik esan diotena, aitona. Burua erabat argitu gabe zebilela goizean.

—Bai. Iñoiz ez bezela pasa zan gizajua edanean eta gero gero-kuak... eroa lez ibilli bear urrengo egunean, Doistuko sakristaua.



## PREFAZIO BERRI BAT

—Len edo orain, noiz izan dira lapur geyago, aitona?

—Ez da orixe samurra erabitzeko; beti izan dira ba ta izango dira gero ere zoritxarrez, besteren ondasunen kutizi diranak. Bañan esango nuke, lotzagabegoak zirala linguak gaurkoak baño.

—Gaurkoak baño lotzagebegoak, aitona?

—Bai, Malen gaurkoak baño lotzagabegoak. Ara: ixillik ta izkutuan ibilli oi dira gaurkoak; lengoak ez.

—Ez al zuten len orrela jokutzen?

—Ez zuten ez, Malen, izkutuka jokutzen; egunargiz, ta arpegia estali gabe. Sarritan, berriz, mendean artzen zituzten lurralde bateko bizilagunak, ta ezarritako petxa ordaindu bear garai jakiñetan lapurrai.

—Ori orratik, aitona, geyegikoa dirudi... ez ote da ari dan baño beltzagoa gauza jartzen?

—Gaur, Malen, zaintzalle ugari daukagu ta lapurrak izkutuka ibilli oi dira; bañan garai batean zaintzalle gutxi ta lapurrak ugaldtu ausarki.

—Alaz ere, aitona, ezin sinistu liteke petxa ordaindu bearrean arkitzen ziratenik bizilagunak lapurrai.

—Ai Malen, izutuko ziñake garai bateko kontuak azalduko ba nizkizu. Gertaera oyetako bat azalduko dizut ta ortik jabetuko zera nola jokutzen zuten len lapurrak.

—Lapur kontua al degu gaur?

—Ba omen zijuan bein egun argiz bere errira apaiz bat zaldi gañean, eta errira eldu baño lentswego zegon basoan, irten zitzaizkion bidera lapurrak. Arpegiak estali gabe, naiz ezagunak izan. Eldu omen zioten zalditik ta derriorrean jetxi azi omen zuten apaiz ori, ta soñean zemazkin sosa guziak lapurren eskutan utzi bear izan omen zuan, ta azkenik oñez zaldi gabe joan bear izan omen zun.

—Erriko apaizari ori egin? Gogorak izango ziran noskil

—Gogorak? Diru ta zaldiak kendu ondoren, ze uste dezu geyago egin ziotela?

—Geyago oraindik? Ez dakit ba ze geyago egin zezakieten.

—Berebiziko bildurra sartu nai zioten apaizari, ta orretarako zaldi pisa edan azi zioten, Malen.

—Ixillik egon bedi, aitona, orrelakorik esan gabe. Errira iritxi orduko salatuko zitun, noski.

—Salatu? A gaxoa: bizirik alde egiteko lapurren eskuetatik, zintean agindu bearrean arkitu zan apaiza, ixillik gordeko zuala egun artako pasazue.

—Bizirik jarratzeko, zin egiñaz ori agindu bear izan al zuan apaizak?

—Ixeke ta lapurreta igaro ta bizi truk ziñatu ixillik egotea.

—Etzeukaten Jainkoaren bildur aundirik lapur oyeke!

—Ez, noski, ta orregatik jokutzen zuten ain gogor ta erruki gabe. Apaiz oni bezela, sosak ta zaldia kentzea gutxi izan balitz bezela, zaldi pisa edan azi ta azkenik ziñ egin azi ixillik egongo zala.

—Zer esango diyet etxeokoi zaldia nun detan galdetzen didatean?—galdegin omen zion apaizak lapurren buruari.

—Saldu egin dezula, esan ta ez beste itzik iñortxori esan, erantzun omen zion Patxi Beltzak, berebiziko bekozko gaiztoa jarriaz. Begira: ezer aditzera ematen ba dezu, neonek edo nere lagun oetako batek bizia kenduko dizugu.

—Jainkoari ere ez? —apaizak erdi negarrez.

—Bueno: Jainkoari esayozu nai baduzu, lengo bekozko gaiztoz Patxi Beltza.

—Ez al zuan apaizak, aitona, ezer egin lapur oyeke zigortu azteko?

—Ze egin zezakean apaizak! Ixillik egon bear, naiz auzo ta naiz etxeokak sarritan aiatatu zaldi kontua. Etzan ez erretorea egun ederrak igarotzen ari, Patxi Beltzaren arrokeria ikusiaz. Etzion iñori ezertxo esan, ta nekez ba zan ere ziñaz agindua betetzen zun.

—Bañan aitona, ez al zuan nolabait lapurrak zigorkatzeko neurrik artu?

—Pozik ikusiko zitun lapur aek giltzapearn. Bañan ori nola iritxi? Bildur zan erritik alde egiten, edo beste zezzer egiten oyen aurka, ta ixillik eramaten ari zan gurutz ori; bai Jainkoari egunero eskatzen zion lapur oyeke zigortzeko bidea zuzendu zezala.

—Entzun al zion aitona?

—Bai, andik puskatera eldu omen zan erri artara, inguru aytako lendakaria, bere gudamutillakin. Errian igaroko omen zun igandea. Eskutan jartzen zion Jainkoak lapurrak salatzeke aukera ederra. Poztu zan orduntxe erretorea.

—Nola salatu zitun, aitona, ziña ausi gabe?

—Erri guzia bildu omen zan mezarara; an ikusi omen zun Beltza bere lagunakin. Aldare aurrean jarri omen zan lendakaria; ate ondoan berriz bere mutillak. Poz pozik ekin omen zion erretoreak igande artan meza ematen. Eldu zanean mezerdi aurreko prefaziora zurt egiñik gelditu omen ziran entzule guziak, etzan bat batean euskeraz kantari azi erretorea, ta berebiziko indarraz abestu...

Ala omen zion erretoreak: "Bidezkoa da bai guk geren Jaungoiko Jauna goratzea ta bere izenean agindua zintzo betetzea. Ala egin det nik Ene Jauna, zure izenean agindu niyen basuan Beltza ta bere lagunai, ixilli gordeko nuala gertatua ta ixillik gorde dut. Zuri aitortzea libro dut, ta gaur emen aldare aurrean aitortzen dizut Jauna egun artan igaroa: Beltzak bere lagunakin kendu zizkidan soñean neramazkin ontzakoak, ta zaldi pisa edan azi, ta zaldi gabe etxera bidali. Ikusi zeorrek Jauna ondo dagoan eta gizon oyek zigorra merezi duten edo ez. Ementxe daude zure etxe onetan eta ez utzi zigorrik gabe joaten".

—Orixe daba, aitona, ederki baño ederkigo ziña ausi gabe dana azaltzea.

—Bai, etzuan geyagoren bearrik izan lendakariak giltzapean Beltza bere lagunakin sartzeko.

## ERREGE ZORRIA

—Ez degu euskaldunak gaur goizeko gaitza, bakoitza geren aldetik ibiltze ori. Kale aldean bizi diranak, ikasi dute orratik urteen enporioan alkar ondo artzen; bañan baserritan bizi geranok, lengo lepotik daukagu burua, eta ezin gera alkartu, Malen. Zeñen onugarria genuken baserritarrek alkartzea! Ordun orain amets egin ezin genezaken gauz asko ta asko errex lortuko genuke.

—Bai ori ala da, aitona; alderdi ederra dago bakarrik jokatu edo alkartuta, gauzak erosi ta saltzeko garayan. Noiz ikusiko dugu, ordea, ori, aitona?

—Ondo diozu, Malen, noiz ikusiko ori basarritarren artean? Ortxe ortxe bideak zuzentzeko edo aziendaren okerrak zuzentzeko alkartzen gera... beste gauzetan bakoitza bere kisa... ta zeñen ederki lumatzen gaituzten askok eta askok.

—Ez al dira iñoiz euskaldunak alkartasun zaliak izan, aitona?

—Maite izan dute euskaldun askok alkartasuna, ta ori ikusten dugu ipuyetan. Ara oyetako bat: Baserriko mutil gazte batek, etxia utzi ta munduz mundu joatea erabaki omen zun. Egin omen zun bere erropaz pardeltxo bat ta guraso ta senideak agurtuta, abitu omen zan bere asmoak betetzera. Erritik aldendu orduko jabetu omen zan bakarrik ezin zezakela gauz aundirik egin ta lagunak biltzea erabaki omen zun.

Urrengo egun batean aurrera zijoala bide ertzeko belaza batean etzanda ikusi omen zun lagun bat, belarrira itxatzita. Begira jarri omen zitrayon ta esan:

—Ze egiteko lurrean etzanda, adiskide?

—Belarrak lurpetik ertetzean ateratzen dun soñua entzuten nago.

—Baño gizona, soñu ori entzun dezakezu?

—Nik uste bayez, entzuten ditut beintzak emendik, bi edo iru orduko bidean, datorren zaldiazen perra soñua.

—Etzera makala, aizu: nai zenuke nerekin munduz mundu etorri, zeozer egiten ote dugun ikustera.

—Pozik asko joango naiz.

Alkarrekin jarraitu omen zuten biak ta orrela zijoaztela ikusi omen zuten sekulako egur pillaz sorta egiten ari zan lagun bat.

—Ze asmotan ari zera ainbat egurraz sorta bat egiten? —galdetu zioten.

—Danak batera etxera eramateko asmotan.

Arrituta ikusi omen zuten sorta ura bizkarrera jaso ta etxera eramaten.

—Aizu —esan omen zioten— emen goaz gu biok munduz mundu zeozer egiteko asmotan, zu etziñake lagun txarra izango. Nai duzu gurekin etorri?

Eurakin joan omen zan indartzua ta alkarrekin zijoaztela, ikusi omen zuten eguardi aldera gazte eder bat, arpegia garbitzen ibaiertzean.

—Ze ari gera adiskide, nunbaitera joateko prestatzen edo...?

—Bai; errira joan bear det amabitako bazkaltzera.

—Amabitako? Eguardia gañean degu ta erririk ez da urrutira ageri.

—Bai; bi legua daude errira; bañan nik amar minutu aski ditut bertara joateko.

—Aizu korrikalari berezia zera zu ortaz; gu irurok munduz mundu goaz ezer egiten ote degun ikustera; ez al zenuke gurekin etorri nai?

Eurakin joan omen zan korrikalaria ere eta egunak omen zemazkiten aurrera ta aurrera, iñun irabazbide aundirik arkitu gabe, ta oso urruti utzi omen zuten Euskalerria. Ala erri batean berri pozgarri bat entzun omen zuten, alako lekuko erregeak sari ederra eskeintzen zula, etxean zeukan danborra ze larrukin egiña zan, asinatzen zionari: alegia gizon batek bizkarrean eman zezaken aiña urre.

—Joan adi, esan zion korrikalariari, ta ikusi zak emen diyotena egia dan edo ez. Ala balitz indartzu onek ustuko dik errege orren jauregia.

Beriala izkutatu omen zan eureen begietatik korrikalaria ta beste irurak, bazkaltzera joan omen ziran. Otordua bukatu orduko, an omen zan berriro korrikalaria joan-etorria eginda. Izan omen zan errege orren

lurraldean, ta ao batez ziyotela danak eureen erregeak egindako deya, ta lagun asko azaldu arren erregearengana, etzuala oraindik iñork asmatu ta seko aberasten ari zala eureen erregea. Azaltzen zan bakoitzak bi ontzako bota bear zitula aurretik.

—Ba al zeukaten eurak, aitona, bi ontzako?

—Etzeukaten ez ontzakorik, Malen; bañan ara ze sumatu zuten ontzakoak biltzeko. An ari omen ziran larrain baten gariz betetako zakuaz gurdi aundi zamatzen ta itzayari esan omen zioten, gutako batek eman bayez, erriari jirabira bat, zure gurdi orrekin, zure iriak baño lenago.

Bereala egin zuten berobero apustu irien alde errikoak ta amar ontzako jokatu ere, iri parek aiñako indarrik duan gizonik etzala munduan esanaz. Gurdia zamatatu ta abitu zan itzaya bere iriakin, ta ordu erdi bat bear izan zuan erriari jirabira emateko. Askatu zitun iriak pertikatik ta eldu zion pertikatik gurdia indartsua korrika abitu omen zan gurdi zar arrekin ta amar minutu aski izan zitun jira bira osoa emateko erriari.

Danak zur mur indartzu arren aurrean, ta amar ontzakuak artuta, bereala abitu ziran apaitutako errege orren lurraldera. Egun batzuek igaro bear izan zituzten errege orren erriburura eltzeko.

—Ire txanda dek orain, esan zion belarri ona zeukanari, entzun itzik jauregiko berriak; sumatuko ba ukek erregek ixillika gordetzen duna; urre zama ederra eramango likek indartzuak.

Ostatuko leyoan patxaran omen zegon berriak entzun nairik.

—Entzun al zezakean ostatuko leyoatik erregearen jauregiko berriak?

—Pare parean zegon ostatua ta ez oso urruti jauregitik. Enparantzaren beste aldean.

—Ezer entzun zun belarri ona zeukenak?

—Zorionean gorde zenun bizirik alabaren buruan arkitutako zorria. Nork sumatu lezake zorria erabat azi zanean, bere larruaz egin azi nuala danborra? Makiña bat lagunak euren ontzakoak emen utzita itzuli dira buru makur euren etxetara, ta oraindik itzuliko diranak, bitartean igotzen dioa gure urrepilla.

—Zorriaren larruz egiña al zan danborra, aitona?

—Bai ba, Malen, ta ori jakin bezin laister bildu zitun lagunak ta ixillika azaldu ziyen lagunai. Urrengo goizean an azaldu omen zan

Erregearen jauregian, indartzua laguna artuta, onek, berriz, besapean zaku mordo bat zemakian soka luzeaz lotuta. Ordaindu omen zitun buru egiten zuanak bi ontzakoak ta guzieren aurrean azaldu omen zion erregeari, zorriaren larruaz egin azi zuala zorioneko danbor ori.

—Ze arpegi jarri ote zuan erregeak ori aditzean, aitona?

—Oso gozoa ez, Malen; bañan agindua bete bear ta ala zaku bat bete ur ekarri azi omen zien bere morroyai erregeak; naikoa izango zalako ustean. Eldu omen zion esku bakarras indartzuak zakuari ta orbelaz beteta balego bezin errex jaso omen zun bizkarrera. Luzatu zizkien morroyai besapean zeuzkan zakuak ta urrez betetzeko agindu ziyen.

Ekarrizten omen zituzten zakuak banaka morroyak; indartzuak, ordea, ekarri ala sortan lotu aidean errex jasotzen ta geyago ekarri bear. Orrela jauregiko urreak zaku pillan sartuta, sorta eder bat egin ta bizkarrean errex eramanaz irten ziran biak jauregitik.

—Arrituko zan jendea zaku pillan ura bizkarrean eramaten ikusita.

—Zur ta lor gelditzen omen ziran danak bai jauregikoak ta kalekoak ori ikustean; erregea, berriz, esan bearrik ez dago, Malen, nola geldituko zan urre gabe uzten zutela ikustean.

—Oyetzek bai ederki alkar artu zutela, aitona!

—Bai, ederki alkar artu zuten eta orregatik denbora gutxin seko aberastu ziran. Auxe erakutzi nai digu ipui onek; bear bearrekoa degula alkar artzea ezer egin nai badegu: bakarka iritzi ezin leikena, alkartuta errex iristen dala. Ikasiko bagenu ori beingoan baserritarrak, beste era batera azalduko giñake.

## EUNA TA ONGARRIA

—Lengokoa bezin polita ote du, aitona, gaurko ipuya?

—Politagoa dala, Malen, esango nuke.

—Ederra beariko izan orretarako!

—Ba omen zebillen antziña artan gure Jauna erriz erri, ta arratzalde batean etxe batera jo omen zun ostatu eske. Irten omen zan atera etxeoandrea, ta goitik beera begiratu omen zion ondo ta urrena ze bear zun galdetu omen zion.

—Ba gau ontarako apari ta ostatu eske natorkizu, erantzun omen zion Jaunak.

—Barkatu beariko didazu, bada iñori eskeintzeko moduko aparirik ez daukat ta lo egiteko lekurik ere ez dago gurean. Ara: zoaz auzko etxe orretara: or emango dizute ostatua.

—Ain zekena al zan etxeoandre ori? Alajañetan Jaunari ostaririk ez ematea gogorra dal

—Ez arritu, Malen, zekena zan berez, ta Jauna zanik etzirudin; orregatik beste etxe batera jo bear izan zun ostatu billa.

—Eman al zioten ostatu bigarren etxe orretan?

—Atean deitu orduko sartu azi omen zuten barrura, ez ezaguna izan arren. Etxekoakin batera apaldu eta etxeke gela onenean prestatu zioten oatza.

—Esku zabalak ziran dirudinez bigarren etxe onetakoak.

—Bai, eta urrengo goizean gosari on bat eman zioten abitu arretik, eta alde egiteko garayan etxeke danak lagundu zioten ateraño; alde egin baño len esan zien arrotz arek: "Eskatu diot Jainkoari, bedeinka dezala zuen gaurko aurreneko lana" Guziak maiteki agurtiaz alde egin omen zuan.

An omen zeukaten bazter batean aurreneko egunean eulearen etxetik ekarrita eun bilduma, ta lan estuasunik euki ez nunbait, ta etxeoandreari bururatu omen zitayon zenbat izara egin zezazketen eun arrekin ikustea. On iritzi zitzairen senar ta seme alabai ta ekin

zioten danak amari laguntzen. Asi ziran askatu ta neurtzen ta eba-  
kitzen; zortzi uste irtengo zirala ta zortzi ebaki ondoren asieran be-  
zela biribilla.

An ari zan ama askatzen, aita semeak neurtzen, alaba zarrena  
mozten, ta besteak txukun antolatzen. Ura zoramenal! Etzan biribilla  
aitzen ta galdu zuten kontakizuna. Izan ere, gela bat bete zuten ta  
bestean jartzen asi ziran.

Bereala zabaldu zan errian etxe artan gertazen zana, ta an zeu-  
den ikus miran etorri ta, sinistu eziñik eureen begiaz ikusten zutena.  
Zorionak etxeoandre! Zure seme alabai arreo ona jarri eziñik ez dezu  
izango. Ori da atetik sartu zaizun zori ederral! Baztarrak izaraz bete  
zituztenean utzi zioten lanari ta urrena sortu zituzayen lana etzuten  
txikigua izan: danak jakin nai zuten nor nolakoa zan aurreko arra-  
tsaldean etxean artutako arrotza.

—Zer zion, aitona, ostaturik eman nai izan etzion emakume ze-  
kenak?

—Ze esango zun, Malen, ixillik begiratu izara pilla ayei ta bi al-  
diz damutzen zan ostatu eman ez izana.

—Esan ote zien etxeoai eureen etxean izan zala lendabizi  
arrotz ura?

—Ixillik gordeko zun ori; esan ba liye etxeoai jango zuten da-  
nen artean.

—Gogoangarria izango zan erri orretan Jaunaren ostatu eska-  
tze ori.

—Orixe bai, Malen, ta guziak prest zeuden orain, etxe atarian  
ikusi orduko ille luze ta bizar ederreko arrotza, bereala barrura sar-  
tu azi ta ostaturik berona berari emateko...

—Azaldu al zan berriro erri arretan?

—Bai ba, Malen, andik puskatera arratzalde batean, illunbista-  
kin batera ate joka omen zan Jauna, lendabizi izandako etxe artan.

—Emakume zekenaren etxean, aitona?

—Bai, Malen, bai. Ura arpegi alaya jarri zuan etxeoandreak  
ate aurrean ikusi zuanean arrotz esku zabal ural! Etzun lekuri etze-  
gola esanda bialdu; baizik zurikeri aundiñaz barrura sartu azi, ta  
jazartzeko aulkirik onena eskeñi ta oñak garbitzeko uda berela pres-  
tatu, ta legortzeko zapi garbi bat ekarri. Bai zapi billa joanaz etxeoai

aditzera eman zien nor zuten bisitalaria. Ikustekoa omen zan etxe ar-  
tako danak ze arrera ederra egin zioten arrotz ari.

—Pozik egongo nitzan, aitona, egiten zioten etorria ikusten!

—Beingoatik aztu ziran etxe artan zekentasunaz! Amak apari on  
bat prestatzen kementzu; alabak gela garbitu ta txukun jartzen aren-  
tzat; aitak, ukulluko lanak semeen gain utzi ta arrotzari lagun egiten  
aparia jarri bitartean, ta etxeo ardorik onena eskeñiaz. Nork ezagutu  
etxe artako jendea? Ura zan biotzabal jokatzera; ura apari eder ta  
ugaria; ura zan sendi ez ezaguna...

—Zer zion, aitona, biotzak ikusten zituan Jaunak? Irriparrez ikus-  
ten al zitun biotz zeken ayeen zurikeriak?

—Ori da, Malen, jakin naya ta maxiatu bearral! Utzi yazu gau  
artako gertaerak azaltzen. Apaldu zuten anaitasun ederrean, eta etxe  
artan iñoiz egin etzan bezela apaldu ere. Jauna beti bezela erakusten,  
eta etxeo guziak poz pozik entzuten zioten. Oyeratzeko ordua etorri  
zanean, etxeo nagusiak argia artuta, lagundu zion prestatu zuten  
gelara.

Urrengo goizean, eguna argitu orduko jetxi zan etxeoandrea  
gosaria prestatzeko ta gosaldu ondoren etxeo danak lagundu zioten  
Jaunari atariraño. Agurtu zitun Jaunak abitu baño len arpegi alayaz,  
ta auxe esan zien abitzerakoan: Eskerrak danagatik; eskatu diot Jain-  
koari onetsi dezala zuen gaurko lendabiziko lana.

—Pozik entzungo zioten ori, aitona, beste etxeo izara pilla be-  
gien aurrean zeukatenak!

—Bai ala da ta begietatik izkutatu bezin baister danak larri lan  
egoki bati eltzeke. An sortu zuten iskanbillal!

—Ez al zekiten zertan asi?

—Ez ba; batzuk kutxako ontzak zenbatu; bestiak gariak; besteak  
beste zeozer. Aitak moztu zuan auzia: Ni beintzat nere eginbearrak  
egitera noa ukullura, eta zuek ere obe zendukete beste ainbeste egitea,  
gero egun guzia urrea kontatzen igaroko dugu. Orrela ba, bakoitzak  
bere txokora jo zun, eginbearrak egitera.

—Ja jai, aitona, badakit ze esango dun: asi zirala eureen egin-  
bearrak egiten ta ortan jarraitu zutela egun guzian.

—Asmatu duzu, Malen, zekenkeri utsaz egin zioten arrera ona ta  
biotzak ikusten ditun Jaunak, eman ziela merezi zutena.

Urria maite biotzetan eta ongarrria artu ordañetan.

## BERRIATUKO TXISTULARIA

—Esango duzu, Malen, estudiante ta oyen antzekoak azaltzen dirala azkarrak gure ipuietan ta iñozu xamarrak baserritarrak ta erri txikitakoak.

—Alaxe esan leike, aitona, azaltzen dirala ipuyetan.

—Etzazu ori pensa; ba ditugu beste aldeko ipuyak.

—Bai zera; ez diyete adarrak joko kaletarrai baserritarrak.

—Sotillak azaltzen dira zenbait baserritar, azkar ustekoai adarra jotzen. Entzun ipui au ta ikusiko duzu nola erri txikiko lagun batek adarra jotzen diyen kaletarrai.

Berriatuko lagun bat ageri da ipui onetan. Txistulari omen zan, baña igandetan bakarrik; aste egunean zapatari; izan ere nola bizi txistuak ematen zionatik? Eta zapataritzatik bizi bear...

Ba omen zun zakur aundi bat; jan zakurra bera, ez eizerako ta ez beste ezertarako balio etzuna. Zaunka egin eta iñun ezer arrapatzeko aukera sumatu ezker, izkutatu bere sabel aundian... orra or bere lan guzia.

Bestenean bakarrik egin izan balu ori, pakean jarraituko zuten txistulariaren etxean; bañan apaju ona zan zakur ori etxeoandreaen zabarkeriaz ez baliatzeko ta puska ederrak ez iruntzitzeko.

Ederra egin zion bein txistulariaren emazteari. Ari omen zan au labe-aldea erretzeko orrea prestatu ta ogiak egiten. Ontan joan omen zan gelara zeozarren billa, ta uste baño denbora geitxo igaro billa, ta ernai zegon zakurrak beriala ekin, labera sartzeko etxeoandreak gertu zeuzkan, oriak jaten, baita ura sukaldera azaldu zanerako geientzuenak iruntzi ere. Emakumearen istilluak ori ikustean, ta labe palari eltzerako iges egin zun sukaldetik zakurrak.

Ordun pake santuan zapataritzan ari zan gizonari eraso zion emazteak; entzun izan bear zituan bereak eta bi. Zertarako dauka zakur zar ori? Kendu bear duzu bereala etxetik; ez det erotu nai txakur ori dala ta ez dala; gaur ere ogi geyenak jan dizkit labera sartu

baño len... noiz ez digu ez egitekoren bat egiten? Kendu zazu nere begien aurretik gaur bertan zakur ori; il edo baten bati emayozu.

Pakea maite senarrak ta etxetik izkutatuko zula agindu zion emazteari.

—Etzun orrelako zakurrak diru asko artuko, aitona.

—Utzean beste edozeñek emango zun orrelako zakurra. Ez, ordea, Berriatuko txistulariak; mutil ona zan bera txanpon batzuk ateratzen ez sayatzeko bere zakurrak.

—Lan txarra artuko zun ba gizajuak orrelako zakurrak ezer ateratzeko.

—Etzan ba Txomin uste ortakoa. Alkartu zan lagun batekin ta Bilboko azokara eramán ta an saltzea erabaki zuan, ta biak joan ziran Bilbora zakurra ual luze bategaz lotuta zeramatemala.

Bilbora iritxi ziranean laguna bialdi zun azokara zakurrakin. An jarri zan azokan baserritarra bere zakurra danai erakusten, ta asko inguratu zitzaizkion ze zakur ote zun ikustera. Serio serio ari zan bera txakurraren gaitasunak azaltzen. Ala omen zion baserritar arrek: "Ez da erbi zakurra, ezta eper zakurra; e eta arratoi akurra; alaz ere lan ederrak egiten dizkio nere lagunari. Izan ere zakur onen jabea zapatari ta txistularia dezute, ta iñora oñetakoak saltzera joan bear dunean, akur onek eramaten dizkio bizkarrean eta emengo edo beste auzko errira joan bear dunean txistua jotzera, zakur onek eramaten dizkio bai txistu ta bai danborra bizkarrean".

Ontan eldu omen zan azokara baserritar bat bere blusa aundiaz, Txomin bera, ta lagunak ziona entzun ondoren, asi omen zitzayon galdetza: zenbat urte zituan zakurrak, eta nola ikasi zun lan oyek egiten. Urrena atera omen zun sakeletik sokatxo bat ta asi omen zan neurtzen bai luzen zenbat zan, bai zabalen ta bai goraka. Azkenik galdetu omen zian saltzalleari zenbatean emango zion zakur ori.

—Ara ba adiskidea: iru ontzako truk emango dizut.

—Iru ontzako? Askotxo ez ote da zakur onentzat?

—Ez sosik barkatzeko agindu dit nere lagunak eta ez noa sosik barkatzera.

—Askotxo iruditzen zait ba iru ontzako zakur onen truk.

—Ba zakurraren jabe egin nai ba duzu, iru ontzako eman beariko didazu.

Gustatzen zait bai zakurra —jira bira bere inguruan ibilli on-

doren—bañan bi ontzako ditut nerekin; etxera joan ta ekarriko det irugarrena, itxo egidazu.

—Itxo egingo dizut ba etorri arte.

Alde egin omen zun Txomin txistulariak plazatik. Azokan arkitzen ziran baserritar askok txorakeri bat jotzen omen zuten, bi ontzako eskeintzea zakur zar arregatik ta iru ordaintzea berriz astakeri bat. Ba ziran, ordea, azkar ta jakintzu ustekoak, irabazi aundia atera zitekela jotzen zutenak iru ontzako txakur arregatik ordainduta.

Oyetako bi aurreratu ziran zakurrakin zegon baserritarregana, azokatik Txomin izkutatu orduko ta eurentzat bear zutela zakurra esan zioten.

—Bai baño: ez du gizalegeak ontzat ematen, itxoegiteko itza ausi ta beste bati saltzea.

—Uste al dezu iru ontzakokin etortzen ikusiko dezunik?

—Ala agindu du ta itxurazkoa da etortzen dan edo ez ikustea.

—Alperrik itxoegingo diozu egun guzian; orra eskatzen dituzun iru ontzakoak, emaguzu zakurra ta joan zinteke zere etzera.

—Ez dakit ba ze egin: ari itxoegin edo zuei zakurra eman. Neri berdin zait zuei edo ari zakurra eman... Bueno bueno torizute zakurra ta etxera itzuli ninteke bereala.

Aguro izkutatu omen zan azokatik baserritar au iru ontzakoak jasotakoan bañan aurretik azokatik izkututzen ikusi omen zitun bi kaletarrak zakurrakin, Txomin azaldu baño len.

—A tuntuna etzien ziri txarra sartu Txomin txistulariak, azkarrak eureen buruak jotzen zituzten bilbotarrak. Iru ontzako ordaindu azi, jan zakur bategatik.

## ARKIBIDEA

### I

#### JENTILLENAK

1	Garia Gipuzkoan ... ..	7
2	Jentilla ta Artzaia ... ..	10
3	Jentilleen Indarrak ... ..	13
4	Tartalo ... ..	16
5	Jentil Baratza ... ..	19
6	Jentillen Bukaera ... ..	23
7	Burumendiko Mari ... ..	26

### II

#### ABERENAK

8	Abereen zein geyagoteka ... ..	31
9	Otsoa ta Ari koskorrak .. ..	34
10	Auntza Otsoa ta Axaria ... ..	37
11	Axariaren zoriona ... ..	41
12	Legoya ta Olagizonak .. ..	44
13	Esker Txarra ... ..	48
14	Otsoa Artzantzán ... ..	52
15	Otsoa ta Azaria eizean ... ..	55

### III

#### SORGINKERIAK ETA GERTAERAK


16	Sorabillako Zubia ... ..	61
17	Bi Ikazkin ta Sorgiñak ... ..	65
18	Sorgiñen Billerak ... ..	69
19	Sorginkeriak ... ..	73
20	Maxiatzalleak ... ..	77
21	Anima meza eske ... ..	81

22	Nolabaiteko Apustua ... ..	84
23	Kontuz Izuakin ... ..	87
24	Gau beltz batean ... ..	90
25	Gaiztoen Ontzea ... ..	93

IV

DANETAKOAK

26	Astoa ta Astronomoak ... ..	99
27	Kargak Jasotzen ... ..	102
28	Mandazaña ta Estudianteak ... ..	105
29	Amen ... ..	108
30	Estudianteen Maltzurkeriak ... ..	112
31	Tibi ... ..	115
32	Alper Aundi ... ..	119
33	Doistuko Sakristaua ... ..	122
34	Prefazio Berri Bat ... ..	126
35	Errege Zorria ... ..	129
36	Euna ta Ongarria ... ..	133
37	Berriatuko Txistularia ... ..	136







Ramon Murua Arruabarrena, apaiza dezu "Aitonaren Ipuiak", izena dun liburuaren egilea. Kardaberaz Bazkuna, argitaldaria, 1973.

Jaiotzez Ordiziarra eta Anoetarra bizi izatez.

Anoeta erri politan 15 urte daramazki erretore.

Bere idaz-lantxoak euskal asteroko geienetan agertu dira.

Gazteiz'ko Apesteagian, On Manuel Lekuona, maxu zuala. 1922-1932, Kardaberaz "Idazle-eskolaren" bidez, aurreneko euskal idatziak idatzi zitun.

Euskeran arloan, ordutik gaur arte ezarian, eten gabe diardu.

Euskerara itzulketan batez ere da iaioa: euskeratu ditu ta argitaratu dizkiote:

Acosta Montoro'ren, "Peregrino de la ira" --euskeraz, "ASARRRE BIDEAN", antzerkia-- 1967, Auñamendi argitaldaria.

Ramon Zulaika'ren "Cuentos liberales" --euskeraz "IPUI JATORRAK"--1967-- Kuliska sorta, 66: Itxaropena, argitaldaria.

"JAINKOTXOEN ETA GIZAGURENEN MUNDUA": Enciclopedia vasca 6'en alea-1969: Timun Mas, S. A. argitaldaria.

"INDUSTDIAKETA AUNDIAK": Enciclopedia vasca, 16'en alea, 1970: Timun Mas, S. A. argitaldaria.

Orretzaz gañera ba'ditu berak asmatutako zenbat idatzi-lan: antzerkiak: eleberriak: 3 urtetako igande itzaldiak... eta abar. Millaka ordu euskeraz idazten, sinismenez eta maitasunez "EUSKALERRIA" gatik-1923-1973.

Au dezu, irakurle, "Aitonaren Ipuiak", liburua asmatu duanaren, berri laburra.

u ta irakurri, gauz politak jakingo dituzu-ta.

aberaz argitaldaria, zer?

dazle oiegatik, Euskal-elertu'gatik, Euskeraren iraberastasuna'gatik, KARDABERAZ-BAZKUNA Euskalerrian azaltzea: "IDAZTI ZAARRAK", "KARDABERAZ -SORTA. Beste "sortaz gañera".



Juan San Martin Lib. / Eibar

Aitonaren ipuiak

Murua, Ramón (1906-1983)

N MUR ait 7804



6824274